



LEHENENGOAN ALFONBRA GORRIRA

Yune Nogueiras bergarra eta Lorea Ibarra arrasatearra Zinemaldian lehiatuko dira euren estreinako film luzearekin, 'Akelarre' filmarekin / 40

Akelarre filmeko bi aktore debagoiendarrak –Nogueiras ezkerrean eta Ibarra eskuman–, joan den domekan Donostian, Kurasaaleko atarian. Irudi txikietan, bi aktoreak filmerako karakterizatuta.

IMANOL SORIANO

Pandemia hasi zenetik, 976 pertsona kutsatu ditu COVID-19ak Debagoiengan, erdiak Arrasaten / 2

Sanmiguel jairik ez aurten Aretxabaletan; eta arduraz jokatzeko eskatu die Udalak herritarrei / 18



Eneko Carrascal atleta arrasatearrak bere marka ondu du salto hirukoitzean: 15,90 metro / 38

Huhezik eraikin berria dauka gaurtik, proiektu pedagogikora egokituta

Urkullu lehendakariak inauguratuko du MUREn campuseko hezkuntzako egoitza berria, Eskoriatzan / 4



MUREn hezkuntzako fakultateko eraikin berria, Eskoriatzan. MAIALEN SANTOS

SINADURAK

	AINHOA PARDINA / 25
	IBAN PEREZ HERNANDEZ / 8
	JOSUNE ODRIZOLA / 32
	ENERITZ URRUTIA / 11
	IDOIA ETXEBERRIA / 48

+ Xabier Chamorro ikerlariari elkarrizketa
Hezkuntzaren bilakaera, jaien epelean

Hemen garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa
ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

SKODA KODIAQ

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 18 70

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Eguenean, hilak 15, grebara deituta zeuden Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko unibertsitatez kanpoko hezkuntzako langileak, eta, sindikatuen arabera, %70eko jarraipena izan zuen deialdiak. Jaurlaritzaren esanetan, ordea, %41,9 ingurukoa.

Debagoiengan, askotarikoa izan zen jarraipena, eta zaila da datuok zenbakitaraz ekartzea, langile bakoitzak bere hautua egin baitzuen. Kontuan hartu behar da irakasleez gain, jangelako eta bestelako langileak ere grebara deituta zeudela, eta kasu batzuetan, adibidez, irakasleek ez zutela grebarik egin eta jangelakoek bai. Hortaz, grebaren jarraipen zehatza ez da bere osotasunean zifratara ekarri. Sindikatuen arabera, ordea, eskualdean ikastolek egin duten jarraipena "erabatekoa" izan zen, eta kristau eskoletan, "apalagoa". Bestetik, ondorioztatu dute publikoan izandako jarraipena "zabala" izan zela.

Adibideetara etorrira, Aramaioko San Martin eskolan ez zuten grebarik egin, ezta Oñatiko Txantxikun ere. Bergarako San Martin Agirre eskolan ere ez, eta azaldu dute ez zela batzarrik antolatu eta unean uneko egoerari eman nahi izan ziotela "lehentasuna". Elgetan ere, grebak Haur Hezkuntzako gela batzuetan eta bestelako irakasgai batean soilik izan zuen eragina.

Bestetik, greba egin zutenen artean daude Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskola, Antzuolako Herri Ikastetxea, Bergarako Aranzadi Ikastola, Aretxabaletako Kurtzebarri Eskola eta Leintz aldeko Arizmendi, besteak beste.

Oñatiko Urgain-Errekalde Herri Eskolako irakasleak ere batu ziren deialdira, eta Aintzane Agirre ikasketaburuak azaldu zuen "oso baliabide gutxi" dituztela egoerari aurre egiteko, eta "premiak bultzatuta" egin zutela greba. "Ez zaigu gel hidroalkoholikoa iritsi eta termometro bakarra dugu 400 ikasleri tenperatura hartzeko. Bestetik, gu ari gara gure poltsikoetatik FFP2 motako maskarak erosten", azaldu zuen Agirrek. Bestetik, ordezkoen faltan daudela salatu zuen, eta dituzten baldintzekin lan egitea "ezinezkoa" eta "onartezina" dela.



Oñatiko Urgain-Errekalde herri eskola, itxita. HASIER LARREA

Askotariko erantzuna izan du martitzeneko grebak eskoletan

LAB, ELA, Steilas, CCOO eta UGT sindikatuek deitutako hezkuntza arloko grebak askotariko erantzunak eragin zituen Debagoiengan. EAE mailan, sindikatuen arabera %70eko jarraipena izan zuen eta Jaurlaritzaren esanetan, %40,1ekoa

GREBAREN JARRAIPENA EAE-N GUTXIENKO ZERBITZUAK SALATU ZITUZTEN SINDIKATUEK

Eguenean, EAEko hiru hiriburuetan egin ziren mobilizazioak, eta sindikatuek egindako adierazpenetan azaldu zuten euren arabera %70eko jarraipena izan zuela grebak. Eskaeren artean egon ziren ikasgeletan gehienez 10-15 ikasleko taldeak egotea, lanpostu guztietan ordezkapenak lehenengo egunetik betetzea eta arrakalak-arrakala pedagogiko, sozial, teknologiko, euskarari lotutakoak-bideratzeko neurriak ezartzea. Horiez gain, garbitzailentzat ratioak egokitzea eta metrajea zehaztea ere exijitu zuten sindikatuek, eta berdin jangelako langileentzat ere-zerbitzua ikasle guztientzako bermatzea eskatuz.

Eusko Jaurlaritzak, berriz, lehenengo datuak kontuan hartuta grebaren jarraipena %40,1ekoa izan zela adierazi

zuen. Eta Hezkuntza sailburu Jokin Bildarratzek egubakoitzean emandako prentsaurrekoan azpimarratu zuen ez zuela uste grebak "onurarik" ekarriko zuenik momentu honetan, eta "elkarlanerako eta hitz egiteko garaia" zela: "Zer ekarpen egiten die grebak ikasleei, familiei edo hezkuntza-sistemari berari? Grebak ahulena kaltetuko ditu". Dena den, Bildarratzek hezkuntzako talde profesional guztiek egin duten lana eskertzen zuela aitortu zuen, eta berretsi egin zuen hezkuntza komunitatearekin lan egiteko asmoa.

Bestetik, greba egunaren bezperan iritsitako gutxieneko zerbitzuen araudiak ere "haserre" eragin zuten ikastetxeetan. Sindikatuek ere ohar bateratua argitaratu zuten horren haritik: "Jaurlaritzak, orain arteko irizpide oro aldatuz, inoiz baino zerbitzu minimo handiagoak ezarri ditu osasuna bermatzeko aitzakiapean, greba eskubidea urratuz". Bestalde, Urgain-Errekaldeko Aintzane Agirrek ere

desadostasuna agertu zuen neurriekiko, eta esan zuen inoiz ez zutela "horrenbeste irakasle" behar izan zerbitzu minimoak egiteko: "Grebaren datua disimulatzeko asmoa egon daitekeela uste dugu". Sindikatuek zerbitzu minimoen agindua epaitegietara eramatea aztertzen ari dira.

COVID-19A BAILARAN POSITIBOEN GORAKADA DEBAGOIENAN

Azken astean, nabarmentzeko gorakadak izan dira bailaran COVID-19 kasu berriak direla eta. Guztira, 125 positibo berri erregistratu dira astean zehar, eta dagoeneko 976 dira pandemia hasi zenetik kutsatutako debagoiendarrak.

Batez ere, asteburuan Arrasaten erregistratutako positiboek puztu dute zenbatekoa; izan ere, hiru egunean 42 positibo atzeman zituzten PCR probek, eta hainbat

taberna itxi behar izan dituzte inguruan atzemandako positiboak direla eta. Dena den, Arrasatez gain, beste udalerrietan ere egin dute gora metatutako zifrek. Eta salbuespena izaten jarraitzen du Leintz Gatzagak, oraindik ez baita herritar bakar bat ere kutsatu pandemia hasi zenetik.

Adierazitako gorakadak ez du indar bera izan Hego Euskal Herrian, baina asteburuan 2.000 positibotik gora erregistratu ziren lau lurraldeetan; zehazki, 2.345 kasu berri atzeman ziren.

COVID-19A HEGO EUSKAL HERRIAN OSASUN SAILAREN ARABERA, 46 LAGUN ZENDU DIRA ASTEBETEAN EAE-N

Eguaztenetan argitaratu izan du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, orain arte, asteko balantzea-eta koronabirusaren eraginez erregistratutako heriotzen zenbatekoa-, baina aste honetan, xehetasunik eman gabe adierazi du azken astean 46 lagun izan direla Euskal Autonomia Erki-degoan zendutakoak.

Datu hori gainerako asteetakoekin alderatuz gero, igo egin da; izan ere, 30 izan ziren aurreko astean zehar hildakoak. Hala ere, Osasun Sailak ez du jakinarazi noiz eta non erregistratu diren heriotzak.

Guztira, azken datuen arabera, pandemia hasi zenetik 2.353 pertsona hil dira Hego Euskal Herrian COVID-19aren eraginez.

Erietxeen egoerari dagokionez, ostera, 470 dira guztira une hauetan ospitaleratuta dudenak; horietatik 69, ZIU. Datuari erreparatuz, ospitaleetako egoerak ez du hobera egin, aurreko asteekin alderatuta.

ADINEKOEN EGOITZAK KASU POSITIBO BAT BERGARAKO MIZPIRUALDE ADINEKOEN EGOITZAN

Eguaztenean jakinarazi zuten Bergarako Mizpirualde adinekoen egoitzan positibo bat atzeman zutela. Pandemia hasi zenetik ez da kutsaturik egon Bergarako egoitzan; lehenengo kasua da hau. Bailara mailan, berriz, uztailen sendatu zen kutsatuta zegoen azken egoilia-

rra –Aretxabaletako GSR egoitzakoa–, eta eguazten honetara arte ez da beste diagnostiko positiborik egon Debagoieneko egoitzen artean.

Azken datua kontuan hartuta, 70 egoiliar dira Gipuzkoako egoitzetan diagnostiko positiboarekin daudenak.

UDALTZAINGOAREN ISUNAK

18 ISUNETIK GORA JARRI DIRA BERGARAN, BOTILA-FESTAK EGITEAGATIK

Asteburuan hamabi isun jarri zituzten Bergarako udaltzainek; horietako gehienak Ibargarain, botila-festak egiten ari ziren gazteei. Bestetik, martitzenetik eguaztenerako gauean ere sei isun jarri zituzten gisa horretako festak egiteagatik. Guztira, dagoeneko hogeitazazpi gora identifikatu dituzte udaltzainek, baina, azaldu dutenez, horietako batzuk arauak betetzen ari zirela-eta –maskarak jarrita eta segurtasun distantziak errespetatzen–, identifikatutako guztiek ez dute isunik jasoko.

IKASTETXEETAKO EGOERA

DEBAGOIENENKO HAINBAT IKASGELA KONFINATUTA EGON DIRA ASTE HONETAN

Bergarako Ipintza institutuak astelehenean jakinarazi zuen DBH-1eko gela bat eta DBH-2ko bi konfinatu zituztela, irakasle batek positibo eman zuelako. Bestetik, Bergarako Mariaren Lagundian ere Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleak ez ziren eskolara joan, asteburuan ikasle baten senide batek positibo eman zuela eta.

Azken datuen arabera –egunean argitaratutakoa–, EAEn 71 ikastetxetako 92 ikasgela daude berrogeialdia egiten.

ARANTZAZU SANTUTEGIKO HOTELEA

HAMAR LAGUN DAUDE BERROGEIALDIAN SANTUTEGIKO HOTELEAN

Uztailean 45 gela prestatu zituzten Santutegiko hotelean, asintomatikoak diren edo gertuko

batek positibo eman duelako berrogeialdia egin behar duten herritarrentzako. Une honetan hamar pertsona daude hotelean, eta zenbatekoa "seinale ona" dela azaldu dute bertakoek; izan

ere, abuztuan 42 lagun izatera ere iritsi ziren.

Bertan dauden pertsonen "asko jota" buruko mina dutela diote hoteleko arduradunek, eta sintomak larriagoak izanez gero

ospitalera lekualdatzen dituztela. Azken asteetan "aldaketa eta gorabehera" handirik gabe ari direla adierazi dute, eta bide beretik jarraitzea espero dutela azaldu dute hoteleko kideek.

Koronabirusa Debagoienean

	Positiboak aurreko astean	Positiboak aste honetan	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Arrasate	26	65	460	20,84
Bergara	9	22	178	11,84
Oñati	7	24	143	12,26
Aretxabaleta	10	6	116	16,01
Eskoriatza	2	0	38	8,82
Antzuola	2	4	17	7,70
Elgeta	0	0	14	12,29
Aramaio	0	4	10	6,62
Gatzaga	0	0	0	0
GUZTIRA	54	125	976	

ITURRIA: OSASUN SAILA

Guztira, 976 kasu bailaran

976 kasu erregistratu dira bailaran pandemia hasi zenetik; horietatik 125 aste honetan bertan. Aurreko astean baino 71 positibo gehiago hauteman dira, zehazki.

Egoera herriz herri aztertuz gero, aste honetan gora egin dute kasuek herri gehienetan, baina Aretxabaletan, Eskoriatzan, Elgetan eta Leintz Gatzagan kasu gutxiago –edo berdinak– erregistratu dira. Gehien, berriz, Arrasaten eta Oñatin.



GURE IZAERA
KULTURA
HIZKUNTZA LEHENA.

GEUREA LEHENA.

1

Proiektu pedagogikora lotutako eraikin berria

Huhezi fakultateko Eskoriatzako campuseko Dorletako eraikina eraberritu egin dute. Proiektu pedagogikoarekin uztartzen den espazio ireki bat sortu gura izan dute; ikasleen arteko elkarrekintza bultzatu eta hauek sormenerako tokia izan dezaten



Huhezi fakultateko Dorletako eraikina, eraberrituta. M.S.

Maialen Santos ESKORIATZA
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Eskoriatzako campuseko Dorletako eraikinak eraberrituta hasiko du ikasturtea, irailaren 28an. Goitik behera berritu dute, eta hedapen bat ere egin diote; 1.700 metro koadro izatetik 3.700 metro koadro izatera pasa dela azaldu du Huheziko dekanok, Begoña Pedrosak.

Proiektu pedagogikoa bultzatuz
Dekanoak azaldu duenez, duela lau urte "hausnarketa estrategikoa" jarri zuten martxan, eta hortik atera ziren ideien artean bat izan zen ardatza: proiektu pedagogikoari "bultzada" ematea. Hori egin ahal izateko, baina, beharrezkotzat jo zuten "espazio birpentsatzea". Hala, hausnarketa zabaldu, eta komunitate osoko eragileak "gonbidatu" zituzten parte hartzera. "Hortik abiatuta gidalerro batzuk atera genituen diseinurako eta kontzeptualizazio osoa egiteko. Esan daiteke proiektu arkitektonikoa lerratzten dela behar pedagogikoarekin, eta baita unibertsitatea bizitzeko aukerak moduarekin", azaldu du Pedrosak.

Eskaintza akademikoa handitu zutelako izan dute espazio gehiagoren beharra. Eta uste du geletan ez ezik, "espazio osagarrietan" ere irabazi dutela: "Txoko txikiak diseinatu ditugu, eta hainbat espazio publiko ere badaude, modu osagarrian prozesu pedagogikoa sendotzera datozenak". Are gehiago, dio ikaste-irakaste prozesurako ez direla gela itxiak behar, "elkarrekintza eta sormena bultzatzeko" plataforma bat baizik.

Lau solairu ezberdin

Lau solairutan banatu dute eraikina. Behe solairuan egokitu dute kafetegia, "kultura bultzatzeko eta elkarrekintzarako espazio kolaboratiboa". Bip-lab

izena daraman liburutegia ere erabilgarri egongo da aurrerantzean. Bertan daude ikerketarako txokoak, bakarkako zein taldekako lanetarako kubikuluak eta baita espazio ireki kolaboratibo bat. Digitalizazio estrategia ere "erdigunera" ekarri dutela azaldu du Begoña Pedrosak, eta "toki propioa" eman diote laborategi digitalari: "Momentu honetan hezkuntzan dauden beharrei erantzun gura diegu ikerketa eta transferentziaren ikuspegitik". Gaineratu duenez, komunitatea bertara hurbildu eta esperimenta dezan gura dute. Bulegoak ere hartuko ditu Dorletako eraikinak, eta gela "moldagarri" eta "anitzek" osatuko dute espazioa.

Urtebete pasatxo behar izan dute eraikina eraberritu eta "espazio irekia" egiteko. Jasangarritasuna ere "zaindu" dutela azaldu du dekanok: "Material naturalak erabili ditugu, ahal izan dugun neurrian; zura, pinua... Landaredia ere jarri dugu fatxadan; klimatikoki eta termikoki lagungarria izan dadin".

Inaugurazio ekitaldia, gaur

Mondragon Unibertsitateko ikasturte akademikoaren hasiera eta Huheziko eraikin berriaren inaugurazioa egingo dute gaur. Lehendakari Iñigo Urkulluk, Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxak, Hezkuntzako sailburu Jokin Bildarratzek, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko presidente Amaia Agirrek eta dekanok Begoña Pedrosak hartuko dute parte ekitaldian.

**URTEBETE PASA
IRAUN DUTE BERRITZE
LANEK; GAUR
INAUGURATUKO DUTE
ERAIKIN BERRIA**

Aurrezki gehiago bazkide izateagatik

Irailaren 17tik 23ra



Oparitzen dizugu

BEZ.^{*}
a



Liburuetan, paper-gauzetan
eta ikasleentzako jantzietan

Ikasleentzako oinetakoak barne

* 20€-tik gorako erosketengatik
EROSKI Hipermerkatu honetan.

Sustapenetik kanpo geratzen dira pijamak, baruko arropak, gaitzetinak eta eskualdeko arropa tradizionalak. Azib, %21 BEZ daukan 100 €-tik gorako erosketak batengatik 17,35 € sartuko dituzugu EROSKI Club txartelean. Kontsulta itzazu gainerako baldintzak zure ohiko EROSKI dendan.



EROSKI

ARRASATE



Musakola z/g ARRASATE,

Tel.: 943 71 10 30

"Zientziak argituko du auzi hau, ez epaitegiek"

JOSE ANTONIO VILLAR 'IRUÑA-VELEIA ARGITU!' PLATAFORMAKO KIDEA

Uztailaren 23an, plataformako bost kidek gose greba hasiko zutela jakinarazi zuten, gaia bide zientifikotik argitzea eskatzeko; Villarrek publikoki babestu zituen grebalariak

Xabi Gorostidi OÑATI

Ekainean argitaratu zen Iruña-Veleiako indusketekin lotutako sententzia: Eliseo Gil arkeologoari bi urte eta hiru hilabeteko kartzela zigorra ezarri zioten, iruzur delituagatik. Hori ikusirik, Iruña-Veleia Argitu! plataformako bost kidek gose greba hasi zuten –batek oraindik jarraitzen du–, Eusko Jaurlaritzari gaia zientifikoki argitzea eskatzeko. **Epaiketara ikusita, zein irakurketa egiten duzue?**

Lehenik eta behin, komeni da epaiketari buruz gauza bat argitzea. Bertan ez zen epaitu aurkitutako grafitoak egiazkoak edo faltsuak ziren, faltsuak zi-



Jose Antonio Villar. J.A.V.

rela alde zuzenetik erabakita epaitu baitituzte. Epaia tramitera onartzen den unetik, grafitoak faltsuak direla finkatzen dute; ez da hori ezbaian jarri. Gainera, silogismo faltsu hau erabiliz epaitu dute: ahal izan zuen, komeni zitzaion eta egin egin zuen. Hori onartezina dela uste dugu.

Errekurtsoa jartzean, beraz, ez duzue esperantzarik...

Batere ez. Errekurtsoa jarriz gero, berriro edukiko genuke arazo bera: ez dela grafitoen benetakotasuna edo faltsutasuna argituko. Duela 12 urte, grafitoak faltsuak zirela erabakita, kasua tramitera onartu zenean,

orduan zen errekurtsoa jartzeko unea; ez orain. Hori dela eta, gaia bide zientifikotik argitzeko eskatzen diogu Jaurlaritzari berriari. Egia jakiteko eskubidea dugu, eta egia jakiteko bidea oso erraza da, bide zientifikotik erabili nahi badira, behintzat. Hori lortzeko aritu dira plataformako grebalariak euren osasuna arriskuan jartzen.

Zuen eskariak Jaurlaritzan izan dezakeen bidearekiko zein espektatiba duzue?

Gure ustez, orain arte egindakoak ez du zentzurik, eta Parlamentuari helarazi nahi dioguna zera da: zientziarekin lor daiteke egia argitzea: eta, gure ustez, ahalegina egitea merezi duen gaia da. Badakigu alderdi politiko batzuk bide horren alde daudela, baina jakin badakigu ere presio izugarriak daudela gaia bere horretan mantentzeko. Parlamentuen gehiengoak eta gutxiengoak legeak agintzen du, eta ez dakit zein bide izan dezakeen. Baina benetan uste dut zentzuzko parlamentu batek egiaren bila joateko bidea egin beharko lukeela; bestela, egiaren aurka egiten baitu.



Aitor Urzelai. GOIENA

Aitor Urzelai oñatiarra, SPRI erakundeko zuzendari berria

Aitor Urzelai Inza (Oñati, 1975) izango da SPRI (Industria Sustapen eta Birmoldaketarako Sozietatea) erakundeko zuzendari berria. Eusko Jaurlaritzako Ekintzailetzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen zuzendaria izan da 2016tik, Arantxa Tapia sailburu izan den departamentuan. Mondragoneko MIKeko zuzendari nagusia ere izan zen 2009tik 2012ra.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behe
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behe
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradespersion formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

Langileen ordezkari bat, lehen aldiz presidente

Goiena Komunikazio Taldeko batzar orokorrean hartutako erabakiz, Monika Belastegi lan-bazkidea izango da Goienako presidente berria; eta Aitor Izagirre ordezkatu du. "Pozik" eta "arduraz" hartu du kargua, eta lanean hasteko "gogoz" azaldu da

Maialen Santos ARRASATE

Joan den astean, urteko batzar orokorra egin zuen Goiena Komunikazio Taldeak. Eta bertan hartutako erabakien artean egon zen zazpi urtean presidente izan den Aitor Izagirreren ordezkari Monika Belastegi izatea aurrerantzean kargu hori beteko duena. "Zazpi urte oso politak izan dira, lan askokoak; gauza asko pasatu dira... Pena puntu bat ere badut, baina pozik nago, proiektu hau oso osasuntsu dagoelako", azaldu du Izagirrek. Esperientzia "aberasgarria" bizi izan duela dio, eta uste du enpresa "hazi" egin dela azken zazpi urteetan. "Hasierako urteetan ziurgabetasun ekonomikoa handiagoa zen, eta azken urteetan egonkortzeraz egin du. "Kazetaritzaren ikuspegitik, argi dago digitalizazioaren goazela, eta horretan Goienak apustua egin du", gaineratu du.

Presidente berriari buruz galdetuta, begi onez ikusten du aukeraketa: "Monika Belastegi esperientzia handiko pertsona da enpresan. Alor ezberdinetan lan egindakoa da, eta, hori gutxi balitz, harremanetarako gaitasun handia duela erakutsi du". Edozelan ere, azaldu du presidente kargua utzi arren Goiena "gertutik" jarraituko duela, eta hari



Monika Belastegi presidente berria eta Aitor Izagirre presidente ohia. GOIENA

estuki "lotuta" egongo dela aurrerantzean ere.

Monika Belastegik, berriz, pozik baina era berean ardura handiarekin hartu du Goienako presidente kargua: "Pozik eta lan egiteko gogoz nago. Bide honetan saiatuko naiz Debagoieneko euskara elkarte guztietako ordezkariekin egoten, elkarlana sustatzen eta modu horretan etorkizuneko erronkak sustatzen". Goienak daraman jardunari jarraipena ematen segitzeko asmoa agertu du baita ere: "Euskarazko hedabide bat gara

eta gure DNAn dago euskararen normalizazioan urratsak egitea". Goienan ibilbide luzeko kazetaria, Belastegi da komunikazio taldeko presidente izango den lehen lan-bazkidea.

Goienak bi presidente izan ditu orain arte, Estepan Plazaola eta Aitor Izagirre, eta, Belastegiren hitzetan, zein baino zein hobeak izan dira: "Lan handia egin dute, militantzia handiarekin eta orduak dedikatuta atera dute aurrera Goiena bazkide molde guztiekin batera". Era berean, aitortu du haien beste

egitea ez dela erraza izango, baina badagoela ezberdintasun bat: "Goiena asko profesionalizatu da 20 urtean eta langileok misio eta bisioarekin bat egiten dugu; gainera, orduak ditugu afizio eta ofizio honi dedikatzen". Hori horrela, bazkide talde guztiei kasu egiteko nahia du: "Goienak badu administrazio publikoaren hanka, euskara taldeena eta langileena. Denok eta beti gustura egotea ez da erraza izango, baina helburu hori jarrita diot neure buruari. Prest nago interlokutore izan eta nire aletxoak jartzeko".

Datozen hilabeteetako lanari dagokionez, azaldu du hurrengo hiruzpalau urteetarako norabidea marraztuko duen "plan estrategikoa" garatzen hasiko direla laister Goienan. "Nabarmenduko nuke enpresak bada kiela mugimendu berriei adi egoten, badakiela komunitateari entzuten, eta ildo horretan ere pauso berriak egingo dira".

Bazkideak "mimatu" gura dituztela ere azaldu du presidente berriak: "4.000 lagunek urtero-urtero babesten gaituzte kuota ordainduz, eta horientzako ere nahi dugu zerbait prestatu, urte amaierarako edo 2021 hasierarako".

Erronka berriei buruz galdetuta, aitortu du lehenengo eta behin "denbora bat" hartuko duela presidentetzak zer dakarkion jakiteko. Jarraian ekingo dio plan estrategiko berria egiteari: "Goienaren bosgarren plan estrategikoa izango da eta hor idatzi beharko ditugu asmo guztiak. Nik neuk presente izango ditut Goiena irakurtzen, ikusten eta entzuten duten horiek guztiak. Baita Goiena osatzen duten bazkide laguntzaile, erabiltzaile eta lankideak ere".

Egoitzen lan-gatazkarentzat "konponbidea" eskatu dute

Gipuzkoako Senideak elkarteak eskakizun ugari egin dizkie Gipuzkoako udalei eta Foru Aldundiari

M.S. ESKORIATZA

Gipuzkoako Senideak elkarteak agerraldia egin zuen zapatuan Eskoriatzan, adinekoen egoitzen lan-gatazkari "berehalako konponbide eraginkorra" eman diezaioten eskatzeko.

Gipuzkoako udal guztiei agiri bana helarazi dietela azaldu zuten, adinekoen arreta "lehen-tasunezko" eta "presazko" kontua dela argudiatuta, eta haiek Foru Aldundiari "esku har dezan" eskatu diezaioten. Era berean, Aldundiari berari eskatu diote egoitzen lan-gatazkari konponbidea jartzeko "beharrezko neurriak" hartu, eta alde guztiekin mahai bat eratu dezala: "Langile batzuek ia 250 egun daramatzate greban, eta gatazkak bere horretan jarraitzen du. 2012az geroztik ez dago hitzarmen kolektiborik, eta negoziazio maila beste behin hautsita dago", azaldu zuen elkarteko ordezkari Nekane Saenzek. Pentsiodunen Duintasuna elkarteak bat egin zuen Gipuzkoako Senideak elkartearen eskakizunekin.

Azkenik, gogora ekarri zuten egoiliarak direla gatazkak "gehien kaltetzen dituenak", eta pandemiaren ondorioz hildakoak oroitzeko minutuko isilunea egin zuten agerraldian.

EUSKARALDIA: IZEN-EMATE IREKIERA EKITALDIA

GOIENA TELEBISTA, BERGARAKO SEMINARIKOTIK ZUZENEAN
IRAILAREN 24AN, OSTEGUNEAN, 19.00ETAN
ZUZENEKO EKITALDIA GOIENA.EUS ATARIAN ERE ESKAINIKO DA

goiena
20 URTE ZUEKIN.



'Euskadi' hitza dela eta, Aintzane Oiarbideri eta beste batzuei zehaztasuntxo batzuk

XABIER ORMAETXEA 'TXERREN'

ARAMAIO

Ez nuen zure zorterik izan, nire garaian ez zegoen-eta ikastola klandestinerik.

Euskara bakarrik nekien eta nire lehenengo maisuak, Don Vitorino Prietok (Leongoa, Astorgakoa) erakutsi zidan gaztelania, nahiz eta berak ez zuen euskarazko hitz bakar bat ere ikasi.

Galdetzen zigunean, "¿cuáles son las provincias Vascongadas?", guk baino urte bat edo bi gehiago zeramanen

batek erdi isilean esaten zigun: "Vizcaya, Álava y Guipúzcoa erantzun". Eta hala botatzen genuen.

Ogibidez irakaslea naiz, eta uste dut hitzak eta esanahiak elkarrekin joan behar dutela. Bestela, nahaspilak sor daitezke.

Gure aitaren familia osoa abertzalea eta EAJkoa zen, eta *Euskadi* hitza entzunda begiak pizten zitzaizkien haiei. Noski, ondoren zetozen "gora" eta "askatuta".

Gaur egun bizi balira, lotsa sentituko zuten askoren *Euskadi* hitzaren erabilera dela eta. *Euskadi* hitza ez zuten ulertzen Don Vitorinok esandako "Vascongadas"

bezala. Eta ez zitzaien burutik pasatzen Franco hil eta handik berrogei urtera oraindik frankistek aginduko zutenik. Zeren gogoratzen dizut Oñatin oraindik eta hainbat lekutan kuartelak daudela eta haiek agintzen dutela gehien.

Oso abeslariak ziren familian, eta nik 10 bat urte nituenean, nire anaia guztiek bezala, buruz genekizkien abesti asko. Adibidez, Pello Mari Otañoren bertso eder hauek:

Zazpi ahizparen gai dan oihala / ebakirikan erditik / alde batera hiru soineko / utzirikan lau bestetik / guraiziek bereizi arren / bakoitza bere aldetik / ezagutzen da jantzi dirala / zazpiak oihal batetik.

Oihaltzat hartu zugun EUSKADI / guraizitzat Bidasoa / ibai koxkor bat, besterik ez da / hutsa balitz itsasoa! / Elkarren hurbil daude zazpiak / muga deitzen da "pausoa" / zergatik izan behar ez degu / famili bakar osoa.

Arbola baten zainetatikan / sortzen diren landareak / bezala gera bi aldetako / Euskal herriko jendeak / berdinak dira gure jatorri / ohitura eta legeak / Ama Euskarak magal berean / hasitako senideak.

Begira noiztik eta nola erabiltzen zuten gure aurrekoek *Euskadi* hitza.

"Baskongadetako" gobernadorea edo zuzendaria edo... deitu diezaiogun, baina inoiz ez "Euskadiko lehendakaria".

San Juan multzo arkitektonikoa dela eta

XABIER BENGOA

ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEAREN

IZENEAN (AZE)

ARRASATE

Oraintsu jakin dugu Arrasateko elementu arkitektoniko garrantzitsuetako baten osotasunaren kontra joko duen proiektu baten berri, eta aurkakotasuna agertu nahi dugu. Gure ustez, behean adierazitako arrazoiak direla medio, San Juan izeneko multzo arkitektonikoa bere osotasunean gorde behar da, arrasatearren eraikitako osatzen duten oinarritzko elementurik erauzi gabe ondarearen parte izaten jarri dezan.

Udal arduradunek aipatu eta hedabide batean jasotakoaren arabera, Udalak Alfontso X.a plaza berritzeko asmoa du, oinezkoentzat jarriz, eta honi benetan proiektu onuragarria deritzogu. Hala ere, eraldaketa burutzeko beharrezkoa da San Juan etxe-multzora sarrera nagusia osatzen duen arkua eraitea. Eta hau da benetan gure gaitzespena pizten duena.

Lehenengo, multzoaren eraikuntzaren balioa azpimarratu behar dugu, plazako sarrera nagusia botatzekotan halabeharrez osotasuna galduko bailuke. 1948an eraiki zen San Juan etxe-multzoa, eta garaiko langile-eraikuntza eredu da. Etxebizitzaren xumetasuna hauen erdigunean zabaltzen den patio ireki, lauki eta portikodunak arintzen du.

Beraz, interes arkitektoniko eta urbanistiko aipagarria duen multzoa da. Aitzitik, UCEM enpresarekin duen harreman historikoak ere bere balioa azpimarratzen du, hau izan baitzen Arrasateko industrializazioaren protagonista nagusia.

Hauexek izan ziren 2016ko HAPON etxe-multzoa babestu beharreko ondare adieraztea eragin zuten baloreak.

Bigarrenik, gizarte-balio handia duela adieraztea beharrezkoa da, auzoen joan-etorri eta aisi eremua baita, eta arku nagusia eraiteak balore hau sakonki ahulduko luke. Barnealdeko peristilo edo portikodun galeriaz ari gara, atal bat ezabatuz gero meteorologiaren eraginetik babeska galdu gabe buelta osoak ematea ezinezko izango litzateke eta.

Bestalde, Udalak genero ikuspegitik "gune beltzak" direnak konpontzeko duen ekimena azpimarragarria iruditzen zaigun arren, uste dugu San Juan etxe-multzoa mutilatu gabe beste era bateko neurri egokiak hartzea posible dela, hala nola arkupeko argiztapena hobetuz.

Horregatik, San Juan etxe-multzoaren osotasuna mantentzea eta plazako bizilagunen ongizatea udal-planak arrazoituriko onura urbanistiko eta mugikortasunekoak baino garrantzitsuagoak dira eta, beraz, Udalarari eskatzen diogu goian aipaturiko eraisketa ez dezala burutu.

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali
gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktetereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBERA





ZABALIK

IBAN PEREZ HERNANDEZ

Irrati-uhinen bidez

Ezohikoa izaten ari da 2020. urte hau, denok dakigun bezala. Galdetu izan baligute urte hasieran, ez genuen asmatuko etxean derrigortuta sartuta egon beharko genuenik udaberrian eta *konfinamendu-arintze* eta halako hitzen esanahi autentikoa ezagutuko genuela uda hasierarako.

Erabat aldatu zaizkigu denoi urte hasieretan egiten ditugun planak.

Baina egia da, baita ere, zorionez, aukera izan dugula gauza berriak egiteko eta probatzeko.

Inoiz baino indar handiagoa izan du barne turismoa egiteak, adibidez. Oporretan atzerrira joateko ohitura, 2020. honetan, birmoldatu egin behar izan dugu.

Urteetan pisu handia izan duten ekitaldiek ere jasan dituzte pandemiaren ondorioak.

Adibidez, kirolzalea naizen aldetik, txirrindularitzako egutegiak erabat aldatu dira aurreko urteekiko.

Zeinek esango zigun, urte hasieran, Frantziako Tourra abuztuko azken aste bukaeran hasiko zela eta Kontxako estropadak egin baino geroago amaituko zela?

Zeinek esango zidan

Tropela elkartean egiten dudak kolaborazioari esker aukera agertuko zitzaidala zuzenean etapen gorabeheren berri emateko irratia bidez?

Sortu diren aukera pentsaiezin horien artean, hori bizitzeko parada izan dut. Roglic, Bernal, Landa, Pogacar... eta abarren inguruak uhinen bitartez hedatuz disfrutatu dut, profesional onenek lagunduta.


Martxoan eta apirilean, askok ez genituen ikusten txirrindulariak Nizatik irteten. Horrez gain, bi gorpilena gainean joan dira Frantzia osoan zehar eta ezbehar larririk gabe egunerokoari aurre egin ahal izan diote txirrindulariek.

Zorionez, Parisera helduko dira, eta horrek erakutsi digu gauza batzuek, konfinamendu gaia gora edo behera, zutik jarraituko dutela.

Aprobetxa dezagun datorren udazkena ahalik eta erarik positiboenean.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Iraila

F. JAVIER ARRIETA IDIAKEZ

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Marea bizi edo ur handiak izaten dira irailean. Horrenbestez, agerian geratzen dira gehienetan ezkutuan dauden haitz-mutur, hondartzak-eremu eta erriobazterrak. Haatik, urak beretzat hartu ohi ditu lehorrekotzat ditugun edozenbat toki, kale eta pasealekuak barne. Olatu handiak ere badakizki eskaintzen irailak. Halakoetan, sakonera handiko hutsuneak sorrarazten dituzte olatuok hondartzetan. Badirudi itsasoak, gosez amorratuta-edo, jan

beharraren jan beharrez, lurra irentsi nahi duela.

Tarteka-marteka, itsas belarrez, oholdiz janzen dira hondartzak. Sarritan, kresal usainak bat egiten du pikondoenarekin. Bide-ertzetako sasietan masustek izaten dute tokia, zelaletan bezala barrigorri eta galanpernek.

Bien bitartean, erreka-haize bigunetan, agortuz joaten da lurra.

Hortik, bada, irailak hartzen dituen bestelako izenak, hala nola, agorrila eta buruila. Ira edo garoa ere lehortzen denez gero, berau ebaki eta ira-metak egiten ziren sasoi batean, gerogarrenean abereen

azpitarako erabili ahal izateko, bai eta gorotzarekin batera simaurra egiteko ere. Hortik hilabetearen izena.

Alabaina, irailaren bukaera aldera, eguna moztu ahala, jaka lepura esaten zen hainbat tokitan, auzoetako zaindarien eguna ospatu ostean. Esaera zahar batek argi dio: *iraila udaren buztana eta neguaren hastapena*.

Halako irudiak gorde ditzagun bada oroimenean, ez baitakigu aurtengo irailak zer utziko digun aukeran koronabirusaren baimenarekin.

Irudiok izan daitezela lagungarri inguruan duguna hobeto balioesteko.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),

Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,

Amalia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,

Ziortza Martín,

Amalia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05

Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatikoko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Elkarbizitzaren alde egitea da presoaren alde egitea"

ANA MARI MARKULETA SARE ELKARTEKO KIDEA

Eneko Azkarate Laspiur OÑATI

"Urriaren 3an, inoiz egin den tontor igoera bateratu handiena egingo dugu Euskal Herrian presoaren alde", dio Sare taldeko Ana Mari Markuleta oñatiarrak. Debagoiengan, 29 mendi tontor igoko dituzte.

Izan Bidea dinamika abiatu zuen Sarek maiatzean. Zein da balorazio orokorra?

Oso ona. COVID-19ak baldintzatutako urtea da. Konfinamendua amaitu eta kalera ateratzearekin batera Izan Bidea abiatu genuen eta udan zehar izugarria izan da dinamikarekin bat egin duten herri, herritar eta eragileak. Ekimen ugari izan dira: bizikleta martxak, giza kateak, manifestazioak, mendi irteerak... Egoerara egokitu. **Zenbat lagunek hartu dute parte?** Maiatzean aurkeztu genuenetik 428.000 kilometro egin ditugu izena eman dugun 3.600 lagunaren artean. Aplikazio berezi baten bidez neurtzen dugu hori. Egunetik



Oñatiko Sareko kide Ana Mari Markuleta. A.M.M.

egunera geroago eta gehiago gara sare osatzen dugunok. Urriaren 3koa izango da herririk herri egingo den nazio mailako dinamika. Ez da amaiera izango; beste mugarri bat.

"Hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia" dela esaten diozue Espainiako Gobernuari. Salbuespeneko espetze politika behin betiko alboratu behar du. Une egokia da. Pandemiak lagun dezake.

Euskal erakundeek babes osoa dugu. Ozen esan dugu garaia dela euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko. Espainiako Gobernuan dauden alderdien ordezkariak azaldu dute egoera amaitzeko nahia. Beraz, zeren zain daude ekintzetara pasatzeko? Ezin da egoera luzatu. Etxerako itzulera graduen arabera gauzatu behar da. **Presoekiko urruntze politika salatu dute oraingo astean Legebiltzarrean EAJK, EH Bilduk eta Podemosek. Ze inportantzia ematen diozue horri?**

Garrantzitsua da. Bidea hori da. Baina, benetan, gai hau agenda politikoan sartu behar da eta erabakiak hartu. Elkarbizitza eta bakearen alde egitea da presoaren eskubideen alde egitea. Gaia ezin daiteke usteltzen laga, denon kalterako izango da eta. **Espainiako Gobernuari ari da urratsak egiten presoak Euskal Herrira hurbiltzeko?**

Oso pauso txikiak. Gerturatze batzuk izan dira, baina *Ez nahikoa* izango litzateke jarriko geniokeen kalifikazioa. Aske geratu diren preso gehienak zigorra azkenera arte bete ostean atera dira. Etxetik oso urruti daude preso gehienak eta familiek ezin dute hori sufritu. Pandemiaren ondorioz,

senideak ikusi barik daroatzate, urte erdiz, presoek.

Baikorrek zarete hurrengo hilabeteetan beste urrats esanguratsuagoak egin daitezkeelako?

Eskubide eta derrigortasun kontua da. Ez dugu ikusten erabaki ausartik presoaren gaia konpontzeko. Mugimendu txikiak bai. Ez nahikoak. Jendaratearen bultzada behar dugu leihoa parez pare irekitzeko, eta horretarako, Izan Bidea dinamika egokia da. Horretan bai gara baikorrek. Herritarren bultzadan sinisten dugu.

Gizarte aktibazioa eta erakundeek uztarketa landuz, auziari behin betiko irtenbidea eman gura diogu. **Urriaren 3an Euskal Herriko mendi tontorretan aldi berean eroan nahi duzue aldarrria.**

Euskal Herrian inoiz egin den erronkarik handiena jarri diogu geure buruari eta herritar zein eragileei. Aldi berean, Euskal Herriko 650 mendi tontorretara goz, gure aldarrria eroan gura dugu. Debagoiengan, konkretuki, 29 mendi tontor igoko ditugu: Bergaran, 9; Oñatin, 6; Aretxabaletan, 5, Arrasaten, 3; eta Antzuolan, Elgetan eta Eskoriatza-Leintz Gatzagan, bina.

ITURRI ONETIK

Txemi Etxeberria, Bilboko Musika Bandarekin


Txemi Etxeberria musikari bergararrak Mari van Gils holandarrarekin batera sortutako *Cooperation* izenburuko obra estreinatuko du irailaren 25ean Bilboko Udala Musika Bandak. Etxeberriak berak zuzenduko du banda, Hesketh, Mc Allister, Penders, Guridi eta Sheldom-en beste obra batzuekin batera. Zuzendaritzari buruzko IV. Topaketen irabazle izan zen bergararra eta *Oroitzapenaren soinua* programaren baitako kontzertua zuzenduko du Azkuna Zentroan (19:00).

ALBISTE IZAN ZEN

2007-09-18

Bergarako Musika Bandaren 175. urteak, liburuan

Begarako Musika Bandaren 175. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuta zituzten 2007an. Liburua ere argitaratu zuten, Juan Luis Bikuña kazetariak idatzia. Udaletxeko osoko bilkuren aretoa bete-bete zela aurkeztu zuten, Alfredo Gonzalez Chirlaque eta Miguel Gonzalez Bastida zuzendari ohiak bertan zirela. Egunean bertan 150 ale saldu zituzten. CDa eta DVDa ere argitaratu zituzten, azaroan, ekitaldiei amaiera emateko.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Kultur ekitaldien alde '#alertagorria' traola

Sare sozialetan ere aldarrikatu dituzte, asteon, kulturaren garrantzia garai hauetan ikuskizunen eta ekitaldien arloan dihardutenek:

@gautxoriaksoul: "Industria musikaren eta kulturalaren langileen alde, (eta gehitzen dugu: bai eta gune autogestionatu zein publikoen alde), gaur gorritz".

@esanezin: "Kultura gabe ezer ez #alertagorria #ekitaldiakigitenditugu #kulturasegurua".

@jonxa_: "Zaindu dezagun kultura #AlertaGorria".

@IzaroAndres: "Sentitzea premiazkoa da, #alertagorria".



Arrasate Herri Eskolako Erguingo hainbat ikasle, oinez, ikastetxera sartzen, eguaztenean. E.A.

Eskolara, oinez eta modu jasangarrian bada, hobeto

Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin bat egin du Arrasateko Udalak eta Eskolara Oinez ekimena jarri du martxan; era horretan, motordun ibilgailuak utzi eta klasera oinez edota bizikletan joatera animatu ditu ikasleak, bereziki aste honetan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearen sartuta gaude. Irailaren 16an hasi eta 22ra arte iraungo du aste horrek, eta egitasmoarekin bat egin du Arrasateko Udalak, Eskolara Oinez izeneko ekimena martxan jarrita. Horren bitartez, ibilgailu motordunak "ahalik eta gutxien" erabiltzeko dei egin diete ikasleei

eta, oro har, herritar guztiei. "Arrasatear guztiak gonbidatzen ditut, ahal duten heinean, eta aste honetan, bereziki, oinez, bizikletan edo garraio publikoaren bitartez mugitzeko batetik bestera", azaldu du Edurne Unamunok, Ingurumen eta Mugikortasun zinegotziak. Aste honetan, gainera, doakoa izaten ari da herri-busa.

Asteon aurkeztu dute ekimena Unamunok, Nerea Lazpiur Ingurumen teknikariak eta Kandi Fernandez Udalako Ingurumen Eskolako zuzendariak. "Aurtengo urte berezia ari da izaten. COVID-19ak izugarri eragin digu alor guztietan; baita mugikortasunean ere. Konturatu ginen konfinamendu garaian zein mailatako altxorra den mugikorta-

sun aske eta jasangarria. Hori dugu helburu egoerak baldintzatuta datorren mugikortasun astearekin", azaldu zuten. Era berean, eskolara oinez joatearen garrantzia azpimarratu zuten. "Oinez mugitzea garrantzitsua da. Alde batetik, ibilgailu motordunek sortzen dituzten inpaktuak murrizteko -zarata, berotegi efektuko gasen isurketa, eta abar-. Beste alde batetik, modurik osasuntsuena delako aire zabalean mugitzeko".

Bi ibilbide eskolara joateko

Azken bost urteetan egin moduan, aurtun ere Arrasate Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako laugarren, bosgarren eta seigarren mailetako ikasleek hartuko dute parte ekimenean. Hala, aipatutako egun horietan, Ingurumen Eskolako irakasleek gidatuko dituzte eskolaraino iritsiko diren bi ibilbideak: bata Biteritik irtingo da eta bestea, Kurtzetxiki plazatik. Martitzenera arte iraun zuen izena emateko eta gurasoen baimena lortzeko epeak, eta hainbat ikasle egin dute bat ekimenarekin. "Kurtzetxiki plazatik abiatutako ibilbidea zazpi ikasle egin zuten eguaztenean, lehen egunean, eta Biteritik hamabost ikasle abiatu ziren. Hala ere, apur bat gehiago dira izena eman dutenak", adierazi du Kandi Fernandez Udalako Ingurumen Eskolako zuzendariak.

Seigarren esperientzia da aurtengo, Fernandezek esanetan. "Arrasate Herri Eskolakoekin egiten dugu, bere momentuan ikusi genuelako han zegoela beharrik handiena. Gure asmoa zen aurtun bosgarren mailakoekin egitea, baina hango ardura-dunek eskatu ziguten gonbidapena luzatzeko laugarren eta seigarren mailetakoei. Beraz,

hiru maila horietako ikasleak ari dira parte hartzen".

"Inoiz baino beharrezkoagoa"

Era berean, dio Mugikortasun Astea "inoiz baino beharrezkoagoa" dela aurtun. "Hala iruditzen zaigu guri eta hala planteatu dugu Arrasate Herri Eskolan ere. Gainera, haiek ere modu berean ikusi dute hasieratik. COVID-19aren eraginez bizi dugun egoera eta Eusko Jaurlaritzatik etorri diren protokoloak eta gomendioak kontuan hartuta, gogor heldu behar diogu erronka honi. Izan ere, garraio aktiboa bultzatu gura du Jaurlaritzak eta guk ere egokia dela uste dugu ikasturte hasiera honetan. Helburua da orain eskolara oinez joaten hasten diren horiek ikasturte osoan ohitura hori mantentzea"

Bestelako ekintzarik ez aurtun

Pandemia dela-eta bestelako ekintzarik ez egitea erabaki du Udalak, hala-nola "hain arrakastatsuak" diren bigarren eskuko bizikleta azoka eta Birzikleta bizikleten erakusketa. "Bigarren eskuko bizikleten merkaturan aukera onenak lehengo orduan izan ohi dira. Beste urte batzuetako esperientziak irakatsi digu lehen ordu erdian etortzen dela jende gehiena. Beraz, pilaketak egiten dira momentu horietan eta aurtun horregatik ez dugu egingo, pilaketak ekidin gura ditugulako", azaldu du Lazpiurrek.

MUGIKORTASUN ASTEA IRAILAREN 16AN HASI ZEN ETA 22AN, MARTITZENA, BUKATUKO DA

Preso emakumezkoen bizipenak liburu batean jaso dituzte

Oihana Etxebarrietak, idazleeta batek, aurkeztuko du idazlana, irailaren 23an, 18:30ean, Kulturaten

E.A. ARRASATE

Argi-izpiak txarrantxen artean. 14 begirada kartzela feminismo-tik birpentsatzeko liburua aurkeztuko du haren idazleeta batek datorren eguaztenean Kulturarteko areto nagusian,

Arrasateko Mugimendu Feministak gonbidatuta.

Liburuaren aurkezpena martxoaren 18an egiteko asmoa bazuten ere, COVID-19ren ondorioz atzeratu egin behar izan zuten. Sarek abian jarritako 30

urte asko da, aski da, bizitza osoko zigorrak ez dinamikaren baitan sartu gura zuten hitzordua, baina atzeratu egin behar izan zuten. Orain izango dute horretarako aukera. "Konfinamendu garaian inoiz baino gertuago sentitu dugu denok kartzela, eta kartzeletako egoera inoizko gordinena izan da. Askok ezagutu dute kartzela gure herrian, bai barrutik eta baita kanpotik edo bisen gelatik", azaldu dute mugimendu feministako kideek.

Liburuan "testigantza oso intimoak" jasotzen direla diote. "Eta guretzako interesgarria da horrelako espazio bat ireki eta horrelako muturreko egoerak ere feminismoaren begiradarekin aztertzea. Nola bizi dute emakumeek kartzela? Ze leku dute? Nola harremantzen gara emakumeak kartzelan?".

Marixol Iparragirreraren ahizpa Larraitx ere aurkezpenean izango da: "Interesgarria iruditzen zaigu bera gonbidatzea, bizipenak partekatu ahal izateko".

Hizkuntza Eskolako ingeles ikastaroak, Mankomunitatean

Koronabirusaren eraginez, segurtasun neurriak bermatzeko, Debagoieneko Mankomunitatean emango ditu ingeles eskolak Hizkuntza Eskolak 2020-2021 ikasturtean, martitzenetan, 15:15etik 20:45era eta 15:15etik 19:00etara egunenetan. Izen emateko epea irailaren 28ra arte dago zabalik, eoiabarheo.hezkuntza.net webgunean.

Dirulaguntza lerro berria, merkatariei zuzenduta

Tokiko merkatarientzako beste dirulaguntza lerro bat jarriko du martxan Arrasateko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, eta COVID-19aren pandemiaren eraginez egin behar izan dituzten inbertsioei aurre egitea da laguntza horien helburua

Eneko Azurmendi ARRASATE

Babes ekipo pertsonalak, espazioak higienizatzeko produktu eta ekipo bereziak, salgaiak higienizatzeko produktu eta ekipo bereziak, bezeroak eta establezimenduko langileak babesteko instalazio ekipo bereziak eta bestelakoak. Asko izan dira herriko merkatariek pandemia garaian egin beharreko ezohiko gastuak, eta horiei aurre egitea da, hain zuzen, dirulaguntza hauen helburua, Maria Ubarretxena alkatea azaldu duenez.

Laguntzak, halaber, euren zerbitzua emateko bezeroak aurrez aurre artatzen duten establezimenduei zuzenduta daude, alarma egoeran itxita egon direnak, edota zabalik egon direnak baina aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta, gutxienez, %40ko fakturazio beherakada jasan dutenak.

112.822 euroko laguntza

Kopuruari dagokionez, 112.822 euro bideratuko dituzte herriko merkatarientzako. Udalak 50.000 euro jarriko ditu eta Aldundiak, berriz, 62.822 euro. "Laguntza potoloa izango da eta 2020ko urtarilaren 1etik aurrera komertzio edo establezimendu bakoitzak egin duen inbertsioaren %50 finantzatuko da. Hori



Ibai-arte, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Arrasateko Udaleko ordezkariak. E.A.

bai, establezimendu bakoitzak 500 euroko laguntza jaso ahal izango du, gehienez", dio alkateak.

Tokiko komertzioen garrantzia

Imanol Lasa Sustapen Ekonomikorako diputatuak gogorazi du merkataritza txikiak eta ostalaritzak Gipuzkoako ekonomian "pisu eta garrantzi handia" dutela: "BBPGaren %16 baino gehiago dira, zerbitzuetako enpleguan 40.000 lanpostutik gora sortzen dituzte eta beste sektore batzuk dinamizatzeko gaitasun handia dute". Hala, Aldun-

diak 2.000.000 euro onartu ditu sektoreari laguntzeko.

"Beharrezkoak" dira laguntzak

Ibai-arte Arrasateko merkatarien elkarteko kideek ere begi onez ikusi dute dirulaguntza lerro berria. "Produktu ugari erosi behar izan ditugu guztion segurtasuna bermatzeko eta komertzio eta zerbitzu askok diru asko gastatu behar izan dute horretarako. Beraz, beharrezkoak dira laguntzak eta eskertzen ditugu. Diru kopuru guztia ez da izango, baina lagunduko digu".



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Tik-tak, tik-tak

Nahitaez gelditu gintuen munduak. Kasualitatea edo ez, baina guri ere iritsi zitzaigun, baina ez erlojuaren orratzei. Denbora urre-bitxia, erosi ezin den altxorra, ohartu orduko korrika alde egiten duena.

Momentua ez da denbora edo bai, aukerak mila, baina ezin gara zora. Heldu nahi dugun tokira goaz, baina ez dakigu nora. Abiadura bizian bizi garen honetan berriz kalera bueltatu gara, berriz arnasteko denboraz eta berriz seigarren martxa sartu eta zurrumbiloan aurrera.

Bihar, datorren astean, datorren ostiralean... zenbat aldiz esaten ditugun jakin gabe zer etorriko den non egongo garen. Nire bizipena izango da, agian, ez dakit. Badirudi sei hilabete pasa direla eta erritmo berdinean jarraitzen dugula, erlojuaren orratzei begira tik-tak-tik-tak-en preso.

Batzuentzat denbora gelditzen den bezala, besteentzat oharkabean joan da. Agian, geroan pentsatu gabe bilatu zer den denbora, momentua iheskorra baita.

Ikastaroa eta hitzaldia egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean

Goizean izango da soinu eta argi teknikari ikastaroa eta arratsaldean, errefuxiatu kolonbiar baten hitzaldia

E.A. ARRASATE

Bi ekintza egingo dituzte aste-buru honetan Arrasateko gaztetxean, biak ere bihar, zapatua. Lehenik, soinu eta argi ikastaroa egingo dute, 10:30ean. Segurtasun neurriak hartuko dituzte eta edukiera mugatua izango da. Beraz, aurrez eman beharko da izena, arrasatekogaztetxea@gmail.com helbidera idatzita.

Bestalde, 18:00etan, Sigifredo kolonbiar errefuxiatuak herrialde hartako indigenen egoerari buruzko hitzaldia egingo du, gaztetxeak eta Askapenak anto-

latuta. "Kolonbiako bake hitzarmenaren ostean indigenek jasaten duten zapalkuntza eta giza eskubideen babesa nola garatzen ari diren azalduko du hizlariak", nabarmendu du Iratiz Etxaburu Askapenako kideak. Halaber, Caucako Eskualdeko Kontseilu Indigenaren definizioa, Toribio herrian dauden guardia indigenen lana, gaur egun indigenek bizi duten egoera eta Kolonbiako egoera soziopolitikoak izango ditu hizpide.

Edukiera mugatua izango da hitzaldian ere.

ARRASATEKO HIZKUNTZA ESKOLA "GELA DESPLAZATUAK"

• MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK:

IRAILAREN 1ETIK 28RA ARTE (13:00ak arte)

• MATRIKULA ON LINE EIBARKO HIZKUNTZA

ESKOLAREN WEBGUNEAN: www.eoieibarheo.hezkuntza.net

Informazio presentziala bertan jasotzeko irailak 15, 17, 22 eta 24. Ordutegia: 15:15-20:45

Informazioa telefonoz jaso nahi baduzu, aipaturiko datetan deitu telefono honetara: 688 89 17 20



KOKAPEN BERRIA
Mankomunitatearen eraikinean



Arrasateko Udal Ludotekako haurrak, iazko ikasturtean. TXATXILIPURDI

Txatxilipurdi, aisialdi hezitzailearekin aurrera

Urriaren 12an hasiko da ludoteka zerbitzua eta gazte txokoak urriaren 6an zabalduko dituzte. Erdiguneko gaztegunea, ostera, urriaren 9an irekiko dute, eta guztietan hamabost nerabe taldeak osatuko dira, izen-emate dinamikoaren bidez

Uxue Igarza Loiola ARRASATE

Ludotekei dagokionez, gaur, irailak 18, guraso bilera egingo dute, bi txandatan: lehenengoa 18:00etan eta bigarrena 19:00etan. Irailaren 21erako eta 22rako, berriz, ate irekiak antolatuta dituzte, ludotekak ezagutu eta hezitzaileekin hitz egiteko, 16:30etik 19:30era. Horrez gain, hilaren 21etik 30era informazio puntuak jarriko dituzte hiru ludoteketan, 16:30etik 19:30era. Bukatzeko, izen-emateak 23tik 30era egin ahalko dira, aurrez aurre, 16:30etik 19:30era. Zerbitzua urriaren 12an hasiko da, 17:00etatik, 20:00etara.

Gazte txokoen kasuan, orain arteko dinamika egiteko helburuarekin, hilaren 21ean eta

22an kale behaketak egingo dituzte, nerabeekin "lehen kontaktua" egiteko, eta 23tik 25era informazio puntuak egongo dira gazte txokoetan, 17:00etatik 19:00etara. Izena emateko azken eguna hilaren 30a izango da, eta urriaren 6a izango da San Andres, Musakola eta Erguingo gazte txokoen irekiera eguna. Erdiguneko gaztegunea, oster, urriaren 9an irekiko dute.

Orain arteko bidetik, praktikara Udal zerbitzuez gain, Txatxilipurdi elkarteak bestelako egitasmoak ere egin nahi ditu ikasturtean zehar, eta dagoeneko lanean ari dira. Azaldu dutenez, sail bakoitza bere proiektuetan ari da buru-belarri eta adibide gisa aurreratu dute Durangoko Azokarako prest egongo den liburu bat itzultzen ari direla komunikazio ez-bortitzaren inguruan. Gainera, kulturari dagokionez, herrietan ikuskizunak eta tailerrak egiten jarraitu nahi dute, eta baita herri hezitzailearen pedagogiaren inguruko saioak antolatzen ere, besteak beste.

Funtsean, orain arteko bidea jarraitu nahi dute "ilusioz, gogoz eta sormenez" baina, betiere, egoerak eskatzen dituen neurriak betez. "Denok osasuntsu egoteko elkar zaindu beharko dugu eta elkarrekin aritu beharko dugu", gaineratu dute.

Baserritarrek, hileko hirugarren zapatuari ekiteko prest

Hileko hirugarren zapatua den legez, bihar, Arrasateko baserriko produktuen azoka izango da Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00ak arte.


Sasoiko barazki eta frutak erosteko aukera izango da, eta baita sekula falta ez diren baserriko produktuak eskuratzeko ere. Baserritarrek azaldu dute sasoi ona dela produktuentzat

eta jenero "oparoa, koloretsua eta gustukoa" izango dela azokan. Guztira, hamazazpi bat postu izango dira askotariko produktuekin: barazkiak, sendabelarrak, gazta, ezta, ogia, gozogintza, nekazaritzako tresnak, arrain-kontserbak, ahatekiak...

Bestetik, jakina den moduan, indarrean dauden segurtasun-arauak errespetatu beharko dira: maskarak jantzi eta distantziak bermatzea nahitaezkoa izango da. Dena den, hori ez da traba izango azokara gerturatzeko.

Dagoeneko ia 80 eragilek eman dute izena Euskaraldian

75etik gora dira Euskaraldian izena eman duten Arrasateko eragileak. Antolatzaileak "pozik" agertu diren arren, oraindik parte-hartzea areagotzeko aukera ikusten dute, eta eragile txikiak animatu nahi dituzte izena eman eta Ariguneak sortzera; esaterako, tabernak eta denda txikiak. Hilaren 27an amaituko da izena emateko epea.



Eragileen sinadura. XABI GOROSTIDI

arbolapeta

arrasate

beinke

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.

Irakasten daki eta ikas dezazun nahi du.

aek
euskara praktikara

Jakinarazteko: Udalaren, AEK-ko irakasleak.

EUSKARA-IKASTAROAK

Debagoieneko AEK

"Komunikazioa da gure metodoa"

EUSKARA MAILA OFIZIALAK
(A1,A2,B1,B2,C1,C2)

MINTZAPRAKTIKA TALDEAK
AUTOIKASKUNTZA

Iturriotz 21, behea, Arrasate - 943 77 03 69

arrasate@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Bekak Arrasateko Udala eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz!



Alain Vivas, Zerbimek enpresako gerentea, tailerreko gela batean. E.A.

"Bezeroekiko harreman zuzena lehenesten dugu"

ALAIN VIVAS ZERBIMEK ENPRESAKO GERENTEA

2017ko martxoan sortu zuten Zerbimek mekanizazio-tailerreko enpresa, bost langilerekin. Gaur egun, hamazazpi langile dira eta enpresak hazten jarraitzen du

2019ko urriaz geroztik, Arrasaten du tailerra Zerbimek enpresak, Markulete industrialdean. Enpresaren hazkundearen ondorio ere bada leku aldaketa.

Nola sortu zen Zerbimek?

2014an, Miguel Altuna instituturara joan ginen laguntza eskatzera, eta, Urratsbat proiektuaren bitartez, Teknikaren laguntzaz, buruan geneukan negozio ideari forma ematen hasi ginen. Teknikak tutore lanak egin zizkigun, jarraipena egiteaz gain. Ondorengo urteetan, gestio plan bat egin genuen, eta proiektua

bideratzen hasi ginen. Gero, 2017ko martxoan sortu genuen enpresa, bost langilerekin. Gaur egun, hamazazpi gara.

Hazkunde nabarmena izan du enpresak, beraz.

Hala da. Inbertsioen eta langileen gorakada izan dugu. Azken hiru urte hauetan, barneko formakuntzaren aldeko apustua egin dugu, tailerreko formakuntza, batez ere. Oso lantalde gaztea daukagu, eta gehienak Lanbide Heziketatik etorritakoak dira. Nik neuk Miguel Altuna institutuan ikasi nuen, eta oso es-



Enpresako hainbat langile. DISEIMEDIA

kertuta nago handik eman ditudan laguntzagatik. Modu berean, etengabe ikasten jarraitzeko eta lanerako gogo izugarria dute langileek, eta esango nuke enpresa honek daukan onena haiek direla; alegia, langileak, pertsonak.

Zein da zuen enpresa eredu?

Mekanizazio-tailer bat da, eta askotariko materialen mekanizazio zehatzen zerbitzua eskaintzen dugu, pieza unitario eta serie motzekoena. Halere, bezeroek dituzten beharretara egokitzen gara, eta, arlo horretan, kompetentziatik bereizten gara. Zerbitzua eta bezeroekiko harreman zuzena lehenesten ditugu, hori ezinbestekoa delako. Ahalik eta zerbitzu osoa eskaintzen dugu eta bezeroek transmititzen dizkiguten arazoei konponbidea ematen saiatzen gara. Halaber, kalitatean, prezioan eta epeetan hutsik ez egitean datza gure lana.

Pandemiak eragin duen krisiari aurre egiten ari zarete, gainera.

Bai. 2020ko martxoan, ziurgabetasun handia sortu zen, baina, ditugun bezero estrategiko batzuei esker, aurrera egin ahal izan dugu, eta, modu txikiagoan bada ere, hazten jarraitzen dugu oraindik. Hala, inbertsioei eta kontratazioei eustea lortu dugu.

Askotariko bezeroak dituzue, eta horrek ere errazten ditu gauzak.

Bai; dibertsifikatzen saiatzen gara, bezero baten edo biren menpe ez egoteko. Hori dela eta, bezero berrien bila ari gara une oro, eta hainbat enpresa forotan parte hartu izan dut horretarako; Garaia Parke Teknologikoko zenbaitetan eta Enpresaren, esaterako. Gure bezeroen %95 ingeniartzari lotutakoak dira, sektore ezberdinetakoak: automobilgintza, elikadura, medi-

kuntza eta aeronautika. Azken hau erabaki estrategiko bat izan da, eta, gaur egun jaisten ari den arren, uste dut sektore horrek hazkundea izango duela eta horrek guri lagunduko digula.

Nola dago egituratua Zerbimek?

Hasieran, Aretxabaletan geundenean, oraindik hazten zegoen enpresa eta ez genuen egiturarik eta baliabiderik. Orain, aldiz, enpresak egituraketa osoagoa dauka. Modu horretan, lau departamentu ditugu: administrazio eta kontabilitatearena, bullego teknikoarena, kalitatearena eta produkzioarena. Izan ere, merkatuak exijitzen digu egituraketa ordenatua edukitzea.

Epe ertainera ze helburu dituzue?

2021era begira, orain artekoari eusten jarraitzea da asmoa. Hau da, langileen formakuntzarekin eta makinaren inbertsioarekin jarraituko dugu. Langileen %80k jasotzen dute formakuntzaren bat urtean zehar, gestio, kalitate, produkzio edota programazio sistemen ingurukoak, hain zuzen. Halaber, bailarako Lanbide Heziketa zentroekin ahalik eta gehien kolaboratzen jarraituko dugu, elkarlanak haiei zein guri egiten digulako mesede eta guretzat hori ezinbestekoa delako. Izan ere, enpresa honetako langile gehienak Miguel Altuna institututik datoz. Bestalde, orain arte moduan, bezeroen konfiantza ere funtsezkoa izango da hazten jarraitzeko.

"LANTALDE GAZTEA GARA, ETA ETENGABE IKASTEN JARRAITZEKO GOGOZ GAUDE; HORI DA DAUKAGUN ONENA"

ZERBIMEK
INTEGRAL MECHANICAL SERVICES

zerbimek@zerbimek.com
943 08 03 66
www.zerbimek.com





Mondragon Unibertsitateko hainbat jokalarik, Iturripen. E.A.

Hasierako zalantzak uxatzeko aurkari zaila

Irailean entrenamenduekin hasi ostean, denboraldi-aurreko lehen partidua jokatuko du bihar, zapatua, Mondragon Unibertsitateak, Euskal Koparen baitan. Baskonia izango dute aurkari arrasatearrek, Gasteizen, 18:00etan: "Talde gogorra eta zaila"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Lehen kontrarioa ez zaio "baterre" gustatzen Iñaki Ogaran *Arri* Mondragon Unibertsitateko entrenatzaileari. "Baskonia da, fitxaketa asko egin ditu eta beti dauzka jokalaririk onak, fisikoki oso indartsuak direnak, gainera. Lehenengo aurkaria izateko eta gu gauden moduan egoteko, ez da egokiena, baina gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara", nabarmendu du.

Oraindik ez dute partidurik jokatuko, eta *Arri*-k ez daki zein izango den taldearen maila bihar-ko partiduan. "Bi partidu genituen aurreikusita, baina, egoera oso ezegonkorra denez, azkenean, ezin izan ditugu jokatuko. Beraz, asteburu honetako izango da lehenengo partidua eta oraindik ez dakigu zein izango den taldearen benetako maila, entrenamenduetako erreferentzia bakarrik daukagulako. Ez dira denboraldi-aurreari ekiteko baldintzarik onenak, baina guztiok gaude egoera berean. Beraz, ez dago aitzakiarik".

Euskal Kopako bigarren jardunaldian atsedean hartuko dute arrasatearrek eta ondoren, Ea-

soren aurka jokatuko dute Iturripen, urriaren 4an, 18:00etan. "Beste talde gogor bat da. Fisikoki indartsuak izateaz gain, talentua daukate eta defentsan ere sendoak dira. Gainera, aurreko denboraldiko bloke bera mantentzen dute, eta hori ere garrantzitsua da. Guk, hala ere, etxean jokatuko dugu eta hori, askotan, erabakigarria izaten da. Ikusiko dugu".

Sailkatuz gero, lauko finala jokatuko lukete arrasatearrek eta gero, ondo bidean, urriaren 17an hasiko dute denboraldia.

Taldeari dagokionez, harrobitik pare bat jokalaririk igoko dira eta fitxaketa bat ere egin dute. "Beraz, gogor entrenatzen jarraitu behar dugu, erritmo berean, jokalaririk maila ona erakusten ari direlako".

Denboraldi-aurre arraroa

Entrenatzaileek aitortu duenez, denboraldi-aurre arraroa izatean ari da. "Protokoloak jarraitu behar ditugu eta zaindu egin behar ditugu suertatu daitezkeen kasu positiboak ere. Beraz, ezohiko egoera honetan, normaltasunez ari gara", dio *Arri*-k.

Etxe handiagoa behar duzue?

4 logelako etxebizitzak GELMA-n (Arrasate)



943 253 821
 info@inmobibai.com
 Deba kalea 3 Arrasate

www.inmobibai.com

HYUNDAI OARSO CAR ARRASATE

Zure Hyundai berria prezio onenean **Arrasaten**
Zure eskaintza hobetzen dugu etxetik atera gabe



TUCSON ERAMAN
16.990€-GATIK



KONA ERAMAN
13.990€-GATIK



i30 ERAMAN
12.990€-GATIK



i20 ERAMAN
8.990€-GATIK

- Unitate mugatuak prezio berezietan
- Momentuan entregatzeko

- 5 urteko garantia
- 10.000 € aurreztu zure auto berrian



HYUNDAI
Oarso Car

San Andres kalea 6 • Arrasate • 943 79 70 06 • Mugarri Eraikina
oarsocar.com



Umorea eta musika, kabaret estiloan batuta

'Simplicissimus' obra antzeztuko du Tartean Teatroak domeka honetan Amaia antzokian, XX. mendean jazarriak izan ziren komikoei omenaldia eginez. Musikaren laguntzaz, antzezlanak umorearen mugez hausnartzeko gonbita egiten dio ikusleari

Hasier Larrea ARRASATE

Umorea egiteko modu desberdinek azaleratzen dituen kabaret musikatuaz gozatzeko aukera egongo da domeka honetan, hilak 20, Amaia antzokian, 19:30ean hasita. XX. mendeko Alemanian kontzentrazio esparruetara bidaliak izan ziren kabaret antzeleen bizipenak oinarri hartzen dituen obra da *Simplicissimus*, nahiz eta asmoa ez den orduko erretratu bat irudikatzea, espazioaren eta denboraren mugak gainditzen dituen ikuskizuna eskaintzea baizik.

Fritz Grunbaum, Kurt Geron eta Werner Fink komedianteei keinu egiten die antzerkiak. Zelatuak eta jazarriak izango zirela jakitun, hortzak erakutsi zizkioten nazismoari, lubaki gisa ironiaz betetako umore politikoa baliatuz.

Hain zuzen, Patxo Telleria sortzaileari otu zitzaion antzezan hau egiteko ideia, liburu bat irakurtzen ari zela: "Garai har-



Patxo Telleria, *Simplicissimus* kabareta antzeztzen. TARTEAN TEATROA

tan, kabaret antzele ugari giltzapetu zituzten kontzentrazio esparruetan, ezkertiarak eta juduak zirelakoan. Umoregile haiek euren lana egiten jarraitu zuten bertan, modu txundigarrian: alde batetik, eurekin

batera sufritzen ari zirenei eskainitako umorea egiten zuten, eta, bestetik, euren borroak dibertitzeko umorea".

Hala, dikotomia horretatik tiraka, umorearen mugak aztertzen dituen antzezlana ondu du

Patxo Telleriak, Jokin Oregi zuzendariarekin batera. Aktoreak Telleria bera, Olatz Ganboa eta Getari Etxegarai dira, eta Adrian Garcia de los Ojos musikari-aktoreak ere parte hartzen du. Jantziak eta eszenografia Ikerne Gimenezen esku egongo dira. "Zuzeneko musika, umorea eta drama maitasun handiz landu ditugu obra honetan; ikuslea antzerki duin baten aurrean dagoela konturatuko da, obrako elementu bakoitza mimo handiz zainduta baitago", adierazi du Patxo Telleria dramaturgoak.

Tituluaren esanahia

Hans Jakob Christoffel von Grimmelshausen-ek 1668an idatzi zuen nobela pikareskoa da *Simplicius Simplicissimus*, Alemanian 1618tik 1648ra izan zen hogeita hamar urteko gerraren izugarrikeriak umore klabean kontatzen dituen. Bestalde, bi gerra handien arteko kabaret baten izena ere izan zen.

Dagoeneko martxa hartuta

Lau hilabeteko lehortearen ostean, abuztuan itzuli ziren antzeleak taula gaineko ikuskitzuntara. "Hasieran, normalean baino entsegu gehiago egin behar izan genituen, baina dagoeneko martxa ederra hartuta gaude", azaldu du Telleriak.

Gasteizko eta Araiako jaialdi banatan eta Mutrikin aurkeztu dute obra, normalitate berri honen baitan. Estreinaldia Bil-

boko Arriaga antzokian egin zuten joan den urteko azaroan, eta Oñatin ere eskaini zuten emanaldia pandemiaren aurretik. "Arrasaten martxoaren 15ean eman behar genuen; bigarren aukera hau ondo aprobetxatuko dugu, beraz", borobildu du.

Gehienez, 160 ikusle

Egungo testuingurura egokituz, edukiera mugatua izango du Amaia antzokiak, 160 pertsona-koa, hain zuzen. Musukoa derri gorrez erabili eta segurtasun distantziak errespetatu beharko dira. Sarrerak *Arrasate.eus* webgunean eta, soberan egonez gero, leihatilan eskuratu ahal izango dira, domeka arratsaldean zehar.

'#56' ikuskizuna, irailaren 26an

Hurrengo zapatuan dantzari irekiko dizkio ateak Amaia antzokiak, Dantzaz konpainiak eszenaratuko duen *#56* ikuskizunarekin. Hiru piezaz osatutako obra horrek Nazioarteko Koreografia Zentroan dauka jatorria eta Adriana Pousek zuzentzen du.

Mugak muga, kulturaren aldeko apustuak aurrera segitzen du, beraz.

ESPAZIOAREN, DENBORAREN ETA UMOREAREN MUGAK HAUSTEN DITU KABARET HORREK

Proposamenez betetako udazkena Udal Bibliotekan

Irailaren 21etik 26ra bitartean eman ahalko da izena jardueretan, Kulturaren edo 'Arrasate.eus'-en

Hasier Larrea ARRASATE

Udal Bibliotekak adin guztientzako egitasmoak eskainiko ditu kurtso berri honetan. Euskarazko literatur solasaldiak urriaren 29an hasiko dira, gaztelazkoak urriaren 21ean eta ingelesezkoak urriaren 27an. Solasaldi guztiak astegunetan garatuko dira, 18:30etik 20:30etara.

Euskarazko solasaldiei Bernardo Atxagaren *Etxeak eta hilobiak* eleberriak emango die hasiera. Karmele Jaioren *Aitarren Etxea* eta Ali Salem Iselmuren *Beduino bat Karibe aldean*

nobelak aztertuko dituzte hurrena. Alex Gurrutzagak gidatuko ditu saioak.

Gaztelazko solasaldiak, berriz, hiru ziklotan banatuta egongo dira: *Literatura eta bidaiak* udazkenean, *Hegoamerikar Literatura* neguan eta *Europar Literatura* udaberrian. Ingelesezkoetan, aldiz, *Wide Sargasso sea* eleberria eta telesail bilakaturako *Olive Kitteridge* nobela izango dira hizpide, bata udazkenean eta bestea neguan.

30 pertsonako edukiera izango dute tailer horiek. Izen emateek

kopurua gainditzen badute, zozketa bidez hautatuko dira solasaldietako parte hartzaileak. Saioren batean edukiera betetzen ez bada, izen emateek zabalik jarraituko dute.

Bestetik, Biblioteka Egunak ere ez du hutsik egingo aurten. Askotariko profil eta gustuak kontuan hartzen dituen egitasmoa urriaren 24an izango da.

Nobedadeak ez dira faltako

Irakurtzeko ohitura falta duten edo alfabetatuta ez dauden helduentzako, beste tailer bat antolatu du Bibliotekak: irakurketara errazeko kluba. Urriaren 14an hasita, bi eguaztenetan behin batuko da gehienez 12 pertsonaz osatutako taldea. Proba pilotua gaztelaz izango den arren, aurrera begira euskaraz egiteko aukera ez dute baztertzen.

Hauspo Eguna antolatu du Ibai-artek urriaren 3rako

Amak, Sorginak eta Tanxugueiras taldeek kontzertua eskainiko dute Herriko Plazan, egun osoan zehar

Hasier Larrea ARRASATE

Bolada txarretan bezeroek eskainitako berotasuna eskertzeko asmoz, kulturaren aldeko beste egitasmo bat ekarriko du Ibai-artek urriko lehenengo zapatarako, Arrasateko Trikitixa Eskolarekin elkarlanean.

13:30ean emango zaio hasiera egunari, Sorginak taldearen eskutik. Kepa Junkeraren ikasle izandakoen artean hainbat arrasatear daude. Sorginak berriz ere oholtza gainean ikustea "ohorea" dela azpimarratu du Jon Apraizek, Ibai-arteko pre-

sidenteak. Tanxugueiras taldeak Galiziako folk doinuak eskainiko ditu ondoren, 19:00etan. Eta bi ordu geroago igoko dira ohol-tza gainera Amak taldeko musikari aski ezagunak.

Bezeroek Ibai-arteko dendekin duten esperientzia hobetzeko asmoz, doan eskuratu ahal izango dira sarrerak, elkarrearen webgunean bertan. Arrasate Blues-en bezala, 140 pertsonari egingo zaie tokia; oraingoan, ordea, posible izango da bi sarrera bata bestearen ondoan erreserbatzea.

Entitateak Euskaraldira batzeko dei egin dute

Urte amaieran izango den Euskaraldirako pausoak ematen hasi dira Aramaion ere; aurtengo edizioan ariguneak dira berritasun, entitateen barruan euskaraz lasai aritzeko guneak. Hori horrela, entitateak animatu nahi dituzte Euskaraldira batzeko

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo da Euskaraldiraren bigarren edizioa. Oraingo honetan, ariguneak izango dira berritasun. Euskaraldiraren helburua euskara ohiturak aldatzea da; eta arigune horien eginbearra izango da euskaraz lasai aritzeko guneak izatea.

Aramaioko Euskaraldiraren batzordea badabil entitateen konpromisoa lotu guran. "Aurreko edizioan egon ziren *ahobizi* eta *belarriprest* rolak indartuko ditugu, baina aurtengo ediziorako ahalegin berezia egin nahi da entitateek euren baitan ariguneak deitzen diren talde horiek aktibatuzko", dio Euskara eta Hezkuntza zinegotzi Oihana Ameskuak.

Entitate barruan adostu

Euskaraldia ariketa soziala da, euskararen erabilera helburu duena. Entitateen kasuan, konpromisoa hartu behar dute ariguneak sortzeko: entitateko kideek adostu behar dute parte hartuko dutela eta izena eman. Ariguneko kide guztiek ulertu behar dute euskaraz eta *ahobizi* edo *belarriprest* moduan eman behar dute izena. Barne ariguneak edo kanpo ariguneak izan daitezke.



Eguaztenean egin zen Euskaraldiko bilera irekia. A.E.

Entitateek irailaren 27ra arte izango dute Euskaraldian izena emateko aukera, baina testuingurua ikusita malgutasuna egongo dela diote.

Herritarrek *ahobizi* edo *belarriprest* bezala parte hartzeko aukera izango dute Euskaraldian, eta horretarako identifikazio txapa eramango dute. Herritarren kasuan, izena emateko epea irailaren 24an zabalduko da. Gaineratu dute 2018ko Euskaraldian parte hartu zutenak mezu elektronikoko bat jasoko duela eta nahikoa izango

duela mezu hori erantzunez Euskaraldian parte hartu nahi duela berrestea.

Rolek duten funtzioa

Mezua erantzunez rolaekin jarraitu gura den adierazi daiteke, eta baita rolez aldatu ere.

AHALEGIN BEREZIA EGIN NAHI DUTE ENTITATEETAN ARIGUNEAK SORTZEKO

osasun krisiaren ondorioz prebentzio neurriak bete beharko direla eta edukiera mugatua izango duela ikastaroak.

Indarra hartzeko eta erresistentzia lantzeko balio duen ariketa da GAH: bereziki, gluteoak, abdominalak eta hankak lantzen dira. Hiru aukera eskaini dituzte: astelehenetan 17:15etik 18:15era; astelehenetan 18:15etik 19:15era; eta eguaztenetan 18:15etik 19:15era. Asteazken ordu bakarra eginez gero, prezioa izango litzateke 60 euro ikastur-

Gorbeialdeko euskararen mapa

Gorbeialdeko Kuadrillako euskararen ulermenaren datuek erakusten dute "uste baino gehiagorekin" hitz egin daitekeela euskaraz Gorbeialdean. Hain zuzen, 2018ko Euskaraldiak euskararen ulermenari ematen zion garrantzia. Kuadrillak argitaratutako euskararen ulermenaren datuei begira jarrita, "datu interesgarriak" ikus daitezke: biztanleria osoaren %58,6k du euskara ulertzeko gaitasuna. Horrez gain, egun, 35 urtez beherako ia herritar guztiek ulertzen dute euskaraz.

Aramaioko datuei begira jarrita, aldiz, datu horiek askoz ere hobeak dira. Aramaioko biztanleriaren %89,8k ulertzen du euskara. Haur eta gazteen artean, %96,2k dauka euskara ulertzeko gaitasuna.

Ingurune hurbila ezagutzea

Euskaraz aritu nahi duenak ezinbestekoa du jakitea bere ingurune hurbileko hiztunek euskara ulertzeko duten gaitasuna. Egoera ez da bera Gorbeialde guztian: Aramaion ulermenaren datua %89,8koa da, baina Zuiako datua %58,9koa da, esaterako. Hala ere, Kuadrillako herri guztietan biztanleriaren %50ek baino gehiagok ulertzen du euskara, eta datu hori are eta handiagoa da haur eta gazteen artean.

"Oso belaunaldi gutxitan aldaketa handia gertatu da", azaldu du Gorbeialdeko Kuadrillako Euskara teknikari Manex Agirrek. Izan ere, oso urte gutxitan egindako aldaketa ikus daiteke Euskaraldia moduko ariketa batean. Kontuan hartu nahi dena da konturatzea inguruko jendeak euskara ulertzen duela eta "uste baino gehiagorekin hitz egin dezakegula euskaraz". Aurreiritziak aldatzea da gakoa: "Urkabustaizen biztanleriaren %58k ulertzen badu euskaraz, aukera handia duzu aurrean duzunak euskara ulertzeko".

Izan ere, Euskaraldiko batzordeko kideek nabarmendu dute: "Rola aukeratzeko orduan gakoa jokoan dago, ez gaitasunean".

Euskararen gabeziak

Bizi dugun egoera honetan hainbat gai epeldu egin direla dio Ameskuak: "Erronka izango da udazken parte honetan gai horietara lotzea. Bizitzak aurrera jarraitzen du eta, gainera, pandemiak mahaigaineratu ditu beste gabezia batzuk; tartean, euskara eta euskararen erabilera. Hamaika motibo ditugu

oraindik ere Euskaraldia bezalako ekimenei lotzeko".

Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan euskaraz egitea da ekimenaren leloa: "Horretarako, aurreiritzi batzuk kendu behar ditugu, Euskal Herrian uste baino gehiagorekin hitz egin dezakegu euskaraz", eta gaineratu du: "Aramaiok arnasmunean izaten jarraitu nahi badu, lan egin behar dugu berezkoa ematen duen hori errealitate bihurtzeko eguneroko bizitzan. Euskaraldiak zentzua du herri guztietan; baita Aramaion ere".

Segurtasun eta higiene neurriak mantenduz kirola egiteko aukera

Udalak eskainiko dituen kirol ikastaroetan izena eman daiteke irailaren 25era arte; urrian hasiko dira eskolak

A.E. ARAMAIO

Ikasturte berrira begira, GAH, pilates eta sasoiaren egoteko gimnasia ikastaroak antolatu ditu Udalak. Interesatuak udaletxean eman beharko dute izena, irailaren 25era arte.

Sasoiaren egoteko gimnasia hirugarren adinekoei zuzendutako jarduerak izango da. Martitzenetan eta eguaztenetan eskainiko dute, 10:45etik 11:45era bitartean. Ikastaroa doan izango da. Arduradunek nabarmendu dute



Pilates jarduerak.

teko; eta astean bi ordu eginez gero, prezioa izango litzateke 120 euro ikasturteko. Udaletxean eman behar da izena, eta baita ordaindu ere.

Bi aukera daude pilatesa egiteko: martitzenetan eta eguaztenetan 09:30etik 10:30era; edo martitzenetan eta eguaztenetan 19:30etik 20:30era. Ikasturte osoko prezioa 120 euro izango da. Izena eman behar da udaletxean, han bertan ordainduz.

Hala, ikastaroak urrian hasiko dituzte.



Euskaraldiko batzordeko hainbat kide, uztailen egindako bilera batean. EÑAUT ZUBIZARRETA

Ariguneak sortzeko konpromisoa hartzen

Euskaraldiaren etorrera berotzen dihardute herri guztietan, baita Aretxabaletan ere; dagoeneko hogeitaz entitate eta elkarte baino gehiagotan sortuko dituzte euskaraz jarduteko guneak, eta azken egunotan emango diote bultzada izen-emate kanpainari

Mirari Altube ARETXABALETA

Hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen Euskaraldia badator, bigarren; azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean izango da. Oraingoan, ariguneak dira berritasun: entitateetan, elkartean zein enpresetan euskaraz jarduteko sortutako taldeak, hain zuzen ere. Horre-

tarako, aurretik eman behar da izena, eta irailaren 27an bukatuko da epea.

Herriko Euskaraldiaren batzordeak azken egunotan eman gura dio bultzada izen-emate prozesuari: "Dagoeneko gonbidapen asko banatu ditugu eta orain izenak jasotzea da asmoa. Ia 40 inguru animatzen diren

ariguneak sortzera", adierazi du Eñaut Zubizarretak, batzordeko dinamizatzaileak.

Enpresa handiak zein txikiak

Enpresa handiek –Copreci eta Mondragon Assembly, esaterako–, saltoki txikiak –Kilima eta Kalebarren dendak, adibidez–, ostalaritza zerbitzuek –Arlutz

eta Haizea– zein elkarteek –Loramendi– hartu dute konpromisoa ariguneak sortzeko. Kasu batzuetan, barne-ariguneak izango dira; hau da, enpresa edo elkarte barruan euskaraz jarduteko guneak. Eta, beste batzuetan, kanpo-ariguneak, herritarrekin jarduteko espazioak; hala, une oro euskaraz artatuak izateko bermea izango dute aretxabaletarrek.

Arigune horietako kideek zein gainerako herritarrek rola aukeratu beharko dituzte, orain dela bi urte egindako legez; be-

larriprest-ak eta ahobizi-ak izango dira protagonista oraingoan ere azaro eta abendu bitarteko hamabost egunetan zehar. 16 urtetik gorakoak gonbidatuko dituzte horretara, eta izena emateko epea aurrerago zabalduko dute.

HERRIKO ENPRESA HANDIEK ZEIN SALTOKI TXIKIEK EGIN DUTE BAT EUSKARALDIAREKIN

Aurten San Migel jairik ez ospatzea erabaki du Udalak

Herritarrei eskatu diete erantzukizunez jokatzeko eta festa bultza dezaketan ospakizun alternatiboak saihesteko

M.A. ARETXABALETA

Irailaren 25etik 27ra bitartean ospatzekoak ziren San Migel jaiak bertan behera geratu dira. Hala erabaki du Udalak, "koronabirus kasuen gorakadaren ondorioz"; egoera horrek "jaiak egitea eragozten" duela nabarmendu du Unai Elkoro alkateak: "Sanmigelak ospatzeko baldintza egokirik ez dago, herritarren parte-hartzea baita horien funtsa. Jaiak itzuliko dira, baina orain arduratsuak izan behar dugu, pilaketei uko eginez eta osasuna beste ezerekin ginetik

lehenetsiz pandemiari aurre egiteko".

Erantzukizunerako deia

Alkateak erantzukizunez jardutera dei egin du, eta "orain arte bezala" COVID-19ak eskatzen duen legez jokatzeko dutela aretxabaletarrek uste du: "Andramaixekin gertatu zen bezala, sanmigelak bertan behera geratu dira. Ez da jairik izango. Beraz, festa bultza dezaketan ospakizun alternatiboak saihestez eskatzen dugu, berragerpen berrien foku eta inguruko uda-



Jose Lonbide aretxabaletarra barazkiak saltzen iazko azokan. IMANOL SORIANO

lerrietako bizilagunentzako dei efektu bihur daitezkeelako".

Kultur programa urrian


Bestalde, ekainean eta uztailen berreskuratuak kultur programazioak urritik aurrera ja-

rraipena izango duela iragarri du Udalak. Programa lantzen dihardute orain eta datozen asteetan emango dute horren berri. Ekitaldi guztiak segurtasun neurrietara egokituta egongo direla ziurtatu dute.

"Euskaraz erantzutea eskertzen dute"

YASSIN KALEBARREN DENDA

Rifekoa da, Maroko iparraldekoa, eta zazpi urte daramatza Euskal Herrian. Orain dela urtebete hartu zuen Kalebarren dendako ardura anaiarekin batera. **Zelako harrera izan duzue?** Bikaina, oso gustura sentiarazi naute. Salmentak poliki doaz, baina gero eta hobeto. **Euskaraldian parte hartzea erabaki duzue; zergatik?** Norberaren hizkuntzari etsi egin behar zaio, eta horretan



MIRARI ALTUBE

lagun bagenezake, aurrera. Rifin ere antzekoa da egoera; geure hizkuntza eta bandera ditugu eta independentzia gogoia ere badago. **Euskaraz ere bazabiltza ikasten...** Euskaltegian ibili nintzen, baina ez nuen askorik ikasi. Dendan nagoenetik, osterara, izugarri aurreratu dut, jendeak erakusten dit eta. Gainera, herritarrek asko eskertzen dute euskaraz erantzutea.

Erretiratuak lanari ekiteko "gogoz" daude

Basotxoko taberna zabalik dago martitzenaz geroztik eta erabiltzaileak hasi dira itzultzen. Aretxabaleta Lagunkoia taldeak lanean jarraituko du, eta, dantza eta kantu taldeak entseguekin hasteko gogotsu egon arren, itxoin egingo dute urrira arte

Mirari Altube ARETXABALETA

Ikasturteari buru-belarri heltzeko gogotsu daude Basotxo erretiratuaren elkarteko kideak, baina, oraingoz, pauso txikiak emango dituzte. Kantu eta dantza taldeak, esaterako, ez dira elkartu; dena den, geldi egoteko ere ez daude, eta urrian entseguekin hasteko gogoagertu dute. Euskaltegiko eskolekin, ostera, ez dute jarraituko ikasturte honetan.

Taberna egun osoan zabalik

Aste honetan, martitzenean, hain zuzen ere, zabaldu dute Basotxoko taberna. Abuztuaren 1etik zegoen itxita, eta erabiltzaileek eskertu egin dute: "Juani Fabian arduraduna ausartu egin da zabalteza, Udalak begi onez ikusi du eta zuzendaritza batzordeko kide gure babesa adierazi diogu", jakinarazi du Pedro Etxebarriak. Opor ostea luzatzea erabaki zuen Fabianek, erabiltzaile kopurua asko murriztu zela ikusita. "Ekainaren 1ean zabaldu genuen konfinamendu ostean eta beheraka-

da handia izan genuen; %100 beteta izatetik %20-10 ingurura jaitsi ginen. Beldur handia antzeman genuen, eta ulertzekoa da, arrisku taldeko erabiltzaileak dira eta", dio Fabianek. Ezarritako protokoloa zorrotz betetzen dute tabernan eta lasai gerturazera gonbidatu ditu erretiratuak: "Mahaien arteko espazioa zaintzen dugu, garbitasuna... Ea jendea animatzen den". Ateak egun osoan ditu irekita: astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 21:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 10:00etatik 21:00etara.

Bidaiarik eta saiorik oraindik ez

Elkarteko presidente Aitor Alberdik ere onartu du beldurra dagoela erretiratuaren artean:

**BASOTXOKO
TABERNAK ZABALDU
DITU ATEAK ETA EGUN
OSOKO ZERBITZUA
EMATEN DU**

"Bidaiak antola ditzakegu, eta, gainera, oso merke daude orain, baina jendea ez dago horren zain". Ikastaro eta hitzaldiei dagokienez ez da halakorik egingo, oraingoz, eta San Migelen bueltan antolatu izan duten kultura asterik ere ez da egongo.

Aretxabaleta Lagunkoia

Uztailean berriro zen Basotxoko zuzendaritza batzordea, baina ez dago geldi; datorren astelehenean, hilaren 21ean, esaterako, batzarra du. "Aurrera begirako kontuak zelan antolatu zehaztu gura ditugu; bereziki, Aretxabaleta Lagunkoia taldea", dio Etxebarriak, eta gaineratu du: "Diagnostikoaren berrikusketa bukatu dugu eta udaletxean aurkeztuta daukagu horren gaineko hausnarketarekin jarraitzeko". Hala, egunean, hilaren 24an elkartuko dira berriro udal ordezkariak: "Martxoan egiteke utzi genuenari heltzea da asmoa, eta etorkizunean zelan egin jarraitzea".

Moriako errefuxiatuei babesa agertzea onartu du Udalak

Elkartasuna adierazi eta haiei laguntzeko bideak irekitzeko gertu agertu da adierazpen instituzional bidez

M.A. ARETXABALETA

Moriako (Grezia) errefuxiatuendako eremuan -12.000 lagun izatera iritsi dena- sute handia izan da azken astean. Horren berri zabalteko, elkartasuna adierazteko eta laguntza bideak zehazteko asmoarekin adierazpen instituzionala adostea proposatu dio Aretxabaletako EH Bilduk Udal Gobernuari eta honek onartu egin du.

Hainbat eskaera

Morian zeudenak orain sakanatuta, eta asko galduta, dabilzala diote adierazpenean: "Elkarte eta erakundeak egotzeraren mapeoa egiten ari dira, errefuxiatuak non pilatu diren aztertzeko eta janaria nola banatu eta haiengana nola heldu baloratzeko". Lan hori egiten dabilzanan artean dago, hain zuzen, Zaporeak euskal elkartea.

Hori horrela, Aretxabaletako Udalak onartu du errefuxiatuak hartzeko prestutasuna erakustea, eta haiekin lanean diharduten erakundeekin lan egiteko konpromisoa hartzea. Era berean, iheslariak integartzeko harrera planari eusteko konpromisoa berretsi du, Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera.

Immigrazio eta asilo arloan politika bateratuak egiteko eskaera ere egingo die Espainiako Gobernuari eta Europako erakundeek, "pertsonei lehentasuna eman eta giza eskubideen zaintza bermatuz". Eta Moriako gertaeraren aurrean jarrera aktiboa eta solidarioa hartzea ere eskatu gura die Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, "tragediaren ondorioak arintzeko eskura dituzten bitartekoak bideratuz".

Bihar gertatuko dituzte taloak, eta eskaera egin daiteke

San Migel jaiak gogoan, Lora-mendi elkarteko kideek talo eskaintza egin diete herritarrei. Hainbat sorta eskaini dizkiete eta dagoeneko 50 bat lagun eskaerak jaso dituztela adierazi dute. Dena den, oraindik ez dago itxita eta bihar goiza arte hartuko dituzte eskaerak; hori bai, talo kopurua mugatua izango dela jakinarazi dute.

Bihar, zapatua, 20-25 lagun inguru elkartuko dira talo horiek gertatzeko. Herriko Plazako arkupeetan prestatuko dute oreka, eta gero taloak jo. Ondoren, hutsean ontziratuko dituzte, eta banaketa egiteko gertu utzi. Irailaren 23an eta 24an banatuko dituztela esan dute, eta eskura izango da, "segurtasun neurriak beteta". Hala, bakoitzak norberaren gustura gertatu ahal izango du gero etxean zartaginean erreta edo labean, txistorrarekin edo hirugiharrekin.

Bat-batekotasuna lantzeko dantza ikastaroa, hastear

Bat-batekotasuna, konposizioa eta teknika garaikidea ikastaroarekin hasiko du ikasturtea Jaiki elkarrekin. Zuriñe Benavente Claverasek gidatuko du, egunetan (18:30-20:30), urriaren 5ean hasi eta Gabonak bitartean -13 saio-. Izena emateko epea zabalik dago -edukiera mugatua izango da-: 688 81 96 65 edo jai-kielkarta@gmail.com.



Jou Diaz
Harakina

Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



Basotxo egoitzako terraza, beteta, martitzen arratsaldean. MIRARI ALTUBE

Talde identitatea lortu nahian, martxan da UDA

Hiru jokalarik taldea utzita, bi fitxaketa berrirekin eta Erregional eta Preferente mailetatik zenbait jokalaria lehenengo taldera pasata, denboraldi-aurreko lagunartekoekin hasi dira UDAko jokalaria. Talde gaztea bada ere, asmo handiko helburuak dituzte



UDAko lehen taldeko jokalariek talde argazkia atera zuten eguazteneko lagunartekoaren aurretik. MIRARI ALTUBE

Imanol Beloki ARETXABALETA

Gipuzkoa mailako futbol txapelketak urriko hirugarren aste-buruan hasia aurreikusten ute. Hori horrela, oporraldiaren atsedendialdiaren ostean, abuztu amaieran hasi ziren lanean UDAko jokalaria, eta, denboraldi-aurrea prestatzeko, lagunartekoekin dihardute.

"Joan den zapatuan izan genuen denboraldi-aurreko lehenengo partidua, Zumaian, eta 1-3 irabazi genuen. Jendeari minutuak emateko, erritmoa hartzen joateko eta, denbora luzean geldi egon ostean, berriz martxan jartzeko", adierazi du Mikel Larburu entrenatzaileak. Gainera, lagunartekoak maila handiko taldeen aurka jokatzearen aldeko apustua egin dutela adierazi du Larburuk: "Zumaiaz eta Eibarrez gain, Hirugarren Mailako Lagun Onak, Eibar Ohorezko Mailako Erregionala, Ermua, Reala -gazteak edo Real C zehazteko-, Aurrera Vitoria eta Olabide taldeen aurkako

partiduak izango ditugu. Liga ez da luzea izango eta lehiarako erritmoa hartzeko partidu dezentente jarri ditugu prest egoteko".

Eguazten honetan, berriz, etxean jokatu dute partidua, Eibarko Ohorezko gazteen aurka. Ateak itxita jokatu zuten.

Etzekoen aldeko apustua

Etzekoen apustu irmoa eginda hasi gura dute denboraldia UDAko futboleko lehenengo taldekoek, eta, Urko, Gillen eta Zigor jokalariek taldea utzita, haien hutsunea betetzeko bi fitxaketa egin dituzte: Asier Baztan gasteiztarra ezker hegaleko defentsa eta Aitor Iñiguez, Elorriagako (Araba) erdiko aurrelaria. Baztan iaz jokatzen ez egon arren,

ASIER BAZTAN ETA AITOR IÑIGUEZ DIRA AURTENGO DENBORALDIRAKO FITXAKETA BERRIAK

Bermeon Hirugarren Mailan eta Mirandesen aritutako jokalaria da. Iñiguez, berriz, Aragoian izan da lan kontuengatik, baina beka batekin AEBetan futboleko aritutakoa da.

Gazte mailatik eta Preferentetik ere hainbat jokalaria igo dituzte lehenengo taldera. Gazte mailatik: Josu Aizpurua, Unai Cebriño, Mikel Ezeiza, Ariz eta Ibai; eta Preferentetik: Unai Beloki eta Txino.

Liga, bi multzotan banatuta

Helburua gazteen aldeko apustua egitea dela adierazi du Larburuk. "Taldeak identitate hori berreskuratzen jarraitu gura dugu. Iaz, seigarren postua lortu genuen sailkapenean, eta ilusioa eragin zuen. Aurten, berriz, liga bi multzotan banatu da, eta bederatzita talde egongo gara ligan, gehienak Debagoienekoak. Hiru sailkatzen dira igoera faserako, eta hiru postu horietan geratzea da asmoa. Anbizio handiko helburua".

Euskal oihua munduko txoko guztietan zabaldu guran

'Erraiak' dokumentala Italiako 'Rome International Movie Awards' festibaleko Sail Ofizialean lehiatuko da

I.B. ARETXABALETA

Aretxabaletan bizi den Ekain Martinez de Lizarduyk zuzendutako eta Artemanek ekoiztutako *Erraiak* ikus-entzunezkoa Italiako *Rome International Movie Awards* festibaleko Sail Ofizialean lehiatuko da, urriaren 1etik 3ra izango den jaialdian.

Irrintziaren azterketa eginda, Euskal Herri osoan zehar irrintziarekin zerikusizuzena duten pertsonen testigantzak jasotzen ditu dokumentalak, eta lana fruituak ematen ari da. Izan ere, Montevideoko *World Film Festival* jaialdian dokumental onenaren saria jaso zuen; gero, Venezuelako *Five Continents international film* festibaleko Sail Ofizialean lehiatu zen, eta emaitzaren zain dago Martinez de Lizarduy. Orain, *Rome International Movie Awards* festibaleko Sail Ofizialean lehiatuko da.



Erraiak dokumentalaren une bat. ARTEMAN

Sorpresaz jasotakoak

"Halako harrera ez da sekula espero, eta aukeratu izatea, soilik, opari bat da. Ez bakarrik niretzat, Euskal Herriko irrintzilari guztientzat ere bada opari", adierazi du Ekain Martinez de Lizarduy zuzendariak.



BEÑAT ABASOLO

Kurtzebarri eguna

Iraileko bigarren domekan ospatu izan du Murruxiko mendizale elkarteak Kurtzebarri mendiko eguna. Aurten, gainera, 92 urte betetzen dira gurutzeta jarri zutela, baina, inolako ospakizunik ez egitea erabaki dute Murruxikokoek. Hala ere, ospakizunik egin ez arren, zenbait lagun igo ziren Kurtzebarrira, eta talde argazkia atera.



Herritarrak Ibarraundi museoa zain, bonuak erosteko, eguaztenez. GOIENA

650 bonu saldu dituzte bigarren txandan

Eskoriatza Bizirik bonuen kanpainako bigarren faseari irailaren hasieran ekin zioten. Guztira, 1.000 atera zituzten, eta 656 saldu dituzte, oraingoz. Berrikuntza batzuk ezarri dituzte fase honetan, eta, besteak beste, aukera gehiago daude bonu horiek gastatzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatza Bizirik bonuen kanpainako bigarren faserako 1.000 bonu atera, eta dagoeneko 656 saldu dituzte. Egindako berrikuntzek "fruituak" eman dituztela adierazi dute Garapen Jasangarri Saileko langileek, eta adierazi dute aukera dagoela urriaren 31ra arte bonuak erosteko, Ibarraundi museora joanda.

Bonuen kanpainako lehenengo faserako bonu berdeak atera zituzten, eta bigarren honetan, aldiz, kolore gorrikoak dira. Hala ere, kanpainaren helburua bakarra da: herriko salerosketak piztea eta egoerak kaltetutako familiei laguntzea. Hala, astelehen eta egubakoitzetan ari dira saltzen, 11:00etatik 13:30era bitartean, eta eguaztenez, aldiz, 17:00etatik 19:30era bitartean, eta herritarrak animatu nahi dituzte Ibarraundi museotik pasatu eta bonuen bitartez herriko komertzio txikiari laguntzeko.

Harrera ezin hobea

"Uste baino bonu gehiago saldu dira, eta hori pozteko albistea da. Orain, adinez nagusi den edozeinek erosi ahal izango ditu bonuak, baldin eta Eskoriatzan erroldatuta badago, eta horrek asko lagunduko duela uste dut. Gainera, tabernetan eta osasun zentroetan baino gehiago, ile-apaindegietan eta estetika zentroetan izan zuten arrakasta lehen faseko bonuek, eta orain, establezimendu gehiagotan gastatzeko aukera ematen dugu bigarren fase honetan; hori ere azpimarratzekoa da. Guztiak salduko diren aurreikuspena dugu, eta lehenengo fasean saldu gabe geratu ziren 120 bonuak berriz salgai jartzeko asmoa

**ESKORIATZA BIZIRIK
BONU BERDE ETA
GORRIEN IRAUNGITZE
DATA URRIAREN 31
IZANGO DA**

dugu, bigarren faseko guztiak gastatzen direnean", adierazi du Nerea Aranek, Garapen Jasangarri Saileko teknikariak.

Establezimendu gehiago

Bonuen kanpainako bigarren fasean herriko beste zenbait establezimendutan erabili ahal izango dira bonuak. Hala, kanpainara herriko komertzio gehiago batuta, hobeto joango dela aurreikusten dute Eskoriatzako Udaletik. Estetika zentroak eta ile-apaindegia: Edurne, Apaindu, Kuttuna, Ixkur, Kiribil, Villar ile-apaindegia, Kimu, King-Marga eta Pauxa estetika zentroa. Osasun zentroak: Erai osteopatia eta Gahir fisioterapia. Ostalaritza: Akeita, Compostela, Hotela, Ilargi eta Maulanda, Dendak: Dorleta Liburu-denda (Adeli), Carmen Mertzzeria, Oreaka Cycling kirol denda eta Namaste. Janari-dendak: Altuna Anaiak harategia, Aloña fruta-denda, Coviran eta Pagaldai harategia.

Dantza latindar eta euskal dantza ikastaroak hasteko gertu

Euskal dantzetarako musika eskolara deitu beharko da; dantza latindarretarako, berriz, irakasleari zuzenean

I.B. ESKORIATZA

Ikasturte berriarekin batera euskal dantza eta dantza latindarren ikastaroak hasiko dira. Ikastaro berriak ez diren arren, probatu gura duenarentzat ateak zabalik daudela adierazi du Eskoriatzako Udalak.

Euskal dantzen ikastaroa

Behoko Errota Musika Eskolan hainbat euskal dantza talde daude martxan, bai haur eta gazte-txoei zuzendutakoak, eta baita helduei zuzendutakoak direnak ere, eta matrikula zabalik dago hilabete amaierara arte. Interesatuak ordutegiei eta prezioei buruzko informazioa eska dezakete musika eskolan, bai telefonoz, bai posta elektronikoz ere. Telefono zenbakia honako hau da: 943 71 49 95; eta helbide elektronikoa, berriz: musikesko@hotmail.com.

Gerria mugitzeko aukera

Bestalde, saltsa, txa-txa-txa... pausoak ikasi eta gerrialdea mugitu gura duenarentzako, dantza latindarren eskolek jarraitzen dute Eskoriatzan, Angel Oiarzabalen eskutik. Ostiraletan egingo dira, Joseba Iñurrategi udal pilotalekuko gimnasioan. Ordutegia zehaztu gabe dago, bertaratzen direnen aukerak aztertuta ezarriko baita.

Parte hartzeko edo informazioa eskuratzeko, irakaslearekin zuzenean harremanetan jartzeko eskaera egin dute Eskoriatzako Udaletik. Horretarako, telefono honetara deitu beharko da: 662 52 02 58.

Bi kasuetan, COVID-19aren aurkako protokoloak beteko direla adierazi dute antolatzaileek, edukierari, maskaren erabilerari, segurtasunari eta higieneri dagokienez.

Domekako kontzertuetarako sarrerak daude

Martxoan bertan behera gertatutako Iñaki Encina piano-jole eta orkestra zuzendari eskoriatzarraren eta Adriana Gonzalez soprano guatemalarraren kontzertua domeka honetan izango da, Zaldibar antzokian. Bi saio egingo dira bata 17:30ean eta bestea 20:00etan, eta oraindik erosi daitezke sarrerak, Manuel Muñoz kiroldegian.

Martxoan sarrerak erosi zituztenek aldatu egin beharko dituzte, eta horretarako kiroldegira joan beharko da. Bere garaian sarrerak erosi baina kontzertura joan nahi ez dutenek, berriz, sarrera bueltatu eta dirua hartu dezakete. Hala ere, martxoan sarrerarik erosi ez zutenek eta kontzertura joan nahi dutenek aukera izango dute oraindik sarrerak erosteko —5 eurotan—. Izan ere, 17:30eko saiorako hamazazpi sarrera geratzen dira eta 20:00etako saiorako, hamar.



"Bizitzako ametsetako bat egia bihurtu dut"

Gorka Idigoras pilotu eskoriatzarrarentzat egun handia izan zen zapatukoa. Izan ere, Aramaioko XIX. rallysprinta irabazi zuen 5. Klase mailan eta sailkapen orokorrean, Aramaioko Raul Perez kopilotua bidelagun zuela

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gorka Idigoras auto pilotu eskoriatzarrak ez du samur ahaztuko joan den zapatuko eguna. Aramaioko XIX. rallysprinta jokatu zen, eta ez da lehen aldia izan Idigorasek bertan parte hartzen duena, baina, bere sailean eta sailkapen orokorrean txapeldun izanda, izugarritzko poztasunez jaso zuen saria. Bere esanetan: "Bizitzako ametsetako bat egia bihurtu dut".

Lan gogorrak fruituak ematen ditu askotan, eta Gorka Idigoras baditu zenbait lorpen poltsikoan. 2018an, esaterako, Euskadiko rallysprint txapeldun izan zen 2. Klase mailan. Orduko poztasuna gogoan du Idigoras, baina Aramaioko XIX. rallysprintean 5. Klase mailan azkarrena izatea eta sailkapen orokorrean ere lehenengoa sailkatzea "izugarria izan da" 18 urte zituenetik auto txapelketetan lehiatzen ari den gidari eskoriatzarrarentzat.



Idigoras eta Perez, Clio Sport autoarekin, Aramaioko rallysprintean. IMANOL SORIANO

Autoari hobekuntzak eginda

2012an egin zuen Idigoras lehenengo aldiz Aramaioko rallysprinta, eta ordutik urtero egin izan du lasterketa. Lehenengo urteetan Opel Astra batekin aritu zen eta azken urte-

tan Clio Sport autoarekin egin izan du. Lasterketarako, gainera, zenbait hobekuntza egin dizkio ibilgailuari, eta egindako aldaketak nabaritu dituela aitortu du: "Autoari motorra eta abiadura-kaxa aldatu nizekin,

besteak beste, eta Aiako lasterketan probatzera irten ginen, Aramaioko rallysprinterako gertu egoteko. Potentzia ezinbestekoa da Aramaion, igoera dezente daudelako, baina bizkortasuna ere garrantzitsua da, eta horretan laguntzen du autoa txikia izateak". Kopilotu lanetan Raul Perez aramaioarra izan du lasterketa horretan bidelagun, eta haren laguntza ere azpimarratu du: "Raul Perez aramaioarra izatea abantaila handia izan da. Bidea ondo ezagutzen du, eta, harekin egindako lehen lasterketa izanda, emaitza paregabea lortu dugu".

Etxeko lanak ondo eginda

Pilotu eskoriatzarrak ere Aramaioko bidea ondo ezagutzen duen arren, lasterketa guztien aurretik egiten duen moduan astebete lehenago apunteak hartzen aritu zen, eta lasterketan gogo biziz atera zela adierazi du: "Lasterketak hiru txanda ditu, eta emaitza hiruren baturatik ateratzen da. Lehenengo txandan hirugarren postuan geratu nintzen; bigarren txandan, bigarren postuan; eta hirugarrenean, lehenengoan. Azken horretan, aurretik zihoanak kolpea izan zuen, eta bost segundo atera nizekin. Konplikazio gutxi izan genituen. Bigarren txandan gurpil batean arazoak izan nituen, baina ia ez nuen igarri, eta, beraz, dena bikain joan zitzaigun".

Hurrengo lasterketarako prest

COVID-19arengatik lasterketa asko bertan behera geratu dira, eta Idigoras zirkuituetan entrenatzen jarraitzen duen arren lasterketarako gogoz jarraitzen du. Are gehiago, Aramaioko lorpenaren ostean: "Zirkuituetarako beti ateratzen dugu tarteren bat. Lasterketa asko bertan behera geratu dira, eta pena handiz hartu dugu mundu honetan ari garenek. Hala ere, urriaren 10-11ko asteburuan Gernikako lasterketa dago. Ez da ziurra gauzatuko den edo ez, baina ea egiten den, egunerako gertu egongo gara eta".

Eskerrak lagun guztiei

Pilotu eskoriatzarrak Aramaioko rallysprinta irabazi arren, bere ingurukoengatik izan ez balitz ezingo zuela garaipena lortu gaineratu du: "Eskerrak eman nahi dizkiet lagun eta etxekoei. Lasterketa egunean nirekin egon zirenei, asistentzian, bide bazterrean, telefonoz beste aldean... egon zirenei; bereziki, Monika Muñoz, inork baino gehiago lagundu eta bultzatzeagatik, eta baita zorion mezuak bidali dizkidaten guztiei ere".

**URRIKO BIGARREN
ASTEBURUAN
GERNIKAKO
LASTERKETA EGINGO
OTE DEN ZAIN GAUDE**

Elite kategorian Euskadiko txapeldun berria da Iker Eskibel

Azkenaldian mendiko bizikletarekin dabilen arren, errepidean ere lorpenak batu eta batu ari da eskoriatzarra

I.B. ESKORIATZA

Elite kategorian Euskadiko txapeldun berria da Iker Eskibel txirrindulari eskoriatzarra. Joan den zapatuan Baranbio (Araba) herrian jokatu zen afizionatu mailako Euskadiko txapelketa, eta Iker Eskibel izan zen elite mailako txapeldun, nahiz eta lasterketan bigarren postuan geratu: "Berastegik irabazi zuen Baranbion hasi eta Garrastatxun amaitu zen lasterketa, baina bera 23 urteko azpikoen mailan sartzen da; beraz elitekoan ni izan nintzen garaile".

Garrastatxuko igoera egiteko gogoz eta emaitza ederra lortuta, pozik agertu da garaipenarekin eskoriatzarra: "Behin, Euskal Herriko Itzuliko etapa bat bertan amaitu zen, eta bertako portua egiteko gogoz nengoen. Hala ere, hiru ordu eta erdi inguruko bidea luze egin, eta aspertu egin nintzen pixka bat. Orain, ohituago nago mendiko bizikletara, eta gehiago disfrutatzen dut". Asteburu honetan Valladoliden jokatu den Espainiako txapelketan izango da Eskibel; oraingoan, baina, mendiko bizikletarekin.



Eskibel, podiumean, Baranbioko lasterketa irabazi ostean. IKER ESKIBEL

Baranbioko lorpenarekin batera, asteburuan *Strava* mugikorrerako aplikazioa erabilita *errekora* bat lortu du Eskibelek Arlabango mendatean. Bidea markatu, egindako denbora, abiadura eta beste zenbait ezaugarri eskaintzen

ditu aplikazio horrek, bide bera egin dutenen sailkapena adierazten du. Hala, Eskibelek errekorra lortu du Arlabanen, 13.01eko denborarekin, 6,3 kilometroko portua igota. 29 kilometro orduko batez besteko abiaduran.

Kiroldegian aurretiazko hitzordua hartu beharko da

Irailaren 14tik aurrera, Manuel Muñoz kiroldegiko igerilekuan eta gimnasioetan nahiz pilotaleku txikian aritzeko hitzordua hartzea ezinbestekoa izango da.

Lekua erreserbatu arren, funtzionatzeko era honako hau izango da: espazio bakoitzean 45 minutuko erreserba egingo da; lau espazio ezberdinduko dira: igerilekua, beheko gimnasioa, goiko gimnasioa, aerobikoa eta mini-frontoia. Txanda bat igaro arte, ezin izango da instalazio bererako beste txandarik hartu. Txanda hartzeko, berriz, *kiroldegia@eskoriatza.eus* helbidera idatzi, harreraren zuzenean eskatu edo telefonoz 943 71 53 28 zenbakira deitu beharko da.

Harri-lubeta jartzen ari dira kanposantu alboan

Eskoriatzako Marin elizatean duela hiru urte izandako euriteek lur-jausia eragin zuten kanposantura bidean. Kalte handiagorik ez sortzeko abuztuaren amaieran hasi zituzten harri-lubeta egiteko lanak, eta luze joko dutela adierazi dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Marin elizatean, Santa Magdalena eliza pasata, kanposantura bidean lur-jausia izan zen, eta azpiko errepidera lurra eta harriak jausi ziren, duela hiru urte izandako euriteen ondorioz. Ordutik, hala-moduz pasa izan dira beheko errepide-tik gora baserriak dituzten bizilagunak. Hala ere, luiziak errepide osoa ez estaltzeko eta arriskua ez areagotzeko lanak abuztuaren 31n hasi ziren, eta egunotan harriz betetako kamioikadak eramaten ari dira harri-lubeta eraikitzeke. Aurreikuspenen arabera, bi hilabete iraungo dutela lanek adierazi dute Eskoriatzako Udaletik.



Marin elizateko lanak egiten. I.B.

Lanak, GFAk eta Udalak

Marin elizateko bideko lanen aurrekontua, hau da, proiektua egitea, lanak gauzatzeko eta horien zuzendaritza 57.000 euro ingurukoa da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak erdia ordainduko du

eta Eskoriatzako Udalak beste erdia. Hala ere, EKIN enpresak gauzatuko dituen lanek luze joko dutela adierazi du Iñaki Kerexeta Eskoriatzako Elizateen Elkartebozeramaileak. "Duela hiru negu euri asko egin zuen

eta lur-jausia izan zen. Eremua konpontzeko dirulaguntza bat lortu genuen Foru Aldunditik, eta, Eskoriatzako Udaletik ere lagunduta, martxan dira lanak. Dena ondatu baino lehen egin beharreko lanak ziren, eta denbora luzez iraungo dute", adierazi du Iñaki Kerexetak.

Bizilagunen bide bakarra

Luizia gertatu den eremutik gora 8-10 baserri inguru daude, eta euren etxeetara joateko bide bakarra da. Hiru urte hauetan tentsioan pasa dutela errepide zati hori adierazi dute auzotarrek, eta egoera horri irtenbidea emateko ordua zela adierazi du Irantz Azkona Maringo auzo-alkateak: "Luizia gertatu zenetik gaur arte, euri asko egiten zuen beharrez egiten zuten lurrak, eta auzotarrak zenbaitetan aritu dira pasagunea garbitzen. Arrisku handia izan dugu, eta eskerrak azken neguak ez direla gogorrak izan..."



Gatzagako hautesle elkarteak osoko bilkura batean. I.B.

COVID-19aren olatuari eusten ari dira gatzagarrak

Andra Mari jaiak ez ospatu arren, ekintzaren bat edo beste egin dute, baina ez da birusaren arrastorik sumatu

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

COVID-19 gaitzetik libre jarraitzen du Leintz Gatzagak. 230 biztanle baino ez dituen udalerriera ez da iritsi oraindik, ez da kasurik atzeman, eta bide horretan jarraitu gura dute bertako bizilagunek. Hala ere, zuzurtiaz jokatzeko jarraitu gura dute, eta lan horretan dihardute, herritarrek moduan, udal ordezkariak ere.

Udalbatzako kideek auzokideen jokabidea goraipatu dute, eta nabarmendu hori izan dela gako kasurik ez egoteko. "Batez ere, hasieran formal aritu ginen,

neurriak errespetatuz, eta baikoitza bere etxean. Gainera, talde bat antolatu genuen erostekak egin eta baserrietara eramateko, adineko jendearentzat... Ea hala jarraitzen dugun".

Jaien ostean, kasu barik

Andra Mari jaiak ez dituzte ospatu. Edozelan ere, meza egin zuten, eta, sorpresaz, herri kirolak antolatu. "Ez genuen nahi herri kirolak antolatu genituela jakiterik. Bertako askok ere ez zekiten, eta, herriko jende gutxi batuta, birusarekin ez kutsatzea bermatu genuen".

GORA ETA BEHERA



'Partxisaren plaza', bi auzoen arteko batasunaren ikur

Iaz, San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jai batzordeak plaza horri *Partxisaren plaza* izendapena jartzea proposatu zuten. Eskoriatzako Udalak urrian onartu zuen aldaketa, baina inaugurazioa joan den egubakoitzean egin zuten, bi auzoetako ez-jaien harira.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETAKO JAI BATZORDEA



GATZAGAKO GATZ MUSEOA

Egur-batzea, auzolanean

Leintz Gatzagako zenbait herritar Gatz Museorako egur-batzea egiten izan ziren joan den zapatuan. Uztailean ere batu ziren zenbait herritar lan horretarako, eta, egurra batu, moztu eta gorde ostean, negurako pilotxoak egin zuten. Amaieran, talde argazkia atera zuten bertaratuek, atzean batutako egur guztia zutelana.

34 kultura ekitaldi lotu dituzte udazkenerako

Pandemia egoeran ere kultura "segurua" dela eta herritarrak kultura egarriz daudela sinistuta, Udalak irailetik abendura arteko programazioa aurkeztu du asteen; musika, dantza, antzerkia, zinema eta umeendako ikuskizunak aintzat hartuta, 34 ekitaldi dira

Jokin Bereziartua BERGARA

Abendura bitartean kultura arloko 34 ekitaldi antolatu ditu Bergarako Udalak. Musika, dantza, antzerkia, zinema eta umeendako emanaldiak antolatu dituzte, helburu zehatz batekin: "Arduratuta gaude kultura eragileen egoeragatik, eta herritarrok kultura egarrria dugu, kultura beharra. Orain, Seminarioxoko atekak zabalduko ditugu kulturari eta sorkuntzari merezi duen lekua egiteko, gure alea jarriko dugu". Seminarioxoko atekak joan den egubakoitzean, irailaren 11n, zabandu zituzten, Moises Azpiatzuren omenezko dantza askatu txapelketarekin, eta abenduaren 26a bitartean "hainbat eta askotariko" ekintzak izango dituzte. Seminarioxoko honako hauek nabarmendu daitezke: *Fadoak entzuten zituen gizona* urriaren 10ean; *Gauekoak* dantza emanaldia azaroaren 7an; eta Xabi Solanoren *Bi* izeneko diskoa aurkezteko kontzertua azaroaren 20an, besteak beste.

Organo erromantikoaren zikloa Seminarioxoz harago, baina, Santa Marina elizan ere zuzeneko musikarik ez da faltako, urteroko klasikoa den organo erromantikoaren zikloak ez du eta hutsik egingo; urriaren 3an,



Fadoak entzuten zituen gizona antzezlanaren urriaren 10ean helduko da. GOIENA

TXOTXONGILO MOSTRAREN 15. EDIZIOA URRIAREN 29TIK AZAROAREN 1ERA IZANGO DA

10ean eta 17an kontzertu bana dute aurreikusita Santa Marina elizan, 20:00etan hasita.

Kultura Kalera eta txotxongiloak Urtero antolatu ohi duten Kultura Kalera ekimena ere abiatu

dute. Kultura arloan diharduten 18 talderen lanak erakusteko ekimena da eta herritarrek aukera izango dute Bergaran dagoen eskaintza zabalaz ohartzeko; urriaren 26an eta 27an San Martin plazara irtengo dira elkarte horietako kideak, goizez tailerrak egitera eta arratsaldean euren lana jendaurrean erakustera.

Bestalde, Taun Taun elkartearen esker bueltan dator Txotxongilo Mostra -15. edizioa-. Egitaraua ez dago zehaztuta, baina urriaren 29tik azaroaren 1era izango da aurtengoa.



GOIENA

Artekalea, zinemarako set eginda

Manu Gomez arrasatearra zuzendari duen *Erase una vez... Euskadi* filmerako grabaketak egiten aritu dira asteen Bergaran. 1980ko hamarkadako Euskal Herriko egoera islatu nahi du filmak, lau umeren begietatik ikusita; ikusmina piztu dute grabaketek. Martitzenean, besteak beste, Artekalean aritu ziren grabatzen. Aktoreen artean dago Yon Gonzalez aktore bergarar ezaguna.

Gladys del Estalen borroka jasotzen duen lana, irailaren 23an

Pandemiagatik martxoko emanaldia atzeratu ondoren, irailaren 23an botako dute, Seminarioxokoan (20:00), *Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa* izeneko dokumentala. 41 urte bete dira aurretik Gladys del Estal militante anti-nuklearra hil zutela. Guardia Zibilak hil zuen, tiroz, 1979an, Tuteran (Nafarroa), energia nuklearraren kontra egindako

protesta batean. Bere istorioa ere jasotzen du dokumentalak, azpituak iradokitzen duen moduan: *Gladys-en leihoa*. 1970eko eta 1980ko hamarkadetan energia nuklearren kontra sortu ziren mugimenduen ibilbidea jorratu dute, Gladysen ibilbidea erreparatzearekin batera. Irailaren 23ko emanaldian izango dira filmaren gidoigile Sabino Ormazabal eta Bergara Bizirik-eko kide Iñaki Madinabeitia; zentral nuklearren aurka Bergaran egin zenaz arituko da.

Seminarioxoa, gehienez, 130 lagun

Gaur egungo araudiak agintzen duenera egokituta, ekitaldi guztietan, gehienez, 130 lagun sartu ahal dira Seminarioxoa. Sarrerak ohiko bi bideetatik eskuratu ahal dira: leihatilan eguenero 18:00etatik 20:00etara eta Internetez honako helbide honetan: <http://ticket.kutxabank.es>. Hileko lehen eguenera jarriko dira salgai hurrengo hilabeteko sarrerak.



Seminarioxoa gaur egungo araudiaren arabera edukierara egokitu dute. J.B.

Gaixo edo konfinatuta dauden zaborra kudeatzeko argibideak

COVID-19arekin gaixo edo berrogeialdian dauden pertsonen etxeetako hondakin kudeaketaren ardura Udalarena denez, argibide zehatzak eman dituzte: haien etxeetako hondakin guztiak -bereizi gabe- hiru poltsen barruan ondo itxita jaso beharko dira eta hori errefusaren edukiontzira bota. Poltsan kutsatutakoaren hondakin guztiak

joango dira -maskarak, eskularruak, zapiak...-. Poltsa horiek ondo itxita egon beharko dute, eta gaixo edo berrogeialdian dagoen pertsona horren hondakinak manipulatu eta errefusera botako dituen pertsonak eskuak uraz eta xaboiak grabatu beharko ditu berehala. Eta bakkirik bizi badira eta senitartekorik ez badute, laguntza eskatu ahal izango diote Udalari, 010 telefono zenbakira deituta; udal langile batekin koordinatu beharko da gaixoa kasu horretan.

Ahalduntzeko erremintak emango dituzten saio bi

Jabekuntza Eskolaren hirugarren ikasturtean bi ikastaro antolatu dituzte, doakoak eta emakumeentzat: irailaren 21ean hasiko den autoestimua feministaren gainekoa eta urriaren 17rako eta 18rako antolatu duten 'Nire barneko haurra besarkatzen' izenekoa

Jokin Bereziartua BERGARA

Jabekuntza Eskola martxan jartzeaz da ikasturte berezi honetara begira. Eskola horren helburua azaldu du Berdintasun zinegotzi Ainhoa Letek: "Helburua da emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa sustatzea; hau da, gizartean dagokigun espazioa berreskuratzea. Emakumeon banakako zein taldeko jabekuntza bilatzen dugu eta ahalduntze prozesuen bitartez Bergara justu, anitz eta osoagoa lortu nahi dugu".

Antolatu dituzten bi saioetako bat hurrengo astelehenean, hilak 21, abiatuko dute. *Autoestimua feminista* jarri diote izenburu eta Emagin elkarteok hiru saio eskainiko dituzte, irailaren 21ean, 28an eta urriaren 5ean, 18:00etatik 21:00etara, Irizar jauregian. "Jarrera feminista izateko hautua hartzean izan ditzaiegun oztopo eta hausnarkeak landuko ditugu taldean". Izen-emate epea atzo amaitu zen, berez, baina norbaitek interesa badu 943 77 91 00 telefono zenbakira deitu edo berdintasuna@bergara.eus helbidera mezua bidali beharko du lehenbailehen.

Umetako esperientziak aztergai

Hasierako asmoa zen 2020an bi sasoiaren ikastaroak antolatzea,



Emakume migratu eta arrazializatuaren sareko Luciana Alfaro, saio feminista baten. GOIENA

baina COVID-19ak asmo hori zapuztu zuen. Horregatik antolatu dute bi ikastaro ikasturte osorako; beste ikastaroak *Nire barneko haurra besarkatzen* du izena eta urriaren 17 eta 18an egingo dute, Agorrosinen, 09:00etatik 14:00etara bitartean, Elena Urigoitiak gidatuta: "Txikitari bizi izandako esperientziak zeresana izan dezakete eta iraganeko memoria horrek gure orainaldian eragin dezake. Hori aztertzen eta ulertzen ahaleginduko gara". Bi ikastaroak dira doakoak eta bigarren saio ho-

rretan matrikulatzeko epea urriaren 12an bukatuko da. Ikastaroen hizkuntza izena emandakoen arabera zehaztuko da.

Parte hartzeko dei berezia

Udaleko Berdintasun Sailak dei berezia egin nahi izan die herritarrei ikastaroetan parte har dezaten. Diotenez, elkar ezagutzeko, ikasteko eta esperientziak partekatzeak aukera izateaz gain, ondo pasatzeko aukera ederra dago: "Edonork edozein zalantza badu, jar dadila Udalarekin harremanetan".

NIRE USTEZ



AINHOA PARDINA

Inspirazioarekin ezkutaketetan

Sarri ibiltzen naiz inspirazioarekin ezkutaketetan jolasean; izan ere, tarteka, gorde egiten da eta bere bila aritu beste aukerarik ez dut izaten, berriz bidelagun izan dezadan. Hala ere, koloretako munduan, alai, zoriontsu bizi ginen, elkarrekin, itxialdiarekin iluntasuna etorri zen arte. Itxialdiak beldurtuta, berriz ezkutatu zen, baina, oraingoan, ez da nigana itzuli. Ordenagailuaren nahiz paperaren eta boligrafo baten laguntzarekin ere ez dut lortu hura aurkitzerik. Ez dakit non ezkutatu den. Bahitu egin al du norbaitek?

Itxialdiak inspirazioa eta imajinazioa lapurtu zizkidan eta ostean etorritako egoera ezohikoak ez die nigana itzultzeko aukerarik eman. Baina guretzat egoera gogorra bada, are gehiago umeentzat. Haien imajinazioa ere minduta gelditu ote da, normalean handia izaten duten arren? Eta gaztetxoena? Orain, ikasturte berria hasi berri dugula espero dezagun, umeren batek urte arraro honek eraginda inspirazio edo imajinazio apur bat galdu badu, bizitza *normalago* baten hasierak hauek guztiz berreskuratzea ekar dezala. Saia gaitezen hori bultzatzen!

GORA ETA BEHERA



I.B.

Laboratorium ondoko zikinkeriatatik kexu



Irailko lehen asteburuan lorategi historikoen bisitan parte hartu zuten herritarrek harridura geratu ziren Laboratoriumen ondoan, garai bateko garbitokian, zegoen zikinkeriarekin.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Oxirondoko geltokia ezingo da erabili hilaren 25era arte

Ibargaraiko lanak direla-eta Zurradero kaletik ezingo dira autobusak eta kamioi handiak pasatu, eta, horregatik, Oxirondoko autobus geltokiak ez du zerbitzurik emango irailaren 25era arte. Era berean, Udalak aditzera eman du Ibargarai kaleko obrak direla-eta datozen egunotan zirkulazioan bestelako eraginak izan daitezkeela.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Danborradarik ezean, martitzeneko Goiena telebistako saio berezirako *San Martin* martxa jo zuten hainbat lagunek. ANDONI GOITI

Erantzun xumea ekitaldi "apalei", 2021ean jaiak ospatzeko esperantzaz

Sanmartinak ez ospatzea penaz hartu dute danborrada modu berezian bizi dutenek, eta martitzenean zein eguaztenean balkoietatik jotzeko deiak askotariko erantzuna izan zuen, gunearen arabera; bandak 'San Martin' martxa joko du domekan (12:30), Boluko frontoian

Jokin Bereziartua BERGARA
Ziurgabetasuna nagusi bada ere, pandemiak argi utzi du 2020an bergarrek ez dutela jairik ospatuko, eta badago 2021era begira orain arte ezagutu ditugun jaiak noiz ospatuko diren galdegin duenik sare sozialetan; igartzen da festa gosez dauden herritarrek badirela...

Sanmartinen bueltan antolatu diren ekitaldi xumeek neurriko erantzuna izan dute, jende pilaketa aipagarririk gabe. Jendea erakarriko duen ekitaldi bat izango da domekakoa (12:30), bandak lehen aldiz joko du eta kontzertua Boluko frontoian; bestek beste, *San Martin* martxa joko dutela aurreratu du Enrike Txurruka zuzendariak.

Danborradarik ez: hiru belaunaldi
Danborrada da sanmartinetako ekitaldirik jendetsuena, jaietako

ikurra, baina, araudiak uzten ez zuenez, Udalak *San Martin* balkoietatik jotzeko dei egin zuen; herriko gunearen arabera, askotarikoa izan zen. Danborrada oso modu berezian bizi duen familia bateko hiru belaunaldirekin egon da GOIENA.

Aitona, Markos Labaien, erretiratuen konpainiarekin irten izan da 18 bat urtez: "Gustura ibili izan gara... Gogoratzen dut urte batzuetan kostatu egiten zitzaigula jendea batzea. Jende berria erakartzen ibiltzen ginen; izan ere, behin batuta, gero gustura irteten ziren danborradan".

BANDAK KONTZERTUA EMANGO DU BOLUKO FRONTOIAN (12:30); 'SAN MARTIN' MARTXA JOKO DUTE ZUZENEAN

Alabak, Agurtzane Labaienek, "pena handiz" bizi izan du aurreten ez irtetea: "Akordaten naiz aspaldi danborradan irten nahi genuela, baina, elkarte gastronomikoetako jendea bakarrik irteten zenez, ez genekiela nola irten. Beti egon izan dira arazoak banderadunak lortzeko... Urte batean esan ziguten banderadun moduan irtenez gero hurrengo urtean aukera izango genuela talde bat sortzeko. Eta horrela egin genuen... 2007a ezker, urtero irten izan gara eta urte batean familiako bost lagun irten ginen; oso hunkigarria izan zen".

Maider San Torcuato bilobari ere asko gustatzen zaizkio sanmartinak eta danborrada: "Umeen danborradan hasi nintzen, 3 urte nituenetik. Danbor txikiarekin, zuzendari, japoniar jantzita, gazte bandarekin... denetarik egin dut".



Galarraga eta Murgiondo, txapelketa irabazi osteko dantzan. J. BEREZIARTUA

Bigarren urtez dantzaren gailurrean

Bergarako musika eta dantza eskolak Udalaren laguntzarekin antolatutako Moises Azpiazuren omenezko 35. bikote nagusien dantza askatu txapelketa etxean geratu da bigarren urtez jarraian. Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo dantzari bergararren eskutik, Bergarak euskal dantzaren puntan jarraitzen du; haria ez da eten.

Etxean jokatu zutela igarri zen, publikoaren berotasunik ez zitzaien falta izan: "Ez dugu nahi moduan entseazterik izan, baina gustura gaude egin dugunarekin. Ohiko egoeran egongo bagina irailera txapelketa gehiago jokatuta helduko ginen, sasoi hobean, baina oso pozik gaude. Bergarak beti izan du tradizio berezia euskal dantzan, eta horrela jarraitu dezala. Seminariora gerturatu direnei, irakasleei eta etxekoei eskaini nahi diegu txapela". Irailaren 11n jokatu zen txapelketa, Seminarixoan, segurtasun neurriak hartuta.



Etxague Azpikoa baserriko Karmen Etxeberria zapatuko azoka txikian. J. B.

Azoka txikia egitea estimatu dute

Sanmartinetako azokarik ez da izan, baina, araudiak baimentzen duela ikusita, Udalak hamar ekoizle gonbidatu zituen azoka txiki baterako. Oxirondon beharrea Fraiskozurin egin zen eta ez zen barazki, fruta eta gazta lehiaketarik izan; sanmartinetako klasikoa den odolosterik ere ez zen egon. Azoka xumea izanda ere, ekoizleek eskertu zuten eta erosleek estimatu zuten. Aritzeta auzoko Etxague Azpikoa baserriko Karmen Etxeberriarekin egon zen GOIENA azoka aurretik eta azokan bertan: "Feria aurreko egunak lan handikoak izaten dira, ortuko produktu onenak eraman behar dira, eta urduritasun puntu bat ere izaten dugu. Sanmartinetako ohiko azoka oso ona izaten da eta gaurkoa [zapatua] askoz txikiagoa izan arren nahiko ondo joan da. Jendeak ezagutzen gaitu eta badaki zer eskaintzen dugun". Tomatea izan zen salduena azokan.

Martxan da Agorrosingo eskaintza berria, atzotik

Aurtengo udako denboraldian erabiltzaile eta abonatu kopurua ohikoa baino "dezente" txikiagoa izan da Agorrosin. Segurtasun neurri bereziekin eta ikasturte berrira begira ere, nabarmen egin du behera kirolgunean ikastaroetako izen emateak

Jone Olabarria BERGARA

Atzo hasi zituzten denboraldi berriko ikastaroak Agorrosin kirolgunean, eta horien eta COVID-19 dela-eta jarraitu beharreko araudiaren aurkezpena egin zuten udal ordezkariak, aurtengo udak emandakoaren balorazioa egiteko.

Bai abonatu eta bai erabiltzaile kopurua 2019ko udakoa baino dezente txikiagoa izan da: iazko uztailean, esaterako, 4.828 abonatu eta 32.612 sarrera izan zituen Agorrosinek; aurtengo uztailean, berriz, 3.274 abonatu eta 11.856 sarrera izan dira.

Masifikazioak ekidin

Aitor Arantzabal Kirol zinegotziak azaldu duenez, egoera kon-tuan izanda abonatu kopurua nahiko "duina" izan da: "Horri esker masifikazioak ekidin ditugu eta kalitatean salto bat ematea ahalbidetu du. Herritarrek ere hori helarazi digute". Udaletik, era berean, Agorrosingo langileek udan

egindako lana eta erabiltzaileek erakutsi-tako jarrera eskertu gura izan dute.

Beherakada izan da

Atzo hasi ziren ikastaroei dagokienez, izena eman dutenen artean ere beherakada egon da: irailaren 14ara arte 226 lagunek zuten izena emanda; iaz 1006 izan ziren. Agorrosingo koordinatzaile Amaia Zabaletak azaldu du ikasturte berriko egoera: "Lehorreko ekintzetan 36 eskaini diren arren, soilik 16k egin dute aurrera. Uretakoetan zazpi eskaini dira eta bostek egin dute aurrera. Iazkoarekin alderatuta beherakada den arren, guk aurrera egingo dugu, segurtasun neurri guztiak bermatuz. Hala

**IKASLE BAKOITZAK
SEGURTASUN EREMU
BAT IZANGO DU ETA
BERAK DESINFECTATU
BEHARKO DU**

ere, herritarrek izena ematen jarraituz gero, talde eta ekintza berriak aurrera ateratzeko aukera ere egongo dela aurreikusiten dugu".

Neurri berriak martxan

COVID-19a dela-eta Agorrosin kirolgunerako prestatu duten araudiari dagokionez, gune ezberdinetara nondik sartu zehaztuta izango dute erabiltzaileek eta lurreko aztarnak jarraitu beharko dituzte kirolgunean mugitzeko.

Txartelarekin bakarrik sartu ahalko da instalazioetara eta aldagelak ahalik eta gutxien erabiltzea gomendatzen dute. Ikasle bakoitzak segurtasun eremu bat izango du jardueretan, eta ikasleak berak desinfektatu beharko du jarduera hasi eta ondoren. Saio bakoitzerako beharrezko materiala norberak eraman beharko du etxetik. Erabiltzaileek kirol jarduera hasten dutenean bakarrik erantzi ahaliko dutela maskara.



Martitzenean Bergara Hiria txapelketari hasiera eman zioten pilotariak. PILOTA SAILA

Abian da Bergara Hiria pilota txapelketaren hirugarren edizioa

Joan den asteko egubakoitzean jokatu zuten Soraluze lau eta erdiko finalean Iker Espinal nafarra nagusitu zen

J.O. BERGARA

Asteon ekin diote emakumezkoen Bergara Hiria txapelketaren hirugarren aldiari, eta, hain justu, martitzenean, San Martin bezpera egunez, jokatu zuten lehen partida pilotariak. Sei bikote lehiatuko dira, ligaxka moduan, eta bost jardunaldi izango dira. Dena ondo bidean, finala urriaren 13an jokatzeko aurreikusitena dute. Julen Aranburu pilota saileko koordinatzaileak azaldu duenez, zalantza ugari izan arren txapelketarekin aurrera egitea erabaki dute, nahiz eta "lan eta esfortzu bereziarekin".

Lehen emaitzei dagokienez, nagusien partidari Ruiz de Larramendi eta Agirre gailendu ziren (22-19), Garaien eta Aldairen aurka, "gogorra eta ikusgarria" izan zen partidari. Promes mailan berriz, Barrocalek eta Gamindek "erraz" irabazi zuten

(22-4), Unanueren eta Galeanoren aurka.

Soraluce txapelketako finala

Martxoan bertan behera geratu ostean, irailaren 11n jokatu ziren Soraluze txapelketako finalak; betiere, normaltasun berrira egokituta. Promes mailan, Jorge Fernandez errioxarra izan zen garaile, 22-16. Senior mailan, berriz, Iker Espinal nafarra izan zen garaile, 22-7 irabazita Aitor Etxeberria lemoarrari.

Gaur ere, lehia frontoian

Gipuzkoako binakako txapelketako bi partida jokatu dira gaur arratsaldean pilotalekuan, 18:30ean hasita. Hala, Lazpiur eta Alberdi bergararrak Oiarzungo Oiarpe taldeko pilotarien aurka arituko dira. Ostean iritsiko da Etxezarreta eta Iñarra herriko pilotarien partida, Izurungo bikote baten kontra.

Kaleko frontenis txapelketaren finala gaur Angiozarren

Gaur iluntzean egingo dituzten partiduekin emango zaie amaiera udako frontenis txapelketaren aurtengo edizioari. Emakumezkoen kasuan, Mireia eta Maite-na Miren Argiren eta Iratxeren aurka lehiatuko dira finalean. Mutilei dagokienez ere, gaur jokatu dute finala, baita bigarren eta hirugarren postua erabakitzeko partidak.

Antolakuntzatik gogoraziti dute distantziak errespetatuko dituztela, baita maskararen erabilerari dagokion protokoloa ere. Guztira, 61 bikotek eman dute aurtengo izena uztailean eta irailean zehar egiten ari diren txapelketan, 11 nesketan eta 48 mutiletan. Bikote mistoak ere izan dira aurtengo. "Esperotakoa baino askoz gehiago" dela azaldu zuten antolakuntzatik, eta herritarren artean txapelketak harrera "ona" izan duela azaldu dute.



Amaia Zabaleta, Aitor Arantzabal eta Iñaki Ugarteburu, Agorrosingo kanpoko gunean, astelehenean. TXOMIN MADINA



Amaia jaki dendako arduradun Amaia Lazkano bezero batekin solasean, eguzten goizean. J.O.

"Mugimendu handiagoa" abuztuan, merkatarien eta herritarren esanetan

Abuztuko oporrak igarotzera kanpora joan diren herritarren kopuruak "behera" egin duela eta, antzuolar "gehiago" nabaritu dituzte aurten herriko komertzioetan. Azaldu dutenez, baina, salmentetan ez dute "hainbeste" igarri tabernari eta dendariak

Jone Olabarria ANTZUOLA

Ezohiko uda izan da aurtengoa bizitzako arlo guztietan, eta egoera horrek isla izan du, nahitaez, herrien egunerokoan. Baitarako herri gehienetan gertatzen den bezala, Antzuolan ere abuztuan herritar gutxi geratu ohi direla azaldu du Beñardo Kortabarría alkateak: "Abuztuan herritarren gehiengoa kanpora joaten da eta herriak hutsik geratzen dira, baita gurea ere".

Aurten, baina, ez da fenomeno hori "horrenbeste" gertatu: "Herritarrek kanpora joan dira, baina denbora gutxiagorako, normalean. Egun-pasa joan eta iluntzerako herrira buelta egin dute askok aurtengo udan". Neurri ezberdinean bada ere, egoerak herrian kontsumitzera eramandu dituzte herritarrek, alkatearen esanetan: "Egunero dendatik buelta egin, tabernatik... Igarri

da mugimendua egon dela eta uste dut denda eta komertzioentzat onuragarria izan dela".

Gehiago baino, ezberdin

Herriko dendari eta komertzio ezberdinetan galdetuta, bat etorri dira; antzuolar gehiago ibili da aurten abuztuan herrian. Hala ere, "esperotakoa baino jende gehiago" kanpora joan dela azaldu du Jaione Arrandegiko Jone Gorrotxategik. Zabalik izan dute arrandegia abuztuan osoan zehar, baina, hala ere, ez dute bereziki igarri salmentetan igoera egon denik.

"AURTEN, EGUN-PASA KANPORA JOAN ETA ILUNTZERAKO ANTZUOLARA BUELTA EGIN DUTE ASKOK"

Amaia Lazkanok herritar gehiago egon izana baino gehiago, egoera ezberdina izan dela azaldu du: "Herritarrek galdetzen ziguten zabalik ote genuen edo zer ordutegirekin. Aurreko urteetan baino mugimendu apurtxo bat gehiago egon da".

Markel Sainzek 2019ko urrian hartu zuen Arin tabernaren ardura eta iazko udarekin konparatzeko aukerarik ez duela izan aitortu du: "Gainerako tabernariak lana jaitsi dela esan digute, baina terrazari esker nahiko ondo igaro dugu uda; ea hotza datorrenean nola egiten diogun aurre denari".

Kalera irtenda eta herritarren artean galdetuta, oporraldi "laburragoa edo gertuagoa" egin dutela azaldu dute. Orokorrean, herrian "normalean baino mugimendu handiagoa" izan dela azaldu dute antzuolarrek.

Antzuolarren artean, "giro berezia"



Jone Gorrotxategi

"Abuztuan zabalik izaten dugu beti arrandegia, baita aurten. Igarri da batzuk hemen geratu direla udan, baina ez dugu horrenbeste igarri salmentan. Abuztu erdiko astea izaten da okerrera, eta aurten ere nahiko eskasa izan da".



Amparo Arregi

"Jaiek, adibidez, giro polita jartzen dute herrian, eta, aurten egon ez direnez, penaz bizi izan dugu. Hala ere, igarri da herritar ugari bertan geratu direla; gauetan elkartzen zen jende apur bat, eta, egoeraz harago, girotxoa izan da".




Maria Luisa Jauregi

"Herriko jendea izan da hemen ibili dena, baina aurreko urteetan baino gehiago, esango nuke. Herrian geratuta, gainera, beti gehiago erosten dute bertan eta komertzioetan ere mugimendu gehiagotxo egon dela iruditu zait".



Idoia Conget

"Uda sasoi ezberdina izan da aurtengoa. Abuztuan hiru astetan egon gara Antzuolan eta igarri da jendea hemen geratu dela, nahiz eta nik uste baino gutxiago. Egun-pasa egin eta iluntzean herrira bueltatzen ziren herritar asko".



Terrazak, tabernen salbatzaile

"Terrazari esker" herrian nahiko mugimendu egon dela azaldu du Arin tabernako Markel Sanzek: "Jendeak beldurra izan du barrura sartzeko eta, orokorrean, lana dezente jaitsi da pintxo-pote edo jai gabe". Neguari nola aurre egingo dioten zain daudela azaldu du.

Emaizta onak asteburuan antzuolar txirrindulariek

Oñatin zapatuan jokatu zen Mikel Deuna Sarian hamabosgarren tokian helmugaratu zen Ekain Larrea gazte mailako txirrindularia. Bolintxo Okindegia-Lana taldeko kide duen Unax Errastik hamargarren postua eskuratu zuen domekan Azpeitia Sarian

Jone Olabarria ANTZUOLA

Dagoeneko ia bi hilabete darrazte Bolintxo Okindegia-Lanako txirrindulariek proba eta lasterketa ezberdinetan lehiatzen, eta, hain zuzen ere, joan den asteburuan izan zuten antzuolarrek horietako hainbatetan parte hartzeko aukera.

Gazte mailako Ekain Larrea Aranguren hamabosgarren postua lortu zuen joan den zapatuan Oñatin jokatuak 62. Mikel Deuna Sarian. Antzuolarra Danel Casais lehen sailkatuarengandik 52 segundora helmugaratu zen. Domekan iritsi zen Unax Errasti Urteaga kadearen txanda; Azpeitian jokatuak 40. Azpeitia sarian hamargarren postua eskuratu zuen antzuolarrek. Lehen sailkatua baino bi minutu eta 37 segundo geroago helmugaratu zen.

Seguran eta Lizarran

Asteburu honetan ere hainbat hitzordu dituzte lasterkari antzuolarrek: Ekain Larrea Seguran lehiatuko da zapatuan eta Uñax Larrea, domekan Lizarran.

Lasterkariak, "gogoz"

Lokatza taldeko zuzendari Iñigo Larrañagak kirolarien formakuntzaren garrantzia azpimarratu du, emaitzak baino gehia-



Ekain Larrea gazte mailako txirrindularia uanean zapatuan Oñatin. IMANOL SORIANO

"FUNZIONAMENDUA APUR BAT ALDATU DA, BAINA EMAITZA ONENAK LORTZEKO LANEAN GABILTZA"

go: "Lasterkariak etxean egon dira eta aurtengo denboraldi erdia galdu dute. Hala ere, gogotsu datoz probetara. Funtzionamendua apur bat aldatu da, baina nahiko ondo gabilta, ahalik eta emaitza onena lortu

nahian. Karrera eguneko harremana da bereziki aldatu dena".

Antzuolar harrobia, sasoi

Lokatza ziklismo eskolako lehen-dakari Ion Unamunok antzuolar gazteen artean dagoen txirrindularitza afizioa azpimarratu du: "Antzuolar txirrindulariak oso garrantzitsuak dira guretzat. Une honetan Lokatza ziklismo eskolak dituen txirrindularien erdia antzuolarrek dira. Emaizta politikari ari dira lortzen eta herrian harrobia sasoi oneko dago".



Euskaraldiaren aurreko edizioako Antzuolako hamaikakoa irudian. GOIENA

Euskaraldia antolatzeke bilera irekia egingo dute eguenean

Herritarrek animatu nahi izan dituzte Torresoroara gerturatu eta Euskaraldiko prestaketan laguntzera

Goiena komunitatea

Euskaraldia Antzuola

Euskaraldiaren bigarren edizioa bertan da, eta laster emango diogu hasiera norbanakoen izen emateari. Aurten, azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da Euskaraldia eta garrantzi berezia izango dute ariguneez.

Euskaraz lasai aritzeko espazioak edo taldeak dira, eta bertako kide guztiak euskaraz eroso sentitzeke lekua. Mota guztietako entitateek eman dezakete bertan izena: erakunde publikoek, gizarte eragileek, enpresek, kultur eta kirol taldeek,

elkarteez, merkatariak... Aurreko Euskaraldian 415 *ahobizi* eta 59 *belarriprest* izan ginen Antzuolan eta aurtengoan ere gogoz dator Euskaraldia herrian.

Bilera, Torresoroan

Prestaketa lanei ekiteko, bilera irekia egingo dugu datorren eguenean, irailak 24, Torresoroan, 18:30ean hasita. Herritar guztiak animatu nahi ditugu bertara gerturatu eta haien ideiak plazaratzera.

Topaguneko kide bat ere izango da bertan, azalpenak eman eta informazioa eskaintzen.

OHARRAK

Yoga ikastaroan izena emateko epea, zabalik

Aurreko urteetan egin bezala, aurten ere yoga ikastaroa antolatuko nahi du Udalak. Izen ematea zabalik egongo da irailaren 22ra arte. Herritarren izen emate kopurua ikusita erabakiko dute taldeak nola antolatu eta ikastaroa zer instalaziotan eskaini. Udaletxean egin daiteke, edota 943 76 62 46 telefono zenbakira deituta.

Eskulan ikastaroa abiarazteke lanean

COVID-19a dela eta, ordutegien, txanden eta ikastaroen kokapenari buruzko erabakiak izen ematearen ostean hartuko dira, interesatu kopuruaren arabera. Lehen mailatik gorako umeak astearteetan joan daitezke eta helduen txanda asteazken eta ostegunetako da. 943 76 62 46 telefono zenbakira deituta eman daiteke izena.

Erreka garbiketa bihar goizean

Bihar, irailak 19, egingo dute, 09:00etan, herriko plazan hasita. Izena eman beharra dago, udaletxera deituta edo Whatsapp bidez 630 45 51 14 telefono zenbakian, eta oraindik zabalik dago epea. Hiru gunetan banatuta aurreikusten dute garbiketa egitea eta, Udalak herritarrek animatu dituzte parte hartzera.

Uzarragako igoera, irailaren 26an

Ohiko egoeran, udaberrirako antolatzen du Peña Ayastuik Uzarragako igoera. Aurten neurri bereziki egingo duten arren, eta irailera atzeratuta, egutegian lekutxo bat egin eta hilaren 26an izango da.

Denboraldia gutzit bukatzeko hainbat proba geratzen diren arren, azken lasterketa izango da Lokatzako txirrindulari antzuolarrentzat ere etxekoa.



luz martxoan jokatuak Uzarragako igoeran. IMANOL SORIANO

Neurriak hartuta, herriko produktuak plazara

Hamar bat postuk osatuko dute, zapatuan, baserriarren azoka. Segurtasun neurri bereziak hartuko dituzte kutsatzeak saihesteko, eta aurten ez dira egingo ez Intxortako igoera, ez baserriarren bazkaria, ez otarrearen zozketa

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetarrek ekoiztutako jeneroa eta herriko artisauek egindako eskulanak izango dira bihar protagonista. Azoka 10:30ean zabalduko dute, eta ortuko produktuekin izango dira bertan Josetxo Arantzabal, Pili Arin eta Sebastian Arantzabal. Artisauek lanak Lorena Ibeasek, Pili Arinek eta Andrea Diazek ekarriko dituzte. Marokoar gozoak, Larrabiltxoko eztiak, Baobeer garagardoak, unzetabarrene-txeatarren ogia eta ortu ekologikoetako produktuak ere izango dira azokan. Giroa alaitzeko, berriz, soinuarekin eta panderoarekin izango dira Angiozarko Miren eta Arkaitz.

Faltan sumatuko dira, aldiz, Intxortako igoera, azokako produktuen otarrearen zozketa eta baserriarren bazkaria. "Bazkari hori formatuz aldatu dugu aurten. Postu bakoitzak txartel bana jasoko du nork bere alde-tik otordu bat egiteko", esan du Baserriarren batzordeburu Sebas Arantzabalek.

Segurtasun neurri bereziekin

Pandemia egoeratik bestelako neurriak ere hartuko dira, eta saltzaile bakoitzak agiri bat sinatu du betetzeko konpromisoa agertuz. Zirkuitu bat egongo da,



Herriko ekoizleen azoka, ia. GOIENA

"UDA OSO LEHORRA IZAN DA, ETA ASKO UREZTATU BEHAR IZAN DIRA BARATZEAK"

eta bezeroak noranzko bakarrean mugitu ahalko dira. Sarreran eta irteeran gel hidroalkoholikoa egongo da, eta postu bakoitzak berea izango du. Eramateko produktuak soilik salduko dira, ezingo da postuetan ezer jan eta

bezeroek ezingo dute ezer ukitu. Maskarak erabili eta metro eta erdiko distantzia mantendu beharko da.

Lehorteak markatutako uzta

"Uda oso lehorra izan da, eta nahikoa lan ibili dugu baratzean", azaldu du Arantzabalek. "Askok ureztatu behar izan da, eta ureztatu ezin direnetik gutxi atera da. Esaterako, baba. Tomatea konpentsatu dugu azken partean. Sikurarekin ondo doa heltzen, baina hasieran gaixotasun dezentze izan zuten".

Musika eta trikiti eskolak asteon jarri dituzte martxan

Pandemia egoera dela eta, eskolan ezarrita dauden bizikidetzaren talde egonkorak mantenduko dituzte

L.Z.L. ELGETA

Ikasturte hasiera benetan berezia da honako hau, eta eskolak kanpoko jarduerak eskaintzen dituzten eragileek ere segurtasun eta distantzia neurriak mantendu behar dituzte. Hala, Musika Gelako Lorea Larrañagak eskolako bizikidetzaren talde egonkorak mantenduz osatu ditu taldeak. Hezkuntza musikaleko bi talde ditu martxan astelehena ezkerreko, eta 6 urteko umeen musika tailerra ere irten daitekeela uste du. "Ez nuen pentsatzen 6 urtekoekin hastea, baina guraso batzuk nirekin egon dira, eta interesa dutela ikusi dudanean animatu naiz", azaldu du. Guztira -instrumentu eskolak barne-, 29 ikaslerekin eman dio hasiera ikasturteari. Egoerak horrela eskatuta distantziak mantentzen dituzte, sarreran temperatura hartzen dute, eta

gel hidroalkoholikoa eta maskarak erabiltzen dituzte.

Adolfo Jainagaren trikiti eta pandero eskolak ere martxan dira. Banaka egiten dituzte saio horiek eta atzo, eguena, hasi ziren "dozena erdi bat ikaslerekin", herri eskolan.

Alazne Azkaratek erabaki du yoga txiki eskaintza ez ateratzea, oraingoz; izan ere, nekeza ikusten du neurriak betetzea. Ludoteka, gaztelekua, eskola kirola... ikusteko dago umeendako gainerako jarduerari forma nola eman aurten. Eskolak informazioa eskatu du eskola kirola egiteko interesa duten neska-mutikoak zenbat diren jakiteko.

Helduendako kirol eskaintzako saioak hilaren 28an hasiko dira. Izen-ematea zabalik da. Helduendako tai txi saioak, berriz, astelehenean hasiko dira, 18:00etan, squash kantxan.

Omenaldirik ez gerrako umei, baina Memoria Astea bai

Apirilean zen egitekoa omenaldia, baina pandemiak eraginda urrirra atzeratu zuten antolatzaileek. "Gaur egungo egoeran ere segurtasun baldintzak beteta omenaldirik ezin dugula egin ikusita, bertan behera uztea erabaki dugu", adierazi dute Intxorta 1937 kultur elkarteak eta Elgetako Udalak. Hala ere, Memoria Astea egongo da, eta

lau ekintza iragarri dituzte. Eguaztenean, hilak 23, *Elgetarrak historian* liburua aurkeztuko du Manolo Cainzosek. Eguenean, hilak 24, Aiert Zubigarainen *Emakumeon memoria 1937* liburua aurkeztuko da.

Hurrengo astean, *Goazen gabiari danok* dokumentala emango dute martitzenean, eta urriaren 1ean *Debagoieneko haur erbesteratuak* hitzaldia egingo du Juan Ramon Garaik. Saio guztiak Espaloia kafe antzokian izango dira, 18:30ean.

Bertso saioa, gaur gauean, Espaloian

Igor Elortzak, Oihana Bartrak, Maialen Akizuk eta Beñat Mujikak egingo dute bertsotan. Gai jartzailea, berriz, Unai Elizasu izango da. Udalak antolatutako bertso saioa da, eta 22:30ean hasiko da. Sarrera 5 euro da. Toki mugatua egongo dela eta distantziak zaintzea eta maskara erabiltzea ezinbestekoak izango direla azpimarratu dute antolatzaileek.



Igor Elortza, Oñatin, bertsotan. GOIENA

Elgetarrak, gaur, Bergarako frontenis txapelketako finalean

Elgetarra izango da emakumezkoen finala; izan ere, aurrez aurre izango dira Mireia Rubio-Maitena Mañarikua eta Iratxe Bravo-Miren Argi Zeziaga bikoteak. Lehen eta bigarren faseetan bikain aritu ostean, Angiozarko frontoian jokatu dute finala, 20:30ean. Gizonezkoen finala ere egun eta leku berean jokatu da.


OHARRAK

Podologoia

Podologoaren hileko bisita hilaren 21ean izango da, astelehena. Kultura etxean, 15:00etatik aurrera.

Baserriko plastikoa

Debagoieneko Mankomunitateak hilaren 22an egingo du bilketa zerbitzua. Nahitaezkoa da aurrez eskatzea. Deitu 943 76 25 47 telefono zenbakira.



Alfonso Suescun erloju-konpontzaile gasteiztarra, Elgetako kanpandorreko erlojuaren makineria aztertzen. IMANOL BELOKI

L.Z.L. / Imanol Beloki ELGETA

Garai batean, eskumuturreko erlojua gutxi batzuen pribilegioa zen, eta kanpandorreko erlojuak markatzen zuen denbora herri-tar gehienendako. Ez hori bakarrik: alerta-deiak, jaiotzak, heriotzak... Komunikazio modu bat ere bazen herriko erlojua.

Gaur egungo elgetarrek gehiago erabiltzen dituzte eskumuturreko erlojuak edo gailu elektronikoetakoak, baina kanpandorrekoak martxan jarraitzen du. Herriko erlojua da eta egunez zein gauez jotzen du.

Jotzen zuen, hobeto esanda; izan ere, duela astebete pasatxo geratu, eta isilik gelditu zen. Erlojua Udalarena da, eta espezialista baten iritzia eskatu dute.

Matxura elektrikoa

Bi motorretako bat matxuratu zaio. Hala esan du Gasteizko erloju-konpontzaile Alfonso Suescunek. Espezialista da antzerako erlojuetan, eta martitzenean izan zen Elgetako kanpandorrean. Udal brigadako langile Enrique Perez Arantzeta Txikiturri-rekin batera igo zituen kanpandorrera iristeko dauden 112-114 mailak; izan ere, bertan daude bai kanpaiak, bai erlojuaren mekanismoa. "Matxura oso larria ez bada lortzen dugu berriz ere abiaraztea, baina oraingoan espezialista baten esku-hartzea behar izan dugu", azaldu du langileak. "Oso ondo ibili da urte askoan. Suescunek dio duela zortzi urte egon zela

Orratzak geldi kanpandorrean

Astebete pasatxo da kanpandorreko erlojua geldirik eta isilik dela. Mende erdi inguruko ia atsedetik gabeko lanaren ostean, bi motorretako bat matxuratu zaio. Aritu bat izan da azterketa egiten; erloju ona eta iraunkorra dela esan du

hemen azken aldiz". Erlojua atzeratzen edo aurreratzen bada, pisuak nibelatu eta brigadakoek jartzen dute puntuan. "Udazkeneko eta udaberriko ordu aldaketak ere guk egiten dizkiogu. Horretarako ez dauka misterio

handirik", dio Txikiturri-k. "Eda-deko jendeari gustatzen zaio ordularia martxan egotea. Berehala konturatzen dira zerbait bada. Gazteak, ez dakit. Zarata dela-eta badaude kanpai-hotsak kentzeko eskaerak ere. Inbertsio

handia egin behar da, ordea, bakarrik egunez jotzeko, eta, nire ustez, erlojua bizi guztian egon da hemen". Bi motor berriak hamar bat eguneko epean egongo dira prest. Orduan jarriko dute erlojua, berriz ere, martxan.

Han goian, kanpaien ondoan

Kanpandorreko gela txiki batean dago erlojuaren mekanismoa. Espazio txikia da eta orduak, ordu erdiak edo ordu laurdenak direlako kanpaiak martxan jartzen badira, komeni da belarriak babestea. Pisuak metalezko bi pilota handi dira, eta gora eta behera ibiltzen dira dorrean, erlojuaren erritmoa markatuaz. Kanpotik ikusten ez diren osagaiak dira horiek.



Suescun, brigadako Enrique P. Arantzeta-rekin kanpaien egoera baloratzen. I. B.



IMANOL BELOKI

"Zalantzarik gabe, erloju ona da"

ALFONSO SUESCUN
ERLOJU-KONPONTZAILEA

50 bat urte dituen erlojua da Elgetako kanpandorrean dagoena. Gasteizko Murua etxekoa dela dio adituak.

Ze ezaugarri ditu?

Sistema elektromekanikoa du. Ordularia mekanikoa da eta bere pendulua du, baina bi motor elektriko ditu pisuak igotzen laguntzeko. Kanpai-hotsei dagokienez, orduak, erdiak eta laurdenak jotzen ditu. Laurdenetan bi kanpai-hots ere jo ditzake, baina horretarako hirugarren kanpai bat beharko luke. Badago ipintzeko aukera. Ziurrenik, aurrekontu kontuengatik edota zarata gutxiago egiteko, laurdenetan kanpai-hots bakarra dauka ipinita. Zalantzarik gabe, erloju ona da.

Matxuratzea gauza ohikoa da?

Bi motor elektrikoetako bat hondatu da. Horiek barik eskuz igo behar dira pisuak, eta lan benetan nekeza da. Hala, erlojuak dituen osagai guztietatik modernoena apurtu da. Bi motorrak garai berekoak izanik, bestea ere hortxe-hortxe egongo da. Baina sistema mekanikoa bikain doa. Urte hauetan guztietan higadura gutxi batzuk besterik ez ditu izan, eta pieza oso konkretuetan. Mantentze egokiarekin 200 edo 400 urte iraun dezakeen erlojua duzue Elgetan.



Ume kuadrilla bat herriko plazan. O.E.

Mugikortasun iraunkorra lantzeko ekintzak bihar

Oñatin mugikortasun iraunkorraren alde zer egin jasotzeko ideia lehiaketa martxan jarri dute aste honetan, eta biharko, bizikleta martxa eta mural bat egiteko ekintzak antolatu dituzte. Tokiko Agenda 2030 egitasmoarekin bat egiten dute horiek

Oihana Elortza OÑATI

Mugikortasun iraunkorrean herritarrek sentsibilizatzeko eta gai horretan pauso berriak emateko helburuarekin antolatu dituzte biharko ekintzak eta martxan dagoen ideia lehiaketa.

Izena eman behar da aurrez

Europako mugikortasun astearekin bat eginez urtero antolatu izan ohi dituzte ekintzak Oñatin, izan eskolara oinez zein patinetean joateko egitasmoak bultzatzea edo erdiguneko kaleak ibilgailuendako ixtea, adibidez. Aurten ere egingo dituzte ekintzak aste hori aitzakia hartuta, eta mugikortasun iraunkorra azaltzeko eta umeekin zein helduekin lantzeko izango dira.

Horietako bat da aste honetan martxan jarri den ideia lehiaketa: Oñatin mugikortasun iraunkorraren bueltan zer egin daitekeen jaso gura dute lehiaketa horren bidez. Proposamenak irailaren 22ra arte egin daitezke Udalaren webgunearen bitartez.

Ekarpenak egiten dituzten guztien artean bizikleta tolesgarri bat zozkatuko dute irailaren 23an. "Mugikortasun iraunkorrean oinezkoak eta bizikletak modu seguruan ibiltzeko aukerak lehenesten dira, adibidez. Baita garraio publikoa erabiltzea edo autoa behar denean partekatzea, ahal den guztietan", azaldu du ekintzak antolatu dituen Arazi enpresako Nerea Ibañezek.

Bihar, zapatua, beste bi ekintza egingo dituzte. 11:00etan Usakora egingo dute irteera bizikletan, familiekin, eta arratsaldean, 15:30etik aurrera, mural bat egingo dute 6 eta 10 urte arteko gaztetxoekin. "Herriko plazan bost metro zabal izango

MURALA EGITEN DUTEN BITARTEAN GAIK BERBA EGINGO DUTE BEGIRALEEK UMEEKIN

dituen euskarri bat jarriko dugu. Herriko kaleen plano egongo da bertan marraztuta. Herritar batzuk bizikletan, beste batzuk oinez, ibilgailuak... eta antzerako elementuak egongo dira eta umei proposatuko diegu elementu horiek moztu, margotu eta itsastea mural horretan. Begirale batzuen laguntza izango dute eta jolas hori egin bitartean solasaldiak izango dituzte eurekin", dio Ibañezek. Informazio mahaia ere jarriko dute plazan.

Tokiko Agenda 2030ean

Ekintzetan talde mugatuak egongo dira, eta, horregatik, aurrez izena ematea eskatzen dute. Udal webgunean sartuta eman behar da izena baterako zein besterako. Oñatiko Tokiko Agenda 2030 egitasmoarekin batera datoz ekintza horiek. Izan ere, mugikortasuna eta jasagarritasuna lehentasuna duten gaien artean ditu Udalak eta bere lan-ildoetako bat da.

Lesbos-era dirua bidaltzeko kanpaina abiatu du Hotz Oñatik

'Lagundu laguntzen' du izena eta bildutako diru guztia Lesbosen dauden boluntarioei bidaltzeko izango da

O.E. OÑATI

Lagundu laguntzen du izena Lesbos (Grezia) uhartera dirua bidaltzeko Hotz Oñatik jarri berri duen kanpainak. Lesbosen lanean ari diren gobernuz kanpoko erakundeak diruz laguntzako kanpaina da, zehazki. Bideo bat egin dute hango irudiekin eta hainbat oñatiarrek hartu dute parte bideoan diru-laguntza eskaria egiten. Dirua batzeko kontu korrante bat (ES08 3035 0005 3300 50078053) eta Bizum-erako zenbaki bat (620 13 28 21) eman dituzte..

Haur sahararentzat laguntza

Pandemiaren ezohiko egoeraren ondorioz, bertan behera gelditu da Oporrak Bakean proiektua eta haur sahararrak ezin izan dira hona etorri. Horri aurre egiteko, Bergarako Bubishi elkarteak egindako laguntza deialdiarekin bat egin du Hotz Oñatik eta Saharako umeendako osasun eta eskola materiala eta 9 eta 16 urte bitarteko umeendako neguko arropak batzen hasi dira Hermansoloñako lokalean, 11:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 19:00etara.

Errefuxiatuen gaia jasotzen du aurtengo eskolako agendak

Larraña harrera etxean daudenekin landutako eskola agenda banatu zaie aurten herriko ikasleei: 1.500 ale 6-18 urte bitarteko ikasleen artean banatzeko. Errefuxiatuen gaia jorratu zuten iaz LHko 5. mailako ikasleek Mirari Sagarzazurekin bertsoarritza klasean, eta Larrañatik joandakoen bisitetatik ateratako ideiak jaso eta ilustratu dituzte agendan.



Eskola agendaren azala.

Oñatiko emakume migratuen egoera aztertzen hasi dira

Claudia Serna abokatuak egingo du datu bilketa eta diagnosis, eta urtarrilerako bukatu gurako luke lana

O.E. OÑATI

Oñatiko emakume migratuek dituzten beharrak ezagutu, sareak sendotu eta parte hartze sozial eta politikoa indartzea da lan horren helburua. Eta dagoeneko hasi dira lana egiten.

Jatorriz kolonbiarra eta egun Oñatin bizi zen Claudia Serna abokatuak egingo du diagnosis. Uztailen egin zituen lehen kontaktuak herriko emakume migratuekin, eta hilabete honetan, irailean, hasiko da eurekin berba egin eta datuak jasotzen. Taldeko zein bakarkako elka-

rrizketak egingo ditu, eta baita inkesta batzuk ere. Asmoa da lana urtarrilerako amaituta izatea. Ahalik eta emakume gehienengana iritsi gura du Sernak. Diagnosis parte hartu gura duten emakumeek 661 00 99 32 telefono zenbakira deitu dezakete, edo Udaleko Berdintasun Sailera deitu: 943 78 04 11.

Hain zuzen ere, Udaleko Berdintasun Sailak emandako dirulaguntza jaso du proiekturako Arrasateko IMME elkarteak, emakume musulmanak Euskal Herrian integratzeko elkarteak.

Urbiako fonda: mendea betetzeko bost urte faltan

Ermita inauguratu zuten egunean jarri zuten lehen harria eta urtebete eskasera zabaldu zuten, 1925eko abuztuaren 30ean. Artzainen eta mendizaleen babesleku izaten jarraituko du datozen urtetan ere, "pozik" daude-eta egungo jabeak

Oihana Elortza OÑATI

Urtarrilean 22 urte beteko dira Ruper Altzelaik, Aritz Altubek eta konpainiak Urbiako fondaren ardura hartu zutenetik. Fonda bera, baina, zaharragoa da: 95 urte bete dira zabaldu zutela abuztuaren 30ean. Bost urte falta dira, beraz, lehen mendeurrena ospatzeko.

Topaleku ezaguna

Urbiako ermita inauguratu zuten egunean jarri zuten fondako lehen harria eta handik urtebete eskasera zabaldu zuten. Mendizaleen eta artzainen babesleku izan da beti eta horrela jarraitzen du egun, Aritz Altubek baieztatu duenez: "Artzainak bertan elkartzen dira askotan eta mendira datozenak ere bai; izan mendizaleek, izan beste kirol bat egitera datozenek ere ondo ezagutzen dute". Ostatu zerbitzurik ez izan arren, galduta edo berandututa dabilzanezi lo egiteko tokia ere uzten diete orain-



Aritz Altubek eta Ruper Altzelaik fondako barraren atzean. JOSE MARI ANDUAGA

dik. "Ohitura horrekin jarraitzen dugu egun. Joan den urteko udara arte erabilgarri zeuden logelak, baina, eraikinaren zati handi bat eraberrituta dagoen arren, taberna eta sukalde aldea, esaterako, logelen sabaia, pare-

tak eta leihoak hasierakoak dira, 95 urte dituzte, konpondu beharrean daude. Badugu horretarako asmoa, baina ikusiko dugu bizi dugun egoera honek noiz arte irauten eta zer ekartzen digun", dio Altubek.

Hiruzpalau jabe izan ditu

Izan ere, pandemiaren eragina Urbian ere nabaritu dute. Murturreko egoera biak ezagutu dituzte, gainera: "Pandemiako arau zorrotzen aste horietan geu bakarrik egon ginen hemen, inor ez genuen ikusten. Inoiz bizi gabeko egoera izan da hori, hona egunero dator-eta bateren bat. Fase aldaketak egon ahala jendea etortzen hasi da eta etxetik irteteko baimena eman eta hurrengo bi asteburuetan zoramena izan zen. Jende pilo a etorri zen. Egund ere, mendian maskara beharrik ez dagoelako-eta, jende asko etortzen da eguraldi ona egiten duenean, baina talde txikietan egon behar dute oraindik, distantziak mantenduz... Ahal dugun guztia egin dugu guk, eta, egia esan, jendea oso ondo ari da portatzen, eskertzerako da hori". Altubek gaineratu du aurtengo udan Urbian ez ezik Aizkorriko aterpetxean ere jende asko ibili dela, "20-25 laguneko kuadrillak joan dira ia egunero gaua pasatzera. Ez bakarrik Oñatitik, baita Zegamatik eta Araiatik ere".

Altubek azaldu duenez, hiruzpalau jabe baino ez ditu izan Urbiako fondak 95 urte hauetan. "Partzuergoak Pedro Etxezarreta eta Ilari Muñoa senar-emazteei saldu zien eraikina haren eskutian egon da 1993. urtera arte; Martin eta Justa Etxezarreta anai-arrebek izan zuten ardura

ordura arte, Martinen emaztearekin batera. Urte hartan, Patxi Alustizari saldu zion Martinek. Alustizak hainbat eraberritzelan egin gura zituen eta Partzuergoak eraikina berreskuratu gura zuen berriz, eta ikamikak egon ziren, eraikina Alustizarena izan arren lurrak Partzuergoarenak zirelako. Fonda itxita ere egon zen bizpahiru urtez 1990eko hamarkadaren hasieran. Azkenean, akordioa egin zuten Alustizaren familiak eta Partzuergoak: hainbat urtetarako kontzesioan hartzea. Eta horrela izan zen. Guk hartu genuen akordio hori sinatuta zegoela hartu genuen".

Mendeurrena

Bost urte falta dira mendeurrena ospatzeko eta data urruti ikusten du Altubek oraindik, baina ospakizunen bat egingo dutela uste du. Seguru lagun asko elkartuko direla egun horretan ere; tartean, domekero edo egunero Urbiara joateko ohitura dutenak. Bitartean, hantxe izango dira Altzelaik, Altube eta inguruan izaten dituzten laguntzaile guztiak, hara doazenei zerbitzua eskaintzen.

INOR EZ EGOTETIK ZORAMENA IZATERA PASA DIRA PANDEMIKO FASE EZBERDINETAN

OHARRAK

Hikalaguna bilera

Hikalaguna berriz martxan jartzeko bilera egingo dute gaur, egubakoitza, 18:00etan, berdura plazan.

Letxuga landaketa

Letxuga landaketa eta zirku tailerra egingo dituzte gaur arratsaldean San Martinen, Txaloka ludotekako hezitzaileak gidatuta. 16:30etik 19:30era izango da.

Plastiko bilketa

Martitzenean, irailak 22, egingo dute baserri eta landa inguruetan sortzen den plastikoaren bilketa. Plastikoa arratsaldean utzi behar da ohiko puntuetan, jasotzeko prest egon dadin.

Aisialdiko begirale ikastaroa euskaraz eskainiko dute

Aisialdiko begirale titulu ofiziala lortzeko ikastaroa eskainiko dute Oñatin, euskaraz. Urritik maiatzera bitartean izango da, zapatuetan, 09:00etatik 15:00etara; 150 ordu teoriko eta 160 praktika ordu. Parte hartu ahal izateko baldintza bakarrak dira: atal teorikoa burutzen denerako 18 urte beteta edukitzea eta DBHko graduatu titulua izatea dira. Ikastaroaren matrikula 500 euro da, baina Oñatiko Udalak dirulaguntzak emango ditu: langabe edo ikasle direnei matrikularen %75 eta gainontzekoei, matrikularen %50.

Hilaren 22an informazio bilera egingo dute zinema aretoan, 18:00etan.

Igeldon sendatutako bi zapelatz askatuko dituzte Arantzazun

Igeldoko Arrano etxean sendatutako bi zapelatz askatuko dituzte zapatuan, irailaren 19an, Arantzazun. 11:00etan izango da ekitaldia eta aurrez izena eman behar da, hiru euro ordainduta –pertsoneko–. Izena emateko edo informazio gehiagorako, deitu 943 78 28 94 edo 688 89 50 69 telefonoetara edo idatzi arantzazu@gipuzkoanatura.eus helbidera.

Izena aurrez ematea ezinbestekoa da, eta, horretaz gain, hainbat osasun neurri hartuko dituzte: segurtasun distantziak mantenduko dituzte; gel hidroalkoholikoa emango dute; eta maskara janztea derrigorrezkoa izango da.

GORA ETA BEHERA



Kakaz zikindutako fardela lurrean

Harritura gelditu zen herritar bat lurrean ikusi zuenarekin: kakaz zikindutako umeen fardel bat lurrean botata: "Hantxe, lurrean, erdi-erdian". Tamalez, sarri ikusten dira zikinak lurrera botata, dagokien edukiontzietara bota beharrean, baina holakorik gero!".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.





Joan den denboraldi amaieran kantxa urdinean egindako opari banaketa. M.R.

Eskola kirola eta kirol eskola, geldi Oñatin

Talde egonkorak ezin dituzte bermatu Oñatiko eskola kirolean, eta urrian ez hastea erabaki dute. Aloña Mendi Kirol Elkarteak ere geldi ditu sail guztietako kirol eskolak. Urriaren hasieran egingo dute hurrengo bilera, egoera aztertzeko

Oihana Elortza OÑATI

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola kirola egiteko baimena eta baldintzak eman ditu. Urriaren lehen hasi ahal dira gaztetxoak kontaktu fisiko bako eskola kirola egiten. Lehiaketak urtarrietik aurrera izango dira. Oñatin, baina, ez da urrian hasiko. Ikasturte honetako hasiera atzeratzea erabaki du Oñatiko eskola kirolak.

Egutegiak prest daude

Atzeratzearen arrazoiak bat talde egonkorrena da. Hezkuntzaren protokoloak jarraitzen dituzte ikastetxeetan, talde egonkorak mantentzeko ahalegina eta egokitzapena egin dute ikas zentro guztietan, eta eskola kirolean hori ez da betetzen. Eskola kiroleko saioetan gela eta, zenbaitetan, ikastetxe ezberdinetako umeak egoten dira maiz talde berean. "Ezin dugu bermatu talde egonkorak egongo direnik. Ikusiko dugu egoerak nola egiten duen aurrera eta

ikastetxeetan zein eboluzio duen eta horri begira egongo gara erabakiak hartzeko", dio Oñatiko eskola kiroleko udal teknikariak, Rosa Lasagabasterrek.

Urriaren hasieran beste bilerara bat egingo dute eskola kiroleko teknikariek, koordinatzaileek eta ikastetxeetako ordezkariak. Sarri egingo dituzte bilera horiek, egoera aldatzen dela ikusten badute aurtengo kurtsoa ere martxan jartzeko.

Izan ere, nahiz eta hasiera atzeratu, prest dute aurtengo ikasturteko egutegia. Haur Hezkuntzako azken mailatik Lehen Hezkuntzako azkenenerainoko ume eta gaztetxoek parte hartuko dute eta sei gune ezberdinetan egingo dute eskola kirola:


IKASTETXEETAKO EBOLUZIOARI BEGIRA EGONGO DIRA HURRENGO ERABAKIAK HARTZEKO

Zubikoa kiroldegiko kantxa berdean eta urdinean, Zuazola institutuan, Urgainen, Elkar Hezin eta Txantxiku Ikastolan. Kirol egokitua egiteko tartea ere badago egutegian.

Azken ikasturtean 532 ume aritu ziren eskola kirolean. Martxotik ekainera etxean jarraitu zuten egiten, euren propio prestatutako kirol proposamenei eta erronkei erantzunez.

Aloña Mendi ere ez

Eta egoera berean dago herriko kirol eskola ere. Aloña Mendiko sail guztietako kirol eskolak geldi daude; horiek ere ez dira urriaren hasieran hasiko. Izenemateak bertan behera utzita daude, momentuz. Datozen asteetan ikastetxeen eta eskola kirolaren garapenaren arabera hartuko ditu erabakiak Aloña Mendik. Egutegia, baina, prest du: kirol elkarteko bederatzi sailek jarriko dute martxan hasi berri den ikasturte honetako kirol eskola.



Danel Casais helmugara sartzen joan den zapatuko lasterketa amaieran. I.S.

Joan den astekoa gogoan dutela lehiatuko dira asteburuan

Mikel Deuna saria da bihar Oñatin eta bakarkako erlojupeko Gipuzkoako txapelketa domekan Alegian

O.E. OÑATI

Asteburuan izango diren hiru probatan izango dira Oñatiko txirringulak. Biharkoa, zapatua, gainera, Oñatin izango da: Lehendakari Txapelketan sartzen den Mikel Deuna saria. 23 urte azpikoek hartuko dute parte hor.

Sei oñatiar lasterketetan

Gaizka Maiztegi (La Torre) eta Xabier Murgiondo (Laboral Kutxa) oñatiarrek parte hartuko dute biharko lasterketa horretan. Unibertsitateko etorbidean hasi eta bukatuko da lasterketa. 100 kilometro izango ditu eta, Bergararik eta Zubillagatik ez ezik, Udantatik, Gabiriatik, Lierni gainetik, Mutiloatik, Zeraindik, Torreazotik eta Arregi gainetik ere pasako dira txirringulak. 10:00etan izango da lasterketaren hasiera. Gazteak izango da inkskripzioak egiteko tokia.

Domeka goizean, berriz, bakarkako erlojupeko Gipuzkoako txapelketa izango dira Alegian. Eta han ere izango dira txirringulak oñatiarrak. Mutiletan, gazte mailan, 10:00etan abiatuko da lehenengoa. Unai Cueva, Aimar Erostarbe eta Danel Casais, hirurak Ulma etxekoak, han izango dira. Emakumezkoena 11:00etan hasiko da. 23 urte azpikoek eta gazte mailakoek hartuko dute parte hor. Garazi Erostarbe (Sopela) laugarrena izango da irtetan.

Casais, helmugan lehena

Joan den zapatuan, Mikel Deuna saria jokatu zen Oñatin eta Danel Casais izan zen azkarrena; lehen oñatiarraren saria ere berak eraman zuen. 15 kilometroan utzi zuen tropela atzean beste lau txirringularen batera, eta azken kilometroetan egin zuen ihesaldia Casaisek.

Zinema aretoaren edukiera lehengoaren erdia da orain

Zinema denboraldia hasita dago, baina orain, lehen baino garrantzitsuagoa da sarrera aurrez eta ahalik eta azkarren hartzea, aretoaren edukiera erdia da eta orain: 64. Sei hilabetez egon da itxita zinema aretoa eta joan den astean ireki zituen atek. Umeena eta zinekluba urrian hasiko dira. Asteburuan, *Que suene la música* eskainiko dute.

Ondarearen Europako Jardunaldietan sartu da berriz Oñati

Aurten ere antolatu ditu Ondarearen Europako jardunaldiak Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta aurten ere Oñati dago irteeraren egutegian. Oñatiko hiru toki bisitatzeko proposamenak jaso dituzte liburuxkan. Arrikruzteko Kobak ikustekoa bihar izango da, 10:00etan. Urrian egingo dituzte beste bi, biak unibertsitate hobeto ezagutzekoak.

ASTE HONETAN

Mirari Martiarena

Umoregilea

**"Umoretik iraultza egin
behar dugu"**

ttop

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.


DOAN

Euskarazko aldizkari digitala,
deskargatu astero zure
mugikor edo tabletan

 **DESKARGATU**
Play Store-n

 **DESKARGATU**
APP Store-n





16. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Irailaren 21era arte bidal
ditzakezu zure argazkiak!



VIEUX-BOUCAU INGURUAN | Argazkia: Ane Lizarralde Zubimendi



UDALATX | Argazkia: Iker Zubizarreta Iturbe



LA RATERA LAKUA | Argazkia: Edurne Iñarra



ARNIA HONDARTZA (SANTANDER) | Argazkia: Ana Aramburu




MUNDAKAKO PORTUAN | Argazkia: Ibon Leibar Belastegi



TXIKIENA BASERRIA (AREANTZA) | Argazkia: Joxemiel Uribarren



ANIE, FRANTIZA | Argazkia: Julen Axpe Alonso



JOLASEAN (SIURANA) | Argazkia: Olatz Sanz Errasti

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA


LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante · Jatetxea

ARRASATE BIDAIAK

BERGARA
**EREIN
DA
JAN**




JAIZKIBEL | Argazkia: Uxue Otxoa Alberdi



HIGER ITSASARGIA (HONDARRIBIA) | Argazkia: Bea Galdos Beloqui



SURF EGITEN IKASTEN (HENDAIA) | Argazkia: Angel Ayastuy Guridi



KATEDRALEN HONDARTZA | Argazkia: Arane Zubia Gainzarain



ELOSU ERREKA | Argazkia: Ayron Stiven Ramirez



LOGELA ZABALA (AHAGGAR, SAHARA) | Argazkia: Josean Larrion



IBON DE ACHERITO | Argazkia: Pitxi Aramaio

Sariak

LEHENENGO SARIA: Samsung Galaxy A20e smartphonea, Eroski Arrasateri esker.

BIGARREN SARIA: Bi pertsonarendako bazkaria edo afaria Gure Ametsa jatetxean.

HIRUGARREN SARIA: Zumaiako Zelai Talasoterapian bi pertsonarendako zirkuitu termala eta Zelai menua, Arrasate bidaiei esker.

PUBLIKOAREN SARIA: Bergarako Ereindajan-en eskutik bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.

Oharra: Publikoaren saria bozkatzeko epea irailaren 25etik 30era zabalduko da 'Goiena.eus'-en.

Egin klik eta bidali **poltsikoko telefonoarekin, argazki kamerarekin edo tabletarekin ateratako udako argazkiak!**

Posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu argazkiak!



Argazki guztiak
hemen: [Goiena.eus/
bereziak/16-udako-
argazkien-lehiaketa](http://Goiena.eus/bereziak/16-udako-argazkien-lehiaketa)

"Sevillan lortzen dudana urtea borobiltzeko da"

ENEKO CARRASCAL REAL SOCIEDADEKO ATLETA

ATLETISMOA Madrilen jokaturako Espainiako Txapelketa absolutuan marka pertsonala lortu du salto hirukoitzean (15,90); bi aste barru, domina bila joango da Sevillara

Xabier Urzelai ARRASATE

Derrigor bete behar dituen segurtasun neurriak hartu ditu Eneko Carrascal (Arrasate, 1999) entrenatzen hasteko, baina eguaztenean, bero itogarria lagun, bakarrik ibili zen Mojategin. Gainontzeko atletendako asteburuan, Madrilen, amaitu da denboraldia. Seguruenik, Carrascal da Espainiako Txapelketa absolututik pozik itzuli den bakarra; marka pertsonala egin du salto hirukoitzean (15,90) eta Sevillan, irail amaieran, domina jantzi nahi du. Aukeran, urrezkoa.

Gustura etorri zara Espainiako Txapelketatik.

Bai, oso sentsazio onak izan nituen eta marka pertsonala egin ahal izan nuen, laugarren sailkatuta. Ez da izan urte batera erraza eta bai salto hirukoitzean eta baita luzera saltoan (7,41) marka egitea lortu dut. Neguan lesio batetik nentorren, eta, hala ere, marka ona egin nuen, pista estalian ondo ibili nintzen, eta hori seinale ona izaten da aire libreria begira.

Denboraldi xelebrea izan duzue, Espainiako Txapelketa uztailean beharrean irailean...

Bai, eta txapelketa hau prestatzea ez da batera erraza izan, bereziki psikologikoki izan da zaila. Pentsa, uztailean bagenekien txapelketako eguna jarrita zegoela, baina, abuztuan oporrak izan beharrean hilabete osoa entrenatzen ibili eta gero, COVID19agatik azken orduan txapelketa bertan behera utziko balute? Tristeia izango litzateke gero, abuztuan atsedetik hartu ez, gogor entrenatzen ibili, irailan sasoi betean egon, eta txapelketarik ez izatea.

Ze eragin izan du pandemiak zuen denboraldian?

Eragin handia izan du, ziurgabetasun handia egon da. Pentsa, gurekin batera Espainiako Txapelketan aurrean ibiltzen diren



Eneko Carrascal, aste barruan Mojategin. X.U.

"UDAN ENTRENATZEN IBILI GARA, TXAPELKETA EGIN AHAL IZANGO GENUEN JAKIN BARIK"

bozpasei atleta min hartuta daude, denboraldiari neurria hartu ezinik ibili direlako. Konfinamenduaren ostean behar den moduan entrenatu ez dutelako, pisuarekin arazoak izan dituztelako, oinarria landu beharrean kalitatezko entrenamenduak azkarregi hasi dituztelako... Batek daki zergatik, baina min hartuta daude. Gure egutegia erabat irauli da, eta gu saiatu gara burua ez galtzen. Abuztuan, esaterako, erabaki genuen astebete atseden hartzea, erabat deskonektatzea. Eta ondorengo asteetan ondo entrenatzen ibili naiz, fresko egon naiz, eta sasoi puntu onean iritsi naiz hitzordura.

Halako urte gorabeheratsua izateko marka egitea ez da, ba, erraza izango...

Atletok sarritan esan ohi dugu markak gutxien espero duzunean

azaltzen direla. Noski, aurretik ondo egin behar da lan.

Oraindik, baina, ezin duzu atsedetik hartu: irailaren 26ko eta 27ko asteburuan Sevillan lehiatuko zara; bi modalitatetan, gainera.

Halaxe da. Salto hirukoitzean eta luzera saltoan jardungo dut. Zapatuan izango dut lehenengo txapelketa eta domekan bestea. **Eta batetik bestera ondo errekupe-ratzen zara?**

Luzera saltoan ez naiz horrenbeste nekatzen; salto hirukoitzean, ordea, gehiago kostatzen zait errekupe-ratzea. Izan ere, luzera saltoan inpaktu bakarra egoten da, baina salto hirukoitzea gogorragoa da gihar eta tendoindako, gehiago sufritzen dute. Esaterako, asteburu berean ezingo nituzke salto hirukoitzeko bi txapelketa egin, baina, bigarren egunean luzera saltoa badut, ondo moldatzen naiz. Txapelketako tentsioak berak ere neke handia sorrarazten du. **Salto hirukoitzean gertu duzu 16 metroko marka.**

Bai, inoiz baino gertuago ikusten dut, eta Sevillan ahalegin-duko naiz marka horretara gehiago gerturatzen. Marka hori lortzen dudanean egia da libe-

razio moduko bat sentituko dudala, hamasei metroko saltoa egitea jada bada marka txukun bat.

Ondoan baduzu langa hori gainditu duenik [Iñigo Urribarrenek 2016-2017a denboraldian 16,17ko marka egin zuen pista estalian].

Iñigo ondoan izateak asko laguntzen dit. Elkarrekin entrenatzeko, batak bestea motibatuzeko, akatsak zuzentzeko, gomendioak emateko... Entrenatzen pike onak izaten ditugu elkarren artean, askotan larregi [Barreak], eta horrek ere saltsa jartzen dio eguneroko lanari.

Luzera saltoaz gutxi egin dugu berba. Uztailean 7,41eko marka egin zenuen, eta hori da 23 urtez azpikoetan, aire librean, Espainiako urteko saltorik onena, maila absolutuan bosgarrena.

Luzera saltoan ere txapelketa ona egin gura dut Sevillan. Hor Hector Santos da kontrariorik gogorrena, hura da erreferentea, dagoeneko zortzi metroko marka egin du eta besteok baino koska bat gorago dago. Baina bizkarreko arazoekin dabil eta min hartuta dago, ez da txapelketan egongo. Ea hor ere aurrean ibil gaitezkeen. Azken batean, oraingo asteburuan Madrilen egindakoarekin eta pista estalian lortutako markekin denboraldia ontzat ematen dut. Helburuak bete ditut. Azken ahalegina geratzen zait, eta Sevillan lortzen dudana urtea borobiltzeko izango da.

Marketatik urrun ibili dira

Arrasateko atletek ez dute, orokorrean, azken asteotan erakutsitako maila Madrilgo hitzorduan berretsi. Pertikarekin Malen Ruiz de Azuak zilarra irabazi zuen (4,22), baina irailaren 5ean, esaterako, 4,35eko marka egiteko gauza izan zen. Maialen Axpe, berriz, bosgarren izan zen (3,97).

Istar Dapena ere bere marka onenetatik urrun ibili zen, eta 4,96ko saltoa eginda seigarren sailkatu zen. Eta salto hirukoitzean Iñigo Urribarren 9. postuan sailkatu zen (14,68).

ESKALADA Oraingo, ez dituzte eskolak emango

Debagoiena eskalada eskolakoek bertan behera utzi dituzte 2020-2021 ikasturtean eman beharreko eskaladako ikastaroak. "Egoerak hobera eginez gero, urtarrilerako aztertuko genuke ikastaroak antolatzea berrituko", adierazi dute klubetik. Informazio gehiago gura duenak debagoiena.eskalatzaileak@gmail.com helbidera idatzi dezake.

TXIRRINDULARITZA

Amateur mailako ziklistak, Oñatin

Lehendakari Txapelketa barruan egutegiko azken lasterketa jokatu dute asteburuan Oñatin. Mikel Deuna lasterketak aukera emango die ziklistei proba oso gutxi izan dituzten denboraldi hau borobiltzeko. 10:00etan hasiko da lasterketa eta Atagoitiko, Aztiriako eta Udanako gainak gainditu beharko dituzte (Informazio gehiago 34. orrian).

SASKIBALOA Ointxe!-k urrian abiatuko du saski eskola

Eskola kirolean ez dituzte lehiaketak urtarrilerara arte hasiko, eta ez dituzte adin txikietako entrenamenduak hasi. Euren asmoa da urrian hasiera jarduerak, kirol-praktikara mugatuz, kontaktu fisikorik gabe eta ingurune seguruetan. Hala, datoren hilabetera begira Ointxe!-k zabaldu du izen ematea. Informazio gehiago, Ointxe.eus atarian.

MENDIKO BIZIKLETA

Mondranbike martxa, bertan behera

Udazkena, besteak beste, mendiko bizikleta martxak egoten diren sasoi izaten da bailaran, baina, COVID-19a dela-eta segurtasun neurriengatik, Besaide mendi elkartereko lagunak adierazi dute aurten ez dutela Mondranbike bizikleta martxa antolatuko. "Pena handiz, baina aurtengo edizioa bertan behera utziko dugu", adierazi dute.

Inoizko denboraldi-aurre luzeena dabilta egiten

Bailarako kirol talde guztiak segurtasun neurriak zainduta baina 'normaltasunez' dabilta entrenatzen. Hori bai, pandemiak inoizko denboraldi-aurre luzeena ekarri die, txapelketa gehienak urrian hasiko dituzte eta; hasi dira lagunartekoak jokatzen

X.U. ARRASATE

MU da, talde moduan, 2020-2021 denboraldi honetan lehian hasiko den lehena. Euskal Kopako lehen jardunaldia jokatuko dute asteburuan Baskoniaren kontra (Informazio gehiago 14. orrialdean), baina gainontzeko kirol jardueretan orain hasiko dituzte lagunarteko partiduak jokatzen, gehienek urrian hasiko dituzten ligak prestatu egin behar dira eta.

Irailen normaltasunarekin entrenatu ahal izan dira, nahiz eta giroa arraroa izan dela nabarmendu duten askok. Jaurlaritzak emandako segurtasun neurriak bete dituzte denek,



Lehen taldeak aurten gaztetu egingo dira asko; argazkian, 2018ko derbia. GOIENA

aldagelak ez dituzte erabiltzen, esku artean darabilten materiala sarri garbitzen dute eta, nagusien kasuan gehienak batera entrenatu badira ere, maila txikiagoetan talde multzo txikietan jardun dute.

Harmailak itxita, oraingoz

Hala, taldeak hasi dira lagunarteko partiduak jokatzen. Esaterako, futboleko, UDAk garaipena ekarri du aste barruan Zumaiatik (1-3), eta, emaitza baino gehiago, sentsazioak izan dira onak. Baina, aste barruan Bergarako kirol taldeak bidalitako prentsa oharrak gogorarazi duenez, zaleek oraingoz ezin dute euren taldeez gozatu: "Bazkide eta herritar guztiak gogorarazten zaie Ipintza eta Agorrosin futbol zelaietarako sarrera debekatua dagoela. Entrenamendu saio eta lagunarteko partidu guztiak atek itxita izango dira, ikuslerik gabe. Jokalariak, entrenatzaileak eta klubeko kideak soilik izango dute bertara sartu ahal izateko baimena". Neurri horiek ez dituzte klubek hartu, eta gehiegizkoak ere badira, inguruko kirol instalazioetako

harmailak, zoritxarrez, oso gutxitan betetzen direlako. Eta are gutxiago aire librean daudenak.

Esan moduan, taldeak hasi dira lagunartekoak jokatzen, eta, esaterako, Ohorezko Erregionalean, Bergarak eta Antzuolak elkarren kontra jokatuko dute bihar (12:00, Agorrosin) eta gazte mailako Bergarak eta Mondrak beste horrenbeste egingo dute Ipintzan (16:00). Hala, Gipuzkoako Futbol Federazioaren asmoa da urriaren 18an hastea ligak.

Eskubaloia eta errugbia: lanean

ARTko lagunak dagoeneko hamar lan-saio inguru egin dituzte, eta ligara begira Barrutiak iazko taldea izango du eskura. "Sentsazio oso onekin" dabilta lanean, eta prestakuntza bide onetik doala nabarmendu du.

Eskubaloian, berriz, Euskadiko Txapelketan diharduten Ford Mugarri Arrasatek eta Fagor Industrial Aloña Mendik aldaketa handiak izango dituzte, bereziki jende gazte asko igoko delako lehenengo taldera, eta egokitzeko urtea izango dute. Urrian hasiko dute liga, baina ez dute data zehatzik, oraingoz.



GOIENA
URTE
ALBISTE
20

HEZKUNTZAREN BILAKAERA, JAIEN EPELEAN

'GOIENA: 20 URTE, 20 ALBISTE' ERREPORTAJE-SORTA

GOIENA TELEBISTA

IRAILAREN 18AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
20 URTE ZUEKIN



Akelarre filmeko Yune Nogueiras eta Lorea Ibarra, Kursoal ondoan, domekan. IMANOL SORIANO

Txikiagoa, baina "beharrezkoa"

68. Donostia Zinemaldia hasi da gaur, eta irailaren 26ra bitartean 143 lan eskainiko dituzte hainbat sailetan banatuta; Debagoieneko partaideak dituztenak daude horien artean: 'Akelarre', 'Arzak since 1897' eta 'Hil Kanpaiak' filmak eta 'Patria' telesaila

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Sail Ofizialean lehiatuko den *Akelarre* filmeko Yune Nogueiras bergararra eta Lorea Ibarra arrasatearra irrikaz daude Zinemaldian barrutik bizitzeko; egin duten lehenengo filmarekin alfonbra gorria zapalduko dute. "Sekulako esperientzia izango da, ilusioarekin goaz datorrenari aurre egitera", dio Nogueirasek, eta zera gaineratu du Ibarrak: "Sekulako sorpresa izan zen Zinemaldian izango ginela esan zigutenean. Guretako pauso handia da".

Osintxuko Jon Olivares iaz egon zen lehenengoz Donostia Zinemaldian. *Patria* telesailaren lehen minutuak aurkeztu zituzten orduan, eta aurten, egin dituzten zazpi kapituluak, Sail Ofizialean lehiatetik kanpo. "Ilusioz eta gogotsu nago, iazko aurkezpenak indarra eman zion

lanari; baina pena apur batekin ere bai, ez da ohiko jaialdia izango eta. Urduri nago, baina iazko esperientzia lagungarria izango dela uste dut. Bi egunean izango naiz: gaur, filmeko proiektioan, eta bihar, *photocall*-ean eta elkarrizketak egiten. Filmak ikusteko aukera gutxi izango dut", kontatu du Olivaresek.

Asier Altuna *Kixi* zine zuzendariak eta Imanol Gallego kazetariak ibilbide luzea dute Zinemaldian, baina badakite ez dela orain artekoen modukoa izango. "Berezia besteko beharrezkoa da aurtengoa. Etxean egon garen garaian eskertzeokak izan dira zine plataformak, baina zine areto baten xarma ez du sekula ordezkatzeko telebista batek", dio Gallegok, eta, bide beretik jarraitu du Altunak: "Oso arraro dator. Filmak egongo dira, baina lagunekin elkar-

tzea, bilerak egitea... ez da erraza izango; hala ere, nola ez, pozik goaz *Arzak since 1897* estreinatzen; azken urteetan gure ohitura bihurtu da Zinemaldian lanak estreinatzea; aurten, *Culinary* saila zabalduko dugu".

Film eta sarrera gutxiago

Sail guztiak izango dira, baina film gutxiago eskainiko dituzte –batez beste, 200 film orain arte, eta 143 aurten–. Edukiera ere murriztu dute, esaterako, Kursoaleko aretoan, 1.800 jarlekutik 600era. "Kazetariok *Pandemia dela-eta erantzukizunpeko adierazpena* sinatu dugu, non, besteak beste, konprometitzen garen aretoetan maskara eramatera, jende askorekin ez egotera, iraupen luzeko filmetan maskara bereziak erabiltzera... Elkarrizketa denborak eta egiteko aukerak ere gutxiago izango dira".



Mikel Laskurain eta Jon Olivares, *Patria* grabatzen, Elena Iruretaekin. U. M.

Olivares eta Laskurain, 'Patrian'-n

Sail Ofizialean –lehiaketatik kanpo– estreinatuko du gaur HBO ikus-entzunezkoen plataformak zeresan handia sortu duen *Patria* telesaila. Ramon Arambururen eleberrian oinarrituta dago eta euskal gatazkaren erdian dauden lagunaren eta familien arteko gorabeherak kontatzen ditu.

Iazko udaberrian grabatu zuten hainbat tokitan; adibidez, Sorraluzen. Estra lanetan debagoiendar askok hartu zuten parte, eta, horrez gainera, Bergarako Jon Olivares eta Mikel Laskurain dira istorioko protagonistetako batzuk; Laskurainek jokatu du Joxianen rola eta Olivares osintxuarrak horren semearena, Joxe Mari ETKo kidearena. Elena Irureta, Jose Ramon Soroz, Ane Gabarain, Iñigo Aranbarri, Susana Abaitua, Loreto Mauleon eta Eneko Sagardoy dira telesailako beste aurpegi nagusiak.

Akelarre', Sail Ofizialean lehiatuko
Drama historikoa da –XVII. mendean kokatuta dago–, eta "ikus-puntu garaikidea eta femininoa" du. Espainiar-frantziar-argentinarrak independenteak Arte International saria jaso zuen Donostia Zinemaldiko Koproduktzio Foroan. Urriaren 2an estreinatuko dute zine aretoetan.

Marinelen herri txiki baten bizi diren neska talde bat da Pablo Aguerok argentinarrak zuzendu duen seigarren filmeko protagonista; marinela itsasoratu egin dira eta neskak bakarrik geratu dira herrian. Hori-tako bi dira Yune Nogueiras eta Lorea Ibarra. Maria Ibarra, –Ana protagonistaren ahizpa–. "Maria oso amariarra da, oso behatzailea da eta dena kontrolpean izan gura du. Bi aurpegi dauzkala esango nuke", dio Bergarakoak. Arrasatekoak Oñeka dela azaldu du. "Alaia da, baina halako egoera bat bizitzekoan beldur handia sentitzen du eta bere buruan segurtasun falta".

Eskarmentu handiko lantaldea izan du Aguerok alboan; besteak beste, Javier Agirre, Argazkizuzendaria; Mikel Serrano, Ar-

te-zuzendaria; Nerea Torrijos, jantziteria-arduraduna; eta Maitte Arroitauregi –*Mursegogor* arduratu da musikarekin.

Hainbat tokitan grabatu zuten: Lagan, Itziarren, Urbanan, Lesakan eta Saran. "Nahiko konplikatu izan zen, baina familia bat izan da taldea eta horrek asko lagundu digu", esan du Ibarrak, eta emaitzarekin gustura daudela gaineratu du Nogueirasek: "Askok gustatu zaigu, oso ondo eginda dago". Pantaila handian lehen esperientzia izan dute biek ala biek, eta gehiago egiteko gogotsu daudela azaldu dute Nogueirasek eta Ibarrak, hurrenez hurren: "Bilboko Dantzerti eskolako azkeneko mailan nago aurten; gehienbat, antzerkia egin izan dut orain artean". "Konturatu naiz etorkizunean lanbide honetan jardun gura dudala. Zinemaldian eskainiko

**ZINEMALDI BEREZIA
ETA MURRITZAGOA
IZANGO DA, "ILUSIO
ETA KONTU HANDIZ"
PRESTATUTAKOA**



Imanol Rayo *Hil kanpaiak* filmeko zuzendaria, Itziar Ituño, Eneko Sagardoy eta Yon Gonzalez aktoreekin. DAVID HERRANZ

duten *Ane* filmean ere paper txiki bat egin dut".

Filmak Urrezko Maskorra lortzeko dituen aukerei buruz galdetuta, Gallegok zalantza du aurtengo kiniela egiteko orduan: "Cannesko jaialdira joan behar zuten hainbat film Donostian lehiatuko dira; hortaz, aurtengo lehiaketa zaila dela uste dut".

Zuzendari Gaztea sariaren bila
Imanol Rayoren *Hil kanpaiak* filmak familia arteko gorrotoa, belaunaldi ezberdinen arteko gatazkak, ezkutuan gordetako

gorpuak eta mendekua nahasten ditu. Tragedia ukituak dituen thriller beltzeko protagonistetako bat da Yon Gonzalez bergararra, -Garizmendi baserriko gertaera ikertuko duen polizietako bat da-; eta alboan ditu, besteak beste, Itziar Ituño eta Eneko Sagardoy. Zuzendari Gazteak sailean lehiatuko da.

COVID-19ak dirdirari irabazi
Dirdira eta glamourra izango da, baina ez da horren agerian izango, ez da-eta jairik egingo. Alfombra gorria badago, baina

bertan izango diren artistak ere ohi baino gutxiago izango dira. "Ez daukagu zerrenda osoa. Donostia saria jasoko duen Vigo Mortensen izango da; Woody Allen etortzekoa zen *Rifkin's Festival* aurkeztera eta badakit aha-lerin handia egin duela Rebor-dinosek, baina, azkenean, taldeko beste batzuk etorriko dira".

Zinemaldia Goienan
Goiena.eus-en, Goiena telebista-ko *Hemen Debagoiena* saioan eta Arrasate Irratian jasoko dira Gallegoren kontakizunak.

"Zinemaldiak bultzada emango dio filmari urriaren 9ko estreinaldirako"

ASIER ALTUNA 'KIXI' ZINE ZUZENDARIA

Culinary saila zabalduko du Baintekoiztetxeak egin eta Asier Altunak zuzendu duen *Arzak since 1897*-k, irailaren 21ean, Victoria Eugenia.

Enkargu bat izan da; zer jasotzen du dokumentalak?

Gustura jaso nuen Baintekoiztetxearen proposamena, baina hasieran ez nekien nondik nora jo. Ez nuen gertutik ezagutzen Juan Mari Arzak, baina kamera aurrean elkarrizketak egiten hasi eta poliki-poliki istorioa ateratzen hasi zen. Elena Arzak da gaur egun jatetxean pisua daramana, baina Juan Mari han izaten da egunero. Arzak etxearen erretratua eta Euskal Herriko sukaldaritzaren iraultza eta bilakaera jaso dugu hemengo eta kanpoko askotariko ahotsen bitartez.

Juan Mari eta Elena dira protagonista nagusiak, baina zeintzuk gehiago daude?



IMANOL SORIANO

Denetarikoa daude: familiako eta Arzak etxeako langileak, sukaldaritzaren alorreko aurpegi ezagunak eta Juan Mariaren lagunak... Martak, Elenaren ahizpak, adibidez, tarte polita dauka, berak kanpotik ikusten du aitaren eta ahizparen arteko erlazioa, begirada polita dauka. Arzak-eko laborategiko taldea ere asko inplikatu da.

Emaitzarekin gustura?
Bai; protagonistei eta familiari erakutsi genien eta proba ondo pasatu zuen. 70 minutu ditu eta

publiko guztiarentzako da. Erraz ikusten da. Pertsonaia xelebrea da Juan Mari, egia esan, eta barre egingo duzue.

Zer moduz ari zarete filma aretoetan saltzen?

Egoera honekin ez da erraza, film guztiak blokeatuta daude, baina Euskal Herrian, Madrilan eta Bartzelonan hainbat areto lotu ditugu. proiektzioak egin ditugu eta oso onak izan dira, jendea pozik aterata da.

Esperimentu lantaldea izan duzu; tartean, Mursego musikaria. Zer moduz?

Gozatua da harekin lan egitea; soinu banda oso polita egin du, eta sorpresatxo bat ere badago, Juan Mari kantuan jartzea lortu du Maitek.

Zer duzu orain esku artean?
Aspalditik nabil Kirmen Uribereren *Elkarrekin esnatzeko ordua* eleberrian oinarritutako *Karmele* filmaren gidoia lantzen. Bidaia asko daude eta garaiko filma da; horregatik, produkzio konplikatu da. 2022an grabatzeko asmoa dugu. Koldo Almandozekin batera egin dugun *Hondar ahoak* telesaila ere muntatzen ari gara.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko irailako sariak!



'Arkada Social' eta 'En Tol Sarmiento' taldeen CDak
Parte hartzeko sariaren izena: CD

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
OSTATIKO O B A K

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileren artean egingo da zozketa.

Irailaren 10ean (13:00) eguneko saria irabazteko aukera duen pertsona Goiena Klubeko Zuzendariaren itzapean sartuko da. Irailaren 10ean, 13:00etan irabazteko aukera duen pertsona Goiena Klubeko Zuzendariaren itzapean sartuko da. Irailaren 10ean, 13:00etan irabazteko aukera duen pertsona Goiena Klubeko Zuzendariaren itzapean sartuko da.

Irabazi bi lagunendako otordua

ZUMELAGA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntuo aldizkaria Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: irailaren 22a da

📞 943 25 05 05 📧 kluba@goiena.eus

📄 KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntuo aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



ESKAITZA BEREZIA!!

Irailtik abendura bazkidetza: 30€
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazte, denok irabazte!

ESKER ONA

Javier Iraola Ormazabal
"Txapa"



2020ko irailaren 11n hil zen, 79 urte zituela.

Gazte-gaztetatik umoretsu dantza eta musika artean. Lagunen lagun beti irribarre bat agerian. 'Txapita', gu guztiengan utzi duzun hutsunea, jasoko dute gaur izarrek beren magalean.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez, familia guztiaren partetik, era batera edo bestera une zail hauetan gure ondoan egon zareten guztiok.

Oñatin, 2020ko irailaren 18an.

OROIGARRIA

Jose Mari Martinez de Albeniz Inza




2020ko irailaren 10ean hil zen.

Muga eta pareta guztiak gainditzen zenituen zure alaitasunarekin eta piano doinuekin, baita gure etxe artekoak ere. Ez zaitugu ahaztuko.

Zure ilobak.
Oñatin, 2020ko irailaren 18an.

OROIGARRIA

Jesus Lasa Bengoa



2020ko irailaren 16an hil zen, 85 urte zituela.


Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Mertxe (†) eta Javier (†), Mari Tere eta Jose Mari, Patxi eta Miriam, Idoia eta Luis, Andoni eta Karmele, Leire eta Ioseba, Nahia eta Beñat, Ibai eta Maddi, Iker, Alaitz, Manex, Ainhize, Arkaitz, Oier, Irati.

Aretxabaletan, 2020ko irailaren 18an.

ESKER ONA

Guadalupe Iso Oyaga



Pedro Oteizaren alarguna

2020ko irailaren 11n hil zen, 97 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztiok. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko irailaren 18an.

OROIGARRIA

Isabel Alzelai Solana



2019ko irailaren 28an hil zen, 91 urte zituela.

Bidekuzeko izkin hartan goxoki artian hazia goxua eta betia zure bizitza luzia irribarretsu argituz onduan zinuaz guztia aitxakin ta lonekin goxo-goxo, ama maitia.

Bizitzen ari garen larrialdi egoeran arduraz jokatzearan aldeko hautua eginez, gure amaren aldeko otoi bat eskertuko genizueke.

Bergaran, 2020ko irailaren 18an.

OROIGARRIA

Izaskun Soraluze Lizundia



2020ko irailaren 15ean hil zen, Elgoibarren, 64 urte zituela.

Izas, bizitzaren bidaian zati luze bat elkarrekin eginda, orain gure bizitzaren zati zara.

Euskaltegiko zure lagunak.
Bergaran, 2020ko irailaren 18an.

HILDAKOAK

Bixente Eriz Ormaetxea. Arrasaten, irailaren 8an. 88 urte.
Jose Mari Martinez de Albeniz Inza. Oñatin, irailaren 10ean. 84 urte.
Fernando Diaz Pascual. Aramaion, irailaren 11n. 75 urte.
Guadalupe Iso Oyaga. Arrasaten, irailaren 11n. 97 urte.
Javier Iraola Ormazabal. Oñatin, irailaren 11n. 79 urte.
Junkal Abaunz Biain. Oñatin, irailaren 12an. 63 urte.
Angel Luengo Gato. Bergaran, irailaren 13an. 89 urte.
Izaskun Soraluze Lizundia. Elgoibarren, irailaren 15ean. 64 urte.
Perfecta Cid Delgado. Arrasaten, irailaren 15ean. 93 urte.
Jesus Lasa Bengoa. Aretxabaletan, irailaren 16an. 85 urte.
Juan Nuñez Garcia. Bergaran, irailaren 17an. 53 urte.

URTEURRENA

Emili Garitano Elkoroiribe



2019ko abuztuaren 25ean hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 20an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Konturatu orduko urtea pasa da, ama, zure argia gure bihotzean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2020ko irailaren 18an.

URTEURRENA

Eneko Iturbe Galdos



2019ko irailaren 20an hil zen, 41 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan, irailaren 20an, izango da, 12:00etan, San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Urtebete zu gabe, zure irribarrea gogoratu, zu alboan zaudela sentituz. Gure bihotz barranean eramango zaitugu betiko.

Zure familia

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2020ko irailaren 18an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ Egubakoitza, 18 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26 Zapatua, 19 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39 Domeka, 20 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74 Astelehena, 21 ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 Martitzena, 22 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09 Eguaztena, 23 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30 Eguena, 24 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15	ARRASATE GAUEZ EGUNEZ (22:00etatik 09:00etara) 2020ko abenduaren 31ra arte: ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
BERGARA EGUNEZ Egubakoitza, 18 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 Zapatua, 19 URRITIKOETXEA: Orxondo plaza 4 / 943 76 11 74 Domeka, 20 URRITIKOETXEA: Orxondo plaza 4 / 943 76 11 74 Astelehena, 21 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 Martitzena, 22 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 Eguaztena, 23 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 Eguena, 24 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15	BERGARA GAUEZ EGUNEZ (22:00etatik 09:00etara) 2020 osoan: ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK Egubakoitza, 18 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 Zapatua, 19 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 Domeka, 20 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 Astelehena, 21 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16 Martitzena, 22 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16 Eguaztena, 23 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 Eguena, 24 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58	Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COP Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskela@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoienan.

BABESLEA

Oroilore
Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguru izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK



1




2




3



4



5




6



7



8



Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Amerikako rock doinuak

Bilboko Amman and the Wayward Sons taldearekin bukatu zen Kulturate Akustikoak jaialdia. Rock doinuei jazz eta psikodelia ukituak eman zizkien taldeak.

3. Zozketaren irabazlea

Ainhua Zabaleta oñatiarrak irabazi ditu Gatiburen diskoa eta poltsa eta Eñaut Elorrietaren diskoa. 155 lagunek hartu dute parte Goienaren Facebookeko zozketan.

5. Bihar ezkontuko dira

Donostian ezkontuko dira Amaia eta Iñaki aretxabaletarrek. "Zorionak, bikote, familiaren eta lagunen partetik! Ondo pasatu eta oso zoriontsu izan!".

7. Urrezko ezteiak ospatzen

Agustina Aramendi eta Iñaki Iñarra bergarrek 50 urte bete dituzte ezkontuta. "Zorionak, familiaren partetik! Segi zoriontsu izaten, bikote!".

2. Margoekin dantzan eta kantuan

Akrobazia, dantza eta antzerkia bateratzen ditu Shakti Olaizolak. Hori guztiori, kolore ezberdinetako margoekin nahastuta. Ikuskizun polita egin zuen Bergaran.

4. 50 urte ezkontuta

Rosa Muguruza eta Luis Mari Arabaolaza arrasatearrek irailaren 19an beteko dituzte urrezko ezteiak. "Zorionak, bikote, eta familiarekin batera ondo ospatu!".

6. Ezkontu zirela 50 urte

Maritxu eta Jabier oñatiarrek urrezko ezteiak bete dituzte. "Zorionak, etxeko guztion partetik, zuen urrezko ezteietan! Musu erraldoi bana!".

8. Abuztuan, 50 urte ezkontu zirela

Emilio Ubedak eta Rafi Azconak abuztuaren 15ean bete zituzten urrezko ezteiak. "Egun ederra pasa genuen. Vanessaren, Koldoren eta familiaren partetik, zorionak!".

ZORION AGURRAK



BERGARA
Ibai Zaitegi Fernandez
Irailaren 24an, 7 urte.
Zorionak, Ibai!
Patxo handi bat,
maixe zaitxugun
danon partetik!



OÑATI
Maddi Lopez Inza
Irailaren 24an, 5 urte. Zorionak eta urte
askotarako, Maddi! Zelako handi egin zarien!
Mila patxo maitte zaittugun danon partetik!



ARRASATE
Araitz Gartzia Dorrnsoro
Irailaren 24an, 8 urte.
Zorionak, maitti!
Jarraitu beti irrifar polit
horrekin eta zure
bihurriarekin.
Muxu potolo bat
Shaneren eta familia
osoaren partetik.



BERGARA
Unai Manso Beistegi
Irailaren 23an,
urtebete. Zorionak,
Unai, zure lehenengo
urtebetetzean,
Naroaren eta familia
osoaren partetik. Asko
maite zaitugu!



ESKORIATZA
Naroa eta Maialen Altuna
Irailaren 22an, 15 urte. Zorionak, bikote.
Egun polit-polita euki! Patxo potolo bat, familiako
danon partetik.



OÑATI
Enara Garcia Calzada
Irailaren 21ean, 8 urte.
Zorionak, sorgintxo!
Patxo erraldoi bat
Aneren, Hegoiren,
aitaxoren, amatxoren
eta familia osoaren
partetik. Asko maite
zaitugu!



OÑATI
Iker eta Aimar Zabaleta
Irailaren 16an, Ikerrek 44 urte eta 20an, Aimarrek
8 urte. Zorionak, bikote, eta ondo-ondo pasatu
zuen egunian. Patxo handi bana, familia osoaren
partetik.



ARRASATE
Roxanna Paudel
Irailaren 19an, 7 urte.
Zu bezain ederra,
sinestezina eta
paregabea den
urtebetetzea opa
dizugu. Zorionak, nire
printzesa!



BERGARA
Malen eta Inhar Aramendi Olasolo
Irailaren 19an, 2 urte. Zorionak, politxok!
Ondo-ondo pasatu zuen eguna eta muxu handi bat,
etxeko danen partetik!



ANTZUOLA
Ankara Sandia Sanchez
Irailaren 18an, 3 urte.
Zorionak, txika boom
maitxia. Jadanik hiru
urte bete dituzu, gure
egun danak zorionsu
egiten. Segi horrela
urte askotarako. Maite
zaitugu, poxpolin.
Ama, aita, amama-
aitxita, tia eta Aimar.




OÑATI
Ane Arregi Unamuno
Irailaren 18an, 5 urte.
Zorionak, Ane! Zure
eguna heldu da.
Pozik eta zorionsu
disfrutatu.
Patxo handi bat,
etxeko denen partetik!
Maite zaitugu, polit!



horil
ARRASATE
June Canales Diez
Irailaren 18an, 12 urte.
Zorionak, June!
Primeran pasatu
urtebetetze eguna.
Muxu potolo bat,
familia osoaren
partetik.



BERGARA
Izaro Loiola Lopez
Irailaren 18an, 6 urte.
Izaro, egun
polit-politxa pasatu
zure urtietan! Asko
maitxe zaitxugu;
ilargira arte eta buelta!
Izar, Irati, aitaXu eta
amatxo! Mua!



OÑATI
Gari Palacin Errasti
Irailaren 18an, 6 urte.
Zorionak eta urte
askotarako, Gari! Ondo
pasatu eguna eta mila
kilo zorion, etxeko
danon partetik!



OÑATI
Malen Salazar Guridi
Irailaren 18an, 13 urte.
Zorionak zure
urtebetetzian, etxeko
danon partetik! Gure
ametsakoko printzesa
zara eta horrelakoa
izaten jarraitu! Izugarri
asko maite zaitugu!



ESKORIATZA
June Aguirre Gandarias
Irailaren 17an, 8 urte.
Zorionak, June! Egun
ederra pasatu, maitia.
Muxu handi bat,
etxekoen partetik. Segi
zaren bezala izaten.
Asko maite zaitugu!



BERGARA
Hodei Goenaga
Irailaren 17an, 5 urte.
Zorionak, Hodei.
Egun zoragarria pasatu
eta patxo handi bat,
danon partetik.



BERGARA
Maialen Esteban Laskurain
Irailaren 17an, 7 urte.
Zorionak, printzesa!
Patxo handi bat,
aititaren, amatxoren
eta aitaXoren partetik.
Asko maite zaitugu.



BERGARA
Ekain Herrero Arrondo
Irailaren 16an, 5 urte.
Zorionak, Ekain, eta
urte askotarako.
Patxo bat familiaXa
danaren partetik!



ARETXABALETA
Urko Arkauz Vitoriano
Irailaren 15ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun!
Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat
danon partetik!



OÑATI
Noa Montero San Vicente
Irailaren 14an, 9 urte.
Zorionak, maittia! Mila
kilo zorion opa dizugu
gaurko egunian!
Ondo-ondo pasatu eta
zoragarri ospatu!
Jarraitu zaren
modukua izaten! Asko
maitte zaittugu!



OÑATI
Nora Urrate Lertxundi
Irailaren 14an, 4 urte.
Zorionak, Nora! Zelako
handi zabitzen itten...
Ondo pasatu zure
urtebetetze egunian.
Patxo handi bat,
politt hori!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta
senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu
eta [https://goiena.eus/
zorionagurrak](https://goiena.eus/zorionagurrak) helbidean sartu
zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan
argitaratuko da webgunean eta
egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@
goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi:
izen-abizenak, herria,
urtebetetze-eguna eta nahi
duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren
ordezkaritzaren batera edo deitu
943 25 05 05 telefonora.



BERGARA
Haizea Iturrospe Arrondo
Irailaren 14an, 9 urte.
Zorionak, Haizea!
Ondo pasatu zure
urtebetetze eguna.
Patxo handi bat.




ARETXABALETA
Nikole Atxa Urrutia
Irailaren 14an, 4 urte.
Zorionak, Nikole!
Disfrutatu zure eguna,
politt hori.
Maitte zaittugu!



ARETXABALETA
Kepa Rodriguez Alberdi
Irailaren 14an,
urtebete. Zorionak
etxeko txikiari! Urtetxo
bat gurekin eta Laia
desietan zurekin
jolasteko! Ondo pasatu
eta muxu handi bat!



OÑATI
Anje Barrena Agirrebaltzategi
Irailaren 12an, 4 urte.
Zorionak etxeko
txikitxuarendako!
Primeran ospatu, asko
maitte zauen
jentiarekin!



ARRASATE
Ibon Domingo Elorza
Irailaren 21ean, 3 urte.
Zorionak etxeko danon
eta laguntxuen partetik!

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 18

OÑATI Tailerrak, ludotekarekin
Letxuga landatzea, zirku tailerra eta jolas didaktikoak egingo dituzte.
San Martinen, 16:30ean.

ARRASATE Merkataritzaren Berdea: tailerrak

Txatxilipurdiren eskutik, hiru tailer: 0-4 urte artekoendako gunea, jolas erraldoiak eta *Kaleak apainduz. Maiatzaren 1a plaza, 18:00etan.*

OÑATI Hikalaguna taldeak, martxan

Abendura arte hika ikasi eta proiektura batu gura dutenendako.
Berdura plazan, 18:00etan.

ELGETA Bertso saioa

Igor Elortza, Oihana Bartra, Maialen Akizu eta Beñat Mujika bertsotan. Sarrerak, bost euro. Edukiera mugatua.
Espaloian, 22:30ean.

ZAPATUA 19

ARRASATE Baserritarren azoka

Bertako eta sasoiko produktuak erosteko aukera.
Seber Altuben, 09:00etan.

ARRASATE 'San Balerio: Arrasateko meatzarien kofradia' bisita gidatua

Kofradiaren sorrera ezagutzeko aukera. Irteerak: 09:30ean, Herriko Plazan, oinez joateko; eta 10:30ean, San Balerion bertan.
San Balerion.

BERGARA 'Brontzearen unibertsoa' tailerra

Europako Jardunaldien baitan. Bi talde: 10:00-12:00 (euskaraz) eta 12:30-14:30 (gaztelerez). Debalde, eta leku mugatuak. Aurrez eman behar da izena.
Laboratoriumen, 10:00etan.

OÑATI 'Arrikrutzeko leize lehoiarekin paleolitoan barrena' bisita gidatua

Ondarearen Europako Jardunaldien baitan, eta euskaraz. Aurrez eman behar da izena: 943-08 20 00.
Arrikrutzan, 10:00etan.



GOIENA

BERGARA 'Beethovenen 250. urteurrena' kontzertu klasikoa
Alemaniako musikari handiaren Bigarren Sinfonia interpretatuko du Kamerata Euskdivarius taldeak. Sarrera debalde izango da, baina edukiera mugatuarekin. Lekua hartzeko garaz joatea aholkatzen da.
Gaur, egubakoitza, Santa Marina parrokiaren, 20:00etan.

OÑATI 62. Mikel Deuna Saria

Lehendakari Txapelketarako puntuagarria den proba, 100 kilometrokoa. Helmuga ordua: 12:30.
Unibertsitate etorbidean, 10:00etan.

ELGETA Nekazaritza azoka

Baserritarren produktuak; larrugintza eta eskulangintza.
Mendizaleen plazan, 10:30etan.

ELGETA Bi zapelatz askatuko dituzte

Igeldoko Arrano Etxean sendatutakoak. Aurrez eman behar da izena: 943-78 28 94 edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus*. Sarrerak, hiru euro.
Parketxean, 11:00etan.

ARRASATE Kolonbiari buruzko hitzaldia

Consejo Regional Indigena del Cauca kide Sigifredoren hitzaldia. Irekia.
Gaztetxean, 18:00etan.

DOMEKA 20

BERGARA 'Beart-eko bekadunak' erakusketa

Urriaren 4ra arte ikusgai.
Aroztegin, 12:00etan.

BERGARA Udal Musika Bandaren kontzertua

Besteak beste, *San Martin* martxa joko dute.
Boluko frontoian, 12:30etan.

ESKORIATZA Iñaki Encinaren eta Adriana Gonzalezen kontzertua

Pianoaren eta Gonzalez sopranoaren ahotsarekin emanaldi bikoitza egingo dute: 17:30ean eta 20:00etan.
Zaldibar antzokian, 17:30ean.

ARRASATE 'Simplicissimus' kabareta

Lana askatasun osoaz egin nahi izateagatik jazarpena sufritu eta sufritzen duten komikoei omenaldia egin nahi izan die Patxo Telleriak. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30ean.

ASTELEHENA 21

ARRASATE Emakume Txokoaren ikastaroak: izen-ematea zabalik

Gaurtik hilaren 25era arte eman daiteke izena. Informazioa eta izen-ematea: *Arrasate.eus/eu/udala/udal-sail-eta-zerbitzuak/berdintasuna/emakume-txokoa*.
Emakume Txokoa.

ARRASATE Literatura solasaldiak: izen-ematea zabalik

Gaurtik hilaren 26era arte eman daiteke izena. Informazioa eta izen-ematea: *Arrasate.eus/biblioteka/literatura*.
Bibliotekan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.



GOIENA

ARAMAIO Idoia Asurmendiren emanaldia

Etxeko musikariaren kantuak ezagutzeko aukera, Udaramaio ekimenaren baitan. Donostiako Jazzaldian kontzertua egin ostean, etxean egingo du geldialdia Asurmendik. Debalde, edukiera mugatuarekin.
Gaur, egubakoitza, parkean, 19:30ean.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ESKORIATZA Euskal dantzak: matrikula zabalik

Adinaren arabera hiru talde sortuko dira. Informazioa eta izen-ematea, Beheko Errota musika eskolan: 943-71 49 95.
Musika eskolan.

BERGARA 'Autoestimua feminista' ikastaroa

Jabekuntza Eskolaren baitan. Gaurkoa da lehen saioa. Ikastaroa hasi baino bost egun lehenagora arte eman daiteke izena: *berdintasuna@bergara.eus* helbidean edo 943-77 91 10 telefonoan.
Irizar jauregian, 18:00etan.

MARTITZENA 22

DEBAGOIENA Baserriko plastikoen bilketa

Siloa estaltzeko, belar boletako, berotegietako eta lurra estaltzeko plastiko beltza eta berotegietako plastiko zuria batuko dira. Herri bakoitzak badiu plastikoak uzteko lekuak zehaztuta.
Herriaren arabera, leku ezberdinak.

OÑATI Aisialdiko begirale ikastaroari buruzko batzarra

Titulu ofiziala da eta Ofiatin atera ahal izango da urritik maiatzera

bitartean, zapatuetan. Urriaren 8a da izena emateko azken eguna.
Zinema aretoan, 18:00etan.

BERGARA Emakumeen Bergara Hiria pilota txapelketa

Pilota mistoekin jokatu dira partiduak.
Udal Pilotalekuan, 19:30etan.

EGUAZTENA 23

DEBAGOIENA Pandemia sasoiko laguntza psikosozialaren gaineko hitzaldia

Osartenen eskutik. Orientazioa eta laguntza emango dute; Xeben plataformaren bitartez egingo da hitzaldia. Izena: *Ptgarraia.eus*.
Telematikoki, 09:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Bertako eta sasoiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

ELGETA 'Elgetarrak historian' liburuaren aurkezpena, Memoria Astearren barruan

Memoria Astearren baitan aurkeztuko dute Manolo Cainzosek idatzitako liburua.
Espaloian, 18:30ean.

ARRASATE 'Argi-izpiak txarrantzen artean - 14 begirada kartzela feminismitik birpentsatzeko' liburuaren aurkezpena

Ekitaldian parte hartuko du Oihana Etxebarrietak, liburuaren egileetako



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

Normaltasun berria (II)

Pelikuletan, gaizkileek maskara daramate. Baina pelikula goitik behera aldatu da: maskararik ez daramana da orain gaizkilea.

Nire lagun batek maskara galdu zuen. Eta maskara gabe, ezin zen dendara sartu beste maskara bat erostera. Etxera joatea erabaki zuen, lehenbailehen. Oinez joan zen, ezin baitzuen garraio publikoa erabili, maskararik ez zuelako. Segituan konturatu zen gaizkile bati bezala begiratzen ziotela. Okerragoa dena: gaizkile sentitzen zela bera ere. Etxeko giltzak galtzea baino okerragoa zela maskara galtzea. "Joder, nola demontre galdu dut maskara?".

Luzea egin zitzaion etxerako bidea. Aurpegia estaltzeko beharra sentitzen zuen. Inork ez begiratzeko beharra. Biluzik sentitzen zela dio. Galtzerdi bat kendu, eta maskara moduan ipini zezakeela pentsatu zuen. Baina galtzerdiak laburregiak zituen. "Joder, nola jantzi ditut hain galtzerdi laburrak?". Luzea egin zitzaion bidea.

Maskara galtzeak bere beldurrak eta ezinegonak azaleratu zituen. Orain, bi edo hiru maskarekin irteten da kalera, badaezpada. Maskarek ezkututzen dute bere ezintasuna. Denon ezintasuna, egunero.

BUKATZEKO

Akrobazia onena etxean egiteko gogoarekin

Agurtzane Telleria arrasatearra hilaren 25ean helduko da Arrasatera Gure Zirkuarekin. Orion jasotako babesaren ostean, arrakasta errepikatu gura dute. Hamabost saio egingo dituzte, urriaren 11ra bitartean, Arruena parkeko karpan

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE

2019ko abenduan jaso zuen Iker Galartzaren deia, Gure Zirkua-ren denboraldi berriko kide izateko gonbidapenarekin. Ez zuen bitan pentsatu. "Ohituta nago ikastaroak ematera eta jendaurreko ikuskizunak egitera, baina zirkua beste gauza bat da: magia, sentimenduak, bizipenak, zoriontasuna...", esan du Agurtzane Telleria arrasatearrak.

Izan ere, bera da Gure Zirkua-ren ikuskizuna posible egiten duen lantaldearen kideetako bat. Eta bere eginkizuna oihal-akrobaziak egitea da. Oihalak laztanduz askotariko akrobaziak eta jauziak egiten ditu karparen erdian. Zuzeneko musikaren laguntzarekin ikuskizun goxoa egiten du. Eta, bukatzerakoan, txalo zaparrada. "Asko eskertzen ditut txaloak. Baina ez bakarrik nire ikuskizuna bukatzen denean. Gure Zirkura datozen guztiak daude kultura gosez. Txalo egiten dute, baina kantuan eta dantzaz ere bai. Oso deigarria da ikusleak maskarekin ikustea. Pena da euren irribarrea ezin dugula ikusi. Dena den, euren sentimenduak eta eskertzeak berdin-



Telleria, oihal-akrobazia egiten, karparen erdian. AGURTZANE TELLERIA

berdin heltzen zaizkigu", dio Telleriak. Eta, karpa barruko harrera beroa bada, are beroagoa da kanpoko. Musu eta besarkada barik, argazkiak izaten dira protagonistak kanpoaldean.

Berriro errepidera

Gure Zirkua-ren 2020ko denboraldia maiatzaren 2an zen has-



Agurtzane Telleria. A.T.

tekoa, baina pandemiak plan-gintza aldatu beharra ekarri zuen. Ezjakintasunez betetako hilabete batzuen ostean, errepidera irteteko erabakia hartu zuten, eta "pozik" daude erabakiarekin. "Egia esan, zalantzak eduki genituen. Ez genekien nolako harrera jasoko genuen. Segurtasun protokoloak betetzen ditugun arren, azken hitza ikusleek dute. Orain artekoa ikusita, ezin gara kexatu. Hurrengo emanaldiak etxean egingo ditut, eta horrek urduri ipintzen nau. Baina gogotsu ere banago", dio.

Karpa handiagoa

Ikusleen arteko gutxieneko distantzia gorde ahal izateko eta edukiera berbera mantentzeko, karpa handiagoa dauka Gure Zirkua. Protokoloak agintzen duen guztia betetzeko eta sarre- rera unean pilaketarik ez egote- ko, garaiz joatea aholkatzen du Telleriak. "Ezin dugu sarre- ra bateratua egin. Taldeka sar- tuko da jendea, eta horiek ondo kokatu behar ditugu harmaile- tan. Horrenbestez, garaiz joatea da onena".

Sarrerak, salgai

Irailaren 25etik urriaren 11ra egingo dituzten emanaldietara- ko sarrerak salgai daude *Sarre- rak.gurezirkua.eus* atarian. Oraingoz, hamabost daude ira- garrita: irailaren 25ean, 19:00etan; irailaren 26an eta 27an, 12:00etan eta 18:00etan; urriaren 2an, 19:00etan; urriaren 3n eta 4an, 12:00etan eta 18:00etan; urriaren 9an, 19:00etan; eta urriaren 10ean eta 11n, 12:00etan eta 18:00etan.

Emanaldi horietako erantzun- naren arabera, akaso, emanaldi gehiago egingo dituzte.

2^{mó}
graduatu

BLUESTOP
FILTROA
BARNE

99€

2020/9/30era arte baliagarria. Ezin da beste promozio batzuekin erabiltzea.



Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com